

ttipi-ttapa



HARREMANA MANTENTZEKO BERTZE MODU BAT

Martxoaren 13an itxi zituzten zahar etxeetako ateak eta geroztik, bisitarik gabe daude bertako egonliarrak. Bideo-deien bitartez egoten dira gaur egun senitartekoekin. / 8

Kultura ikusarazteko borrokan

Eskualdeko hainbat kultur eragilek bat egin zuten apirilaren 21ean eta 22an egin zen greba digitalarekin. / 36

SINADURAK



ZOKKETA / 60



«Azken bost urteak 'bihar etor daitezke' esaldia ahoan pasa ditugu»

'Herriko Tabernen' auzia hasi zenetik 18 urte pasatu dira eta Espainiako Auzitegiak hainbat kontu korrante enbargatu ditu dagoeneko, tartean Leitzako Torrea Herriko Tabernarena. Hala berretsi du Jone Lozanok. / 40

Garraiolarien lanean ere bete-bete eragin dute konfinatzeko neurriek / 30

Inaxio Perurena 310 kiloko harria altxatzeko prestatzen ari da / 52

ALMACO BAZTAN GRUP GAMMA

Almaco Baztanen
lanean segitzen dugu!



Telefonoz eskaera egin
eta etxera eramanen dizugu.

Tel. 948 580 104



beti bezala,
eskaintza
hagitz onak ditugu

Errepide nagusia 93, Elizondo
www.almacobaztan.com



Energia Berriztagarrien
Goi Mailako Zentro
Integratua EBGZI

Gobierno  Nafarroako
de Navarra Governua

**Ate irekien
jardunaldia**
Zentroaren aurkezpena
gure webgunean:
maiatzaren 4tik aurrera
17:30ean

Bisita iezaguzu modu birtualean



LH BEREZIAREN ESKAINTZA

> Elektrizitateko laguntzailea: 2. urtea

ERDI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOA

> Uren tratamenduak sare eta araztegiak

BAILARATIK ATERA GABE

Sarbide zuzena DBHrekin

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

- > Energia berriztagarriak
- > Energia-eraginkortasuna eta eguzki-energia termikoa
- > Instalazio termikoak eta fluidodunen mantentzea
- > Zentral elektrikoak (klaseak online)

Informazio gehiago www.cenifer.com

Aduana kalea z/g - Imarkoain - Tel. 848 43 13 80



NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Etsaiak lagun

Barraskiloeekin gerran nago. Gure etxeko balkoi nanora ageri ohi dira ditugun landare pixarrak jatera: albaka, oreganoa, aloek... Baina, nondik heldu dira? Hormigoizko eraikuntza zaharkituz inguraturik gaude, ez dago berdegunerik inguruan, eta, halere, hemen daude; ausart, lotsagabe, probokatzaille. Misterioa da: paretak eskalatuko ote dituzte?

Horiez gain, bertze batzuk ere azaltzen zaizkigu etxean: astero-astero, herriko nekazari

gazte batek ekartzen digu barazki-saskia, eta, bertan ere, karakolak egoten dira; ttikiagoak, bai, baina egon badaude. Dena dela, jarrera ezberdina dutela erranen nuke: alai, natural, lasai. Eta, finean, azken horietaz ez naiz kexu, seinale ona baita erosten ditugun barazkietan bizia egotea: osasunaren isla da, eta aski ongi ikasia dugu hori zeinen garrantzitsua den, ezta?

Oi, barraskilo! Batzuetan, etsai eta, bertzeetan, lagun: gozogoz kontra, baina, balkoia parteka dezagun!

**«OI BARRASKILO!
BATZUETAN ETSAI
ETA BERTZEETAN
LAGUN»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Deseskalada eskalatzen, ai ama!

Pixkanaka zirrikituak irekitzen ari dira ia bi hilabetetako itxialdian, baina bakarren batek eroetxeldirako bidea hartu beharko du. Galdetu Baztanen: 5.000 bizilagun baino gehiagoko udalerrria izaki, baina, Elizondo izan ezik, mila bizilagunera ailegatzen ez diren hamabortz herrik osatua, orai libre, orai ordu jakinetan... Hamabortz, ama bat, ai ama!

NABARMENTZEKOAK



ASUN
ELIZALDE
102 URTE



JOSEFINA
LINAZASORO
EHUN URTE

Maiatzaren 2an 102 urte bete zituen Etxalarko Barbereneko Asun Elizalde Danborienak. Aipatu behar da da Juli bere ahizpak ehun urte bete zituela joan den martxoaren 16an.

Apirilaren 24an ehun urte bete zituen Josefina Linazasoro Igoa beratarak Lesakako zahar etxean. 2011tik zahar etxean bizi da eta Lesakako Udalak eta familiak oroigarria bidali zioten.

ATZERA BEGIRA



2010-05-13 · TTIPI-TTAPA · 518 zk.

Txoperenarekin transplanteak hizpide

Organo transplanteen inguruko elkarrizketa egin zion duela hamar urte TTIPI-TTAPAK Gabriel Txoperena mediku lesakarrari. Donostiako Ospitaleko Organo Transplanteen koordinatzailea izaki, hainbat xehetasun azaldu zituen. Bertzeak bertze, «gehien transplantatzen diren organoak giltzurrunak, gibela, bihotza eta birrikak» direla kontatu zuen, eta guztien artean batez ere giltzurrunak. Urteekin organo-emaile mota aldatu zela ere azpimarratu zuen lesakarrak elkarrizketan: «hasieran, jende aunitz trafikoz istripuz hiltzen zen eta emaile gehienak gazteak ziren. Puntukako gidabaimena indarrean sartu zenetik, ordea, egoera aldatu da eta emaile gehienak adinekoak dira».



erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,
Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiako Akelarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako Gobernua



Gobierno de Navarra





KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

Koronabirusa, eta gero zer?

Zaila egin zait idatzi honetarako gaia aukeratzea. Lehen momentuan Covid 19arekin zerikusia duen edozer gauzari uko egin nahi nion, hainbertzekoa baitzen nire betekada! Baina... ezin izan dut, berrogeita hamar eguneko itxialdiak bere ondorioak izan ditu niregan eta bizitzen ari garen momentu honek, nire ekintzak, pentsamenduak eta emozioak bete-betean baldintzatu ditu.

Gure bizitzak hankaz gora jarri eta etorkizuneko planak kolokan gelditu diren honetan, barrenak dardaratu zaizkigu eta, lehen egunerokotasunak tapatzen zituen emozioak eta bizipenak azaleratzeko aukera izan dugu: gure burua gaixotzeko beldurra, ingurukoak galtzekoa, lanik gabe gelditzeko kezka, familia ez ikusteak dakarren tristura, etxetik eta herritik mugitu ezin dakarren haserrea, etorkizuneko gure askatasuna galtzeko beldurra...

Eta bakoitzak gure baitan ibili dugun zurrumbilua aski ez eta, ingurutik, telebistatik, Whatsappetik jaso duguna! Zenbateko kaltea egin diguten beldurra, ziurtasun eza, ezinegona, tentsioa eta etengabeko kexa adierazten duten mezuek... Eta alderantziz, ikuspegi baikorra eman digutenean, elkarren artean hitzak, kantak, bertsoak konpartitu ditugunean, zenbatez eramangarriagoa egin zaigun egoera!

«ITXIALDI HONEK BURUARI BUELTAK ETA BUELTAK EMATEKO AUKERA ESKAINI DIGU»

niretzako? Zer ikasi dut krisialdi honetatik? Eta etorkizuneko zer nolako jendartea nahi dut eta zer egiteko prest nago bide horretan laguntzeko?

Norberak bere erantzunak bilatu beharko ditu dudarik gabe; nik, hementxe utziko dizkizuet nireak:

Nire burua zainduko dut, elikadura, ariketa fisikoa, nire alderdi emozionala eta espirituala ere bai. Natura zaindu eta berarekin harremana bilatuko dut ahal den guztietan. Hurbilekoak zaintzen ahaleginduko naiz. Pertsona erdigunean jartzen duen jendarte baten alde lan egin nahi dut, sortuz, eraikiz, konpartituz, lagunduz...

Ez dakigu etorkizunak zer ekarriko digun baino etorriko dena konfiantzaz hartu nahi dut, nire indar guzia horretan jarritz.

Bizi dugun itxialdi honek buruari bueltak eta bueltak emateko aukera eskaini digu eta ziur nago bakoitzak bere ondorioak atera dituela: hemendik aitzinera zer nolako bizimodua nahi dut



BEÑAT IANTZI ETXARTE

Bizitzak vs kapitala

Dozenaka dira Covid 19aren inguruko teoriak, baina ez naiz horretan sartuko, eztabaida hau luze bezain konplexua baita. Garbi dago birus honek gure herriaren bizitza ekonomiko, politiko eta sozialean eragina izan duela, osasunetik harago. Batzuek diote Covid 19a ez dela horren arriskutsua, gripe soil batek Covid 19ak baino hildako gehiago eragiten dituelako. Datuak hor daude eta hala izan daiteke, baina Covid-aren arazoa ez da honen hilkortasuna, kutsagarritasuna baizik. Hain erraz kutsatzen denez, osasun publikoaren saturazioa ekar dezake, jende askoren artatzea zailduz edo zuzenean ezinezko bihurtuz. Hala ere, honek zer pentsatu ematen du burgesiaren interes ekonomikoen mesedetan azken urteotan egin diren murrizketetan (osasungintza barne).

Birusaren arriskua erraz kutsatzea denez, denon hobe beharrez etxean gelditzeko eskatu digute, eta kanpora ateratzerako orduan hartu beharreko segurtasun neurriak eman dizkigute. Egoera honen aitzinean, hainbat alderdik eta sindikatuk, EH Bilduk eta LABek tartean, «konfinamendu totala» aplikatzea eskatu zuten, langileon bizia burgesiaren interes ekonomikoen ginetik jarritz. Baina noski, ideia hau ez zen ongi etorria izan, bertzeak bertze, EAJ-PNVn, langileok etxean gelditzen bagara produkzio ekonomikoa eteten baita, eta Urkulluk

«BETIKOAK KALTETUKO DIRA ETA BETIKOAK ETEKINAK ATERAKO DITUZTE»

garbi utzi zuen «koma ekonomiko» hori ez zaiela interesatzen. Enegarren aldiz garbi utzi zuten euskal herritarren bizitzak bost axola zaizkiela, euskal herritarren lan indarra bertzerik ez zaiela axola,

beraien sakelak gure izerdiz betetzeko.

Bertzetik, hainbat zaintza sare sortu dira Euskal Herri osoan zehar, birusaren aitzinean ahulenak direnei laguntzeko asmoz, eta boluntario andana karririk desinfektatzen ari da. Espainiar Estatuari militarren beharrik ez dagoela erranagatik ere, Marlaskak adierazi zuen Euskal Herrira militarrek etorriko zirela desinfekzio lanak burutzera. Dirudenez Covid 19ak sortutako krisi hau fusilen bidez eta «*Viva España!*» oihukatuz konpondu nahi dute, eta ez segurtasun eta osasun baliabide gehiago eskainiz. Oihu hauek argi utzi dute okupazio militar honen helburua espainiar nazionalismoari gorazarre egitea dela eta bidena-bar, euskal herritarren gaineko kontrola handitzea.

Azkenik, garbi dago egoera honek betikoak kaltetuko gaituela, eta betikoek etekin ekonomikoak aterako dituztela. Komertzio eta enpresa tikiak ixtera behartuta egonen dira, langileon egoera ekonomikoa zein lan baldintzak okertuko dira eta kaleratzeak izanen dira. Honi esker enpresa multinazionalak aberastuko dira, langileon miseriak.

Egoera honek bi aukera uzten dizkigu: bizitzaren eta euskal langileriaren alde borrokatu edo, kapitalaren alde jarri interes ekonomiko burgesi men eginez. Gorago ikusi bezala batzuk aukeratu dute. Eta zuk zer diozu? Bizitzak ala kapitala?

11 GALDERA LABUR

JAIME SEIN OSINAGA DONEZTEBE FUTBOL TALDEKO KAPITAINA

«Futbol zelaietatik urruti taldeak bizirik dirau»

Aurkeztu zure burua.

Saltsa guztietan egotea gustuko duen doneztebarra.

Noiztik zara DFTko kide?

DFT sortu zenean, helduen taldea ere osatzea erabaki genuen. Geroztik, Donostiako talde batean aritu nintzen urte batean izan ezik, herrian jokatzen dut.

Koronabirusaren eraginez, denboraldia bertan behera gelditu zaizue.

Noiz arte egonen zarete geldirik?

Ez dakigu. Udarako egoera egonkortu izanen dela eta abuztuan hurrengo denboraldia prestatzeari ekin ahal izanen diogula pentsatu nahi dut. Bitartean, entrenatzaileek etxean egiteko ariketak aholkatu dizkigute...

Berrogeialdian ere martxan... bideo bat egin zenuten lehendabizi...

Entrenatzaileei bururatu zitzaizien eta ideia polita iruditu zitzaigun. Nire anaiak bideo guztiei forma eman zien eta azken emaitza berezia eta polita izan da.

Ondotik, egunkaria ateratzea bururatu zitzaizuen...

Roberto koordinatzailearen ideia izan da. Lan handia egin du eta euskaraz ez dakien arren, hainbat material euskaraz ere prestatzeko asmoa erakutsi du.

Zein da egunkariaren helburua?

Jendeari tartetxo atsegin bat eskaintzea, eta bidenabar, futbol zelaietatik urruti, taldeak bizirik dirauela erakustea.

Zer eduki bilduko dituzue?

Interes handiena jokalariei egindako galdetegi laburrek piztu dute baina taldeari buruzko berriak, albiste eroak,



jolasak, osasuntsu mantentzeko aholkuak... ere arkituko ditu jendeak bertan.

Non izanen dute zaleek irakurtzeko aukera?

Edukiak pixkanaka DFTren web orrian zein sare sozialetan argitaratuko dira. Jendea horiek bisitatzera animatu nahi dut.

Berrogeialdiko kontua da edo aitzinera begira mantenduko dena?

Lan handia da eta, zoritxarrez, orain ordu aunitz ditugunez, badago lanean dabilen jendea.

Hala ere, harrera ona izanez gero, ez dut bazterten tarteka argitaratzea.

Bideoa lehendabizi, egunkaria gero... hurrengo?

Gisa honetako gauza berezi gehiago egin behar ez izatea seinale ona izanen litzateke baina seguru hau pasatuta ere ideiak bururatuko zaizkigula.

Aurtengo DFTren egunaren harira, erabakirik hartu duzue?

Ezin da asmatu ekainean egiteko aukera izanen dugun...



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Ohe-estalkien bilduma berria eta ugaria

IRAKURLEAK MINTZO

Sareztatuak**JUAN JOSE PELLEJERO GOÑI**

Asaldu egiten gara Gobernuak aditzera ematen duela gure geolokalizazioa kontrolatu behar duela. Askatasunaren aldeko espantu gogorak egiten ditugu eta bakarrik geure arropak urratzea ere falta zaigu. Egia da, gure mugimenduen berri zehatzaz Gobernuak jakitun egotea kezkarria da. Gure intimitatean sartzen ari delako sententzia aztoragarria atzematen dugu, uneoro begiratuak izaten ari garela segurantzaren deserosoa. Agerian da martxoaren 27ko SND/297/2020 Aginduak muga eta helburu zehatzak azaltzen dituela bere ezarpena burutzeko, eta herritar guzaien osasun segurtasuna xedea duela. Hala ere, maiz samar gertatu izan den bezala, bakoitzaren askatasuna eta denon segurantzaren, bekoz-beko, elkarren aurrean jarri dira berriz. Eta egungo teknologia mundu honetan gero eta baliabide gehiago paratzen ari dira segurtasunaren mesedetan. Hortaz, kasu eman!

Alabaina, prozesu horretan, gure teknologia gailuetan instalaturik dauden edo instalatzen ditugun app-ei gure datuak erabiltzea baimenduz, ezinbesteko kolaboratzaileak bihurtzen gara. Hari honetara, oroitzen naiz aspaldixko bideo batean ikusten zenaz: arrantzaile batzuk hartutako arrainaz beteriko sarekada ontziganean hustean, hartatik eta ustekabea, itsas lehoi larri bat agertu zen despistatua. Gaixo hura bezala, gu ere geure kontratsuetan sareztatuak gaude.

Orri zuriak tintaz margotzen**AINARA MAIA URROZ** LIBURUAREN EGUNEAN

Igaro ziren aspaldi euren etxeetan itxita idazten zuten emakumeak, Bizenta Moglek orduak igaro zituen bere ipuin onak idazten edota Virginia Woolf-ek bere gela propioa zirriborrazten hatzak beltzez zikinduz.

Igaro ziren ez hain aspaldi euren etxeetan isilik idazten zuten emakumeak, Maialen Jauregiberrik bere euskara ikasketeko metodologia edota Simone de Beau-

voir-ek beste sexu honi buruz pentsarazteko aldarria etxetik plazara aterarazten saiatu zirenak, esku batean bolaluma eta bestean ukabila gora!

Igaro ziren garai haiek eta nik neure gela propioan tekla beltzak sakatzen ditutene munduko iragaitea alferrik izan ez dadin eta orain eta hemen ene egia jakin dezazuen, ene aitzineko emakumeak gogo-bihotzean, esku batean liburua eta bestean arrosa eta etxearen balkoiaren ertzean gorostia, maitasuna eta adiskidetasuna izan ditzadan beti gidari, bi landareak maite ditut eta behar, arrosa maitasuna da, behin bakarrik loratzen delako, eta gorostia adiskidetasuna da, negu batetik bestera irauten baitu bizirik.

Orri zuriak beltzez tindatzen jarrai dezadan ilberrian bizi naiz.

Heriotza agurren eta omenaldien garrantziaz**NERE ERKIAGA** HIL ARGÍ ELKARTEAREN IZENEAN

Hil Argi Elkarteak heriotza agurrek eta omenaldiek duten garrantzia azpimarratu nahi du, batez ere, egun bizi dugun Covid-19aren egoeran.

Horretarako, argitaratu berri duen webgunean jaso ditu agur ezberdinak egiteko proposamenak eta haiek egiten lagundu dezaketen ideia orokorrak. Hau da aurkeztu duen webgunea: <https://hilargi.eus/>

Agurrek –edo omenaldiek, zentzu bera-ekin erabiltzen baititu Hil Argi Elkarteak bi hitzok– hil den pertsonak gudan izan duen garrantzia azpimarratu eta omenaldia egiteko, agurrean parte direnen emozioak adierazteko modua eskaintzeko, eta besteak beste, heriotzaren esanahiak partekatzeko balio dute.

Agurrak egiteko hizkuntza sinbolikoak eta kultur sorkuntzek duten indarra handia dela adierazten da. Hizkuntza sinbolikoa (argazkiak, loreak, kandelak, hitza eta siltasuna,...), betidanik erlijioek erabili dutena izanik ere, beraiena bakarrik ez den hizkuntza unibertsala dela azpimarratu, eta gizarte mailan berreskuratu eta erabiltzea proposatzen du Hil Argi Elkarteak. Eta kultur sorkuntzek ere (kan-

tua, musika, bertsoa, dantza,...) pertsonaren barnerenera heltzeko duten indarra kontutan hartuta, hil den pertsonaren bizitzaren esanahiak osatzeko baliabide bezala erabiltzea proposatzen du.

Egungo osasun krisi egoeran, hiru agur moten garrantzia azpimarratzen du Hil Argi Elkarteak:

Batetik, agur intimoak, hil berri denari bere hurbilekoenak egitekoak eta Covid-19aren isolamenduan egonda ere, teknologia bidez lagunduta egitea proposatzen dira.

Bestetik, agur sozialak, hil den pertsonaren lagunarte zabala eta ezagunak ere parte hartu dezaketenek ekitaldien garrantzia azaltzen da.

Eta azkenik, Covid-19aren isolamendu egoera bukatutakoan herri, auzo edo herri txiki talde mailan, isolamendu garaian hil diren herritarrei omenaldi ekitaldiak egiteko proposamena luzatzen du Hil Argi Elkarteak, heriotza hauen humanizazioan egin daitekeen lana onuragarria izango baita bai doluan diren herritarrentzako, baina baita beste herritar guztientzako ere, elkartasuna adierazi eta bizitza guztien balioa handia dela adierazteko balio dezakeelako.

Zaindu-20**JON ETXEGARAI, JUNKAL OTXOTORENA, MAITANE SARALEGI ETA NEKANE CATALAN**

ETA IDATZIA SINATU DUTEN NAFARROAKO HAINBAT ZAINZA SARETAKO BERTZE 41 LAGUN

Gutariko gehienak Covid-19aren krisiak eta ondorengo etxe-itxialdiak ezustean harrapatu gintuen. Fabrikan lanean, unibertsitate ikasketak burutzen, auzoko denda txikia aurrera ateratzen, langabezian edota etxeko zaintza lanetan. Bakoitza beretik egunerokotasunari aurre egiten.

Horrelako krisi larri baten aurrean, bizitzaren garrantziaz kontziente, eta komunitateren zaintza eta babesaz arduraturik, gure auzo eta herrietan, auzolan erraldoiaz antolatzen hasi ginen. Zaintza sareak sortuz eta bertan parte hartuz.

Gure txikitasunetik handia egin dugu: erosketak egiten lagundu, umeak zaindu,

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

deiak burutu, maskarak egin eta banatu... Finean, elkar-zaindu eta gauzak aldatu. Gure burua, eta komunitatea, krisi izugarri honen aurrean antolatzeke gai izan gara, pertsonak eta haien bizi baldintzak erdigunean jarriz eta bizilagunen arteko harremanak josiz. Azken asteek erakutsi diguten bezala, ilusioz eta arduraz jokatzeak, bizitzak erdigunean kokatzeak, diruan neur ez daitekeen balioa du.

Orain arteko bidea ez da erraza izan, ez dugu alfonbra gorri edota komunikabide kamerarik aurrean eduki, batzuetan zer eta nola egin oso ongi jakin gabe egin dugu aurrera. Baina gure muga propioez ere kontziente gara, biderkatu den emakumeen kontrako bortxakeria edota zahar-etxetako bakardade zein utzikeriari aurre egiteko ezintasuna, adibidez. Besteetan aldiz, batzuen partez jazarpena, debekua edota mugak pairatu behar izan ditugu. Horren zioa argia da, krisiari aurre egiteko neurri eta irizpideak gurea bezalako komunitaterik ez dagoen hiri erraldoi batean pentsatuak dira. Zehazki, Madril. Neurri guztiak bertan erabaki dira, gurean dugun errealitate jakinari so egin gabe. Eta zaintza sareek zerbait erakutsi badigute, zehazki kontrakoa da. Auzokideengandik gero eta hurbilago egon, gero eta parte hartzaileagoa izan eta harreman zuzenagoa eduki, hobe erantzuten zaizkio arazo errealei eta auzokideen beharrei.

Konfinamendu garaian egin dugun bezala, hemendik aurrerako gure hautua ere argia da: komunitatea eta bizilagunak zaintzen jarraitzea, bizitzak erdigunean mantentzea. Ez dugu merkatuek eta interes ekonomikoek agintzen duten normaltasunera itzuli nahi. Ez dugu erabat militarizatu dagoen eta punitiboa den gizarte baten eraikuntzan lagundu nahi. Herritarren bizitzak eta bizi-baldintzak babestu eta bultzatuko dituen normaltasuna eraiki nahi dugu. Horregatik, publikoki honako deia luzatu nahi dugu:

1.-Guztion etorkizun duina ekarriko duen egoeraren gestioa egin dezagun. Eta horrek tresna berriak sortzea beharko ditu.

2.-Komunitatearen zaintzaren garrantzia eta indarra bizi dugu. Horregatik, eraiki dezagun, guztiontzako etorkizun duina ekarriko duen elkarlan esparrua: hiritarroregatik hasita, Nafarroako gobernu, alderdi politiko, sindikatu, mankomunitate, aditu eta eragile sozialetaraino.

3.-Nafarroatik-Nafarroara, herritik-herrira guztion artean antolaturiko krisiaren aurreko lan-esparru transbertsala eta elkarlanak soilik, bermatuko digu krisiaren ondorengo egoera justu eta bideragarria. Eta noski, egoera gogorrenei muga jarriko diena. Horretarako, neurriak proposatu, adostu eta hartuko dituen foro ireki baten sorrera beharrezkotzat hartzen dugu, eta horretara gonbita luzatzen diegu aipaturiko eragileei.

Azkenik, dei honi ez genioke bukaerarik eman nahi, krisi honen ondorioz hil diren herritar guztien sendiei gure elkartasuna helarazi gabe, doakiela gure doluminik sentikorrena. Era berean, ezin ahaztu, gu bezala krisiari aurre eginez lanean ari direnak: osasun langileak, irakasleak, janari saltzaileak, suhiltzaileak, garbitzaileak... Zuek gabe, ezinezkoa lirateke bizitzaren zaintza, eta gure jarduna.

Jasaten ari garen krisia balia dezagun, ez datorrenari beldurra izateko, datorrenari forma emateko baizik. Inork ezin duelako hasiera berri bat marraztu, baina bai bukaera berria. Marraz dezagun ba, gure txikitasetatik mundu justu berria.

ETB-1EN BOIKOTA

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Hilabete eta erdi baino gehiago pasatu direnean konfinamendua agindu zutenetik, harrigarria eta etsigarria da ikustea egunero, ETB1ek nola erabiltzen dituen '*kuarentenalkoarentena*' eta '*maskarilla*' hitzak behin eta berriro, batere lotsagorritu gabe.

Nik uste dut, jakin nahi izan duen kristau orok izan duela aukera bikaina ikasteko nola ez diren esan behar bi hitz horiek euskara jasoan, alegia, '*kuarentenalkoa-*

rentena' eta '*maskarilla*', baina, hara non, auskalo zer arazoirengatik, ETB1ek non-bait okitu nahi omen gaitu ditxosozko bi hitz desegoki eta gogaikarri horiek, eta, hau, ez dut asmatu nik, baizik eta Euskaltzaindiak. Norbaitek ez badu sinisten, begira dezala haren Hiztegian, eta, gainera, duela aste pare bat-edo, Euskaltzaindiak berak sare sozialetara hiztegitxo espezifikoa bat bidali zuen koronabirusaren gainean, euskaltzale guztiok, eta, batez ere, kazetariak, esatariak eta abarrek jakin dezaten zein hitz erabil daitezkeen eta zeintzuk ez, gai hauetan.

Eta ikusitakoak ikusita, nik zera galdetzen dut: zer gertatzen ote da ETB1ekin, agian ez da euskaltzalea izanen? Ezjakina da? Euskaltzaindia bera baino jakintsuagoa al da? Trakeski jokatu nahiko du behin eta berriro? Ala boikot egin nahi ote dio Akademiari? Desinformatu nahi izanen gaitu apika? Espainiako hiztegitxo hitzek gehiago balio ote dute Euskaltzaindiarenek baino? Arrazoiak zein diren jakin nahi nuke!

Bueno, ba, ikusiko dugu hemendik aurrera onerako aldaketaren bat egiten duten ala ez.



Bisiten faltan bideo-deiak zahar etxeetan

Martxoaren 13an itxi zituzten zahar etxeetako ateak. Geroztik bisitarik gabe gelditu dira Bera, Lesaka eta Elizondoko egoitzetan dauden egoiliarak eta bisitarik ez dutenez bideo-deiak egiteko aukera dute. Batzuk gustura egiten dute baina bada ohiko bitartekoak nahiago dituenik ere

G. PIKABEA

Hotza eta gogorra. Halaxe egiten ari zaie Jose Luis, Manuel, Mertxe, Manuel, Maruja, Marcelina, Gonzalo eta zahar etxeetan bizi diren dozenaka eta dozenaka adinekori egoera. Konfinamendua tarteko egoitzatik atera ezinik gelditu dira, eguneroko paseoa egin ezinik, kafetegiko tragoxka edo kafea hartu ezinik, eta are okerragoa dena, senitartekoak aurrez aurre ikusteko aukerarik gabe.

Egoera gustuko ez izan arren, dagoenera moldatzeko gai direla erakutsi dute bertze behin adinekoek. Arrangura handirik gabe, beraien bizitzan arrotzak izan diren teknologietara egokitu dira, bisiten hutsunea bideo-deiekin estaltzen saiatzeraino, eta lagunarteko tertulian edo zahar etxeetan dituzten jardueretan gehiago parte hartuz eguna pasatzera ohitu dira. Horixe da eskualdeko hiru adinekoen egoitzetan dauden zazpi adinekok TTIPI-TTAPARI kontatu diotena: Berako San Jose Zahar Etxean dauden Mertxe Retegik eta Manuel Bertizek, Lesakako Andra Mari Zahar Etxean dauden Manuel Algladek eta Jose Luis Perugorriak eta Elizondoko Francisco Joakin Iriarte Zahar Etxean dauden Maruja Zirizak, Gonzalo Gutierrezek eta Marcelina Zubietak.

Mertxe Retegi Petrikorena

Eratsunen jaio eta Lesakara ezkondu zen Mertxe Retegi Petrikorena, eta joan den urteko otsailean sartu zen Berako zahar etxean. Konfinamenduak «bazkal aurretik zerbait


hartu bidenabar egiten genuen bueltarik gabe» utzi badu ere, aisa pasatzen omen du eguna: «ateri baldin badago zahar etxeko lorategira ateratzen gara, lagunartean solasean aritzen gara eta arratsaldetan pelikula bat paratzen digute».

Laburbilduz, «oso ongi pasatzen dugu eta denbora gutxi gelditzen da afaltzeko ordurako».

Hala ere, «alabak, semeak edota suhiak» egin ohi zizkioten bisitez oroitzen da, baita alabarekin egoitzatik kanpora



Lesakako egoitzan dagoen Isabel Zubieta tabletaren bertze aldean, alabarekin.



Jose Luis Perugorria etxalartarra familiakoekin bideo-deia egiten.

egiten zituen ateraldiez ere. «Lesakara eta hilerrira egiten nituen buelten falta ere sumatzen dut». Trukean, bideo-deien bidez egoten da etxekoekin: «astean bi aldiz bideo-deiak egiten ditugu eta telefonoz ere egoten gara». Nahiz eta «pixka bat hotza» izan, gustuko ditu bideo-deiak: «aurpegiak ikusten ditut, baita katuak ere eta gustatzen zait». Bere kasuan, telefono propioa ere badu eta «kontent jartzen naiz Iruñean eta Lizarran bizi diren iloben haurren bideoak ailegatzeko zaizkidanean. Konfinamenduan zer egiten duten erakutsiz bideo politikak bidaltzen dizkirate».

Manuel Bertiz Elizondo

«Goizean edo arratsaldean kanpora buelta bat ematera ateratzen» zen Manuel Bertiz Elizondo bere gurgildun aulkian eta martxoaren 13an Berako zahar etxeko ateak itxi zituztenetik hori gabe gelditu da Irunen bizitakoa den 87 urteko iturendarra. Joan den irailean sartu zen zahar etxean eta eguneroko irteeratxoa gustukoa bazuen ere, badu non entrenitua. «Goizean animazioko jarduerak izaten ditugu, gimnasia egitera joaten gara, periodikoa leitzen dugu, bertze ariketak egiten ditugu eta arratsaldetan bildu, solas batzuk egin eta gero pelikula bat izaten dugu».

Ez hori bakarrik, «arrebaren eta koinatuaren bisitarik gabe» gelditu den honetan, «ez ikustea gogor samarra» egiten bazaio ere, «ongi moldatzen» direla kontatu du. «Astean bi aldiz, astelehenetan eta ortzi-raletan, bideo-deiak» egiten ditu senitartekoekin. Bertze egunen batean ere deitzeko aukera izan arren, «nahikoa

«BIDEO-DEIAK GUSTATZEN ZAIZKIT»

MERTXE RETEGI, 87 URTE

«GOGOR SAMARRA DA BAINA ONGI MOLDATZEN GARA»

MANUEL BERTIZ, 87 URTE

«BIDEO-DEIAK BAINO NAHIAGO DITUT OHIKO DEIAK»

MANUEL ANGLADE, 64 URTE



Mertxe Retegi Berako zahar etxean.



Manuel Bertiz Berako zahar etxean.



Manuel Anglade Lesakako zahar etxean.



Jose Luis Perugarria Lesakako egoitzan.

iruditzen zait». Gainera, aitortu digunez, «telefonoz nahia go dut solas egin, bideo-deitan ez baitut hagitz ongi aditzen». Zahar etxean «ongi» badago ere, «egoera hau agudo pasatzea» nahiko lukeela ere gaineratu nahi izan du.

Manuel Anglade Bertiz

«Familiarekin eta karrikako jendearekin zuzeneko harremanik ez izatea gogorra» egiten ari zaio 64 urteko Manuel Anglade Bertiz etxalartarrari. Duela zazpi urtetik Lesakako zahar etxean bizi da eta konfinamendua indarrean sartu aitzinetik, «kanpora maiz ateratzeko» ohitura zuen: «aunitz ateratzen nintzen, karrikan jendearekin solas egiten nuen...». Alde horretatik, «hasieran» egoera honetara jartzea «hagitz gogorra» egin zitzaio- la onartu digu, «egunak luzeak egiten zitzaizkidan eta asperetzen nintzen».

Kanpoko buelta horiek aparte utzita, «zahar etxean bizitzak berdin» segitzen du beretzat eta aitortu digunez, kanpora atera ezin duenez, «aisialdiko jardueretan gehiago parte hartzen dut orain».

Gustura hartzen zituen «arrebak eta ilobak» egiten zizkioten bisitak ere, eta horren partez,




Maruja Ziriza Elizondoko zahar etxean.

orain, «hamabortz egunetik behin bideo-deia egiten dut haiekin eta telefonoz nahi dudak guztietan egoten naiz». Bideo-deien kontua berria da beretzat eta onartu digunez, «ez naiz sobera ongi moldatzen. Nahiago dut telefonoz solas egin».

Jose Luis Perugarria Danboriena

«Karrikara atera eta aire garbia arnasteko aukerarik ez izatea, paseatzera ez ateratzea eta kafetegietara eta ostatuetara joateko aukerarik ez izatea». Horixe da 77 urteko Jose Luis Perugarria Danboriena etxalartarrak faltan sumatzen duena. Hamabi urte daramatza Lesakako zahar etxean eta urteotan izan duen martxa




Gonzalo Gutierrez Elizondoko egoitzan.

«aunitz aldatu» dio konfinamenduak.

Kanpoko irteera horiek gabe gelditu bada ere, egoitza barrerako jarduerari eutsi die: «goizez eta arratsaldez lehen bezala ezin dudanez atera, barrerako lehen egiten nituen jardueretan parte hartzen dut eta lehen aritzen ez nintzenetan ere hasi naiz: bingoan, kantatzen...».

Bisitarik eza ere nabaritu du: «Etxalarko iloba eta Frantziako senitartekoak aunitzetan etortzen ziren. Orain muga itxita dago eta ez dakigu noiz arte». Horren ordez, nahi adina bideo-dei egin ditzake, eta berak «astean behin» egitea erabaki du. Tresna ezaguna ez bazuen ere, bideo-deiarena



Marcelina Zubieta Elizondoko egoitzan.

«gustatu» zaiola erran du, «laguntzarekin ongi moldatzen naiz eta interesgarria da bertze pertsona ikusteko aukera izatea». Dagoeneko horretara «ohitu» dela dio.

Maruja Ziriza Etxepare

Are gehiago aldatu zaio egunerokoa sortzez iruñearra den Maruja Ziriza Etxepareri. 79 urte ditu eta 2018ko uztailaz geroztik Elizondoko Francisco Joakin Iriarte zahar etxean bizi da. Egoerak hala behartuta, egoitza horretan neurri gogorragoak hartu behar izan dituzte, adinekoak logeletan bakartzeraino. Eta hori ongi baino hobeki daki Zirizak, «egunerokoa guztiz» aldatu zaiolako. Neurriak inda →

«AIRE GARBIA ARNASTEKO FALTA SUMATZEN DUT»

JOSE LUIS PERUGORRIA, 77 URTE

«EGUNEROKOA GUZTIZ ALDATU ZAIGU»

MARUJA ZIRIZA, 79 URTE

«ONGI GAUDE BAINA HAU AKITZEKO GOGOZ»

GONZALO GUTIERREZ, 92 URTE

«BIDEO-DEIAK EZ DIRA BESARKADAK BEZALA»

MARCELINA ZUBIETA, 92 URTE

→ rrean sartu aitzinetik, «egoitzako ekintzetan parte hartzeaz gain, errehabilitazio programan eta eskulan taillerrean parte hartzen nuen». Gehiago ere bai, «eguerditan eta arratsaldetan karrikara atera eta paseo bat emateko edo zerbait hartzeko tarte bat izaten nuen». Konfinatzeko aginduarekin, ordea, hori gabe gelditu da eta gainera, egunak eman ditu logelatik atera ezinik «irakurriz, telebista ikusiz, denbora-pasak eginez...». Hainbertze egunen ondotik, maiatzaren 1ean izan zuen «patiora pixka bat ateratzeko lehendabiziko aukera».

Martxoaren 13an zentroko atek itxi baino lehenagotik jasotzen zituen «lagunen eta semeen bisitak» ere gogoan ditu. «Arras gogorra egiten ari zait beraiekin ezin egon ahal izatea eta espero dut egoera hau laster pasatzea» familia eta lagunei «besarkada handi bat emateko gogoz» baitago.

Hala ere, bere sakelako telefonoa izateak egoera pixka bat arintzen lagundu diola dirudi: «nire mugikorra dudanez, familiakoekin maiz solastatzen naiz». Gainera, «teknologia berriak gustatzen» zaizkiola eta «mugikorrarekin deiak egiteko eta mezuak bidaltzeko ongi moldatzen» dela dio. Maitte ditu bideo-deiak ere: «auniz gustatzen zait, astean pare bat aldiz semeak ikusteko aukera ematen baitit».

Gonzalo Gutierrez Fernandez

«Egun osoa paseatzen eta jendearekin solasean pasatzetik logelan sartuta egotera. Atera kontuan zenbat aldatu zaidan egunerokoa!». Horixe bera erran digu sortzez Sevillakoa den eta 92 urte dituen Gonzalo Gutierrez Fernandezek.

Ekainean zortzi urte beteko ditu Elizondoko egoitzan. Emaztearekin batera bizi da eta atsegin du gurgildun aulkian dagoen emaztearekin batera paseatzea. «Neguan gutiago ateratzen gara, baina eguraldi onarekin kanpora

atera eta emaztearekin paseatzea gustatzen zait». Hala, eguneroko paseotxoak utzi eta logelan sartuta egotera ohitu behar izan du. «Maiatzaren 1az geroztik maskara eta eskularruak jantzita tarte batez patiora ateratzen ahal gara». Eta gainerako denbora «pedalierrean pedalei eraginez, emaztearekin egonez eta telebista ikusiz» pasatzen du.

Bere telefonoa du eta egoitzako atek itxi aitzinetik jasotzen zituen iloben bisitarik ez duenez, horixe erabiltzen du haiek egoteko: «egunero solastatzen naiz». Bideo-deien kontua ez zuen ezaguna: «ez nekien halakorik bazenik ere». Hala ere, nahiago ditu bisitak, horretan ez du zalantzarik: «Familiakoak gu ikustera etortzeko desiratzen nago». Bide batez, «ongi» dagoela ere gaineratu nahi izan du, «baina hau akitzeko gogoz».

Marcelina Zubieta Etxeberria

Duela hiru hilabete sartu zen Marcelina Zubieta Etxeberria erratzuarra Elizondoko egoitzan. 92 urte ditu eta «hasieran egokitzea kosta» zitzaiola aitortu digu. «Azkenean jarri nintzen». Ez zuen gozatzen hasteko aukera handirik izan, agudo ailegatu zelako konfinamendua ate joka: «Bat-batean etorri zen eta arras gogorra da».

Orduetik «Erratzuko eta Elbeteko iloben eta Errioxan bizi den semearen bisitarik» gabe gelditu da. Horren truk, bere telefonoarekin «egunero» solastatzen da senitartekoekin eta «telefonoarekin ongi moldatzen» dela kontatu digu. Baina garbi dio «arras-arras gogorra» egiten ari zaiola: «bideo-deiak pixka bat animatzen naute baina ez dira besarkada bat edo musu bat bezala».

Argi aski mintzatu da erratzuarra, bitarteko guztiak ez baitira aski. Egoerara egokituagatik, ez da hori nahi dutena. Lehengo martxara itzuli nahi dute, senide eta lagunekin solastatu, haiek besarkatu eta karrikan lasai pasatu.

Senideek ere sumatu dute



Yolanda eta Alejandro Mateo aita eta ataxiarekin bideo-deian.

Kontent bideo-deiak egiteko aukerarekin

Yolanda Martin Garcia Madrilen bizi da eta Lesakako zahar etxean du Mateo aita, 2007az geroztik. Konfinamendua indarrean sartu zenetik ez du berarekin aurrez aurre egoteko aukerarik izan eta bi hilabete badira ordutik. Alde horretatik, «gogorra» egiten zaio, baina hori baino «gogorragoa» iruditzen zaio «bizi dugun egoera» eta «beldurra» sortzen dio koronabirusak «adinekoei nola eragiten dien jakiteak». Gainerakoan, «gustura hartu dut egoitzako bideo-deiak egiteko aukera eskaini izana: «lehenago ez nuen bideo-deirik egiten eta hagitz tresna ona da». Horrekin batera, telefonoz aitarekin «nahi adina» egoteko duen aukera aipatu nahi izan du, baita «zahar etxeko egoeraren berri emanez egunero jasotzen dugun informazioa» esker-tu ere: «transmititzen diguten lasaitasuna eta gardentasuna hagitz garrantzitsuak dira».



Lourdes Mazizior Zubietak zahar etxean du ama.

Zahar etxearen «lan bikaina» eskertuz

Irailen bortz urte beteko dira Lourdes Mazizior Zubieta lesakarraren Isabel ama herriko zahar etxean sartu zenetik. Geroztik «astez egunero eta asteburuetan goizez eta arratsaldez amarekin egotera» joan izan da Mazizior. Covid-19ak, ordea, eguneroko martxa aldatu dio: «martxoaren 14tik ez dut amarekin kontaktu fisikorik izan». Hori bai, ez du harremana galdu: «amak bere mugikorra duenez, egunero bizpahiru aldiz telefonoz egoten naiz eta bertzela, egoitzara deitu eta berarekin pasatzen didate». Horrez gain, astero bideo-dei bat jasotzen du: «dei horretan familiakoak sartzen gara eta elkar ikusiz, gustura aritzen gara. Amari izugarri gustatzen zaizkio bideo-deiak, batez ere biloba ikusten duelako». Aitortu digu «hagitz gogorra» egiten zaiola amarekin ez egotea, «bai guri, baita berari ere», baina «lasai» omen dago «zahar etxearekin etengabeko komunikazioa dagoelako eta ama, bai fisikoki baita emozionalki ere, ongi ikusten dugulako». Egoitzakoen «lan bikaina» nabarmendu du.

Zaindu maite duzun hori...

ilbeltza
ereiaroa
garagarrila
uzta
agorrrila
buruila
urriarora
hazila

Bitxikeriak

Urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, uzta, abuztua, iraila, urria, azaroa eta abendua. Horiek dira gaur egun gehien aditzen diren hilabeteen izenak. Baina hala erraten al dute zure aitzinekoek? Inoiz aditu al dituzu ilbeltza, ereiaroa, garagarrila, uzta, agorrrila, buruila, urriarora eta hazila? Denak ere gure herri hizkeraren aberastasunaren seinale dira!

Kontuan izan, euskararen batasuna egin aitzinetik, urteko hilen erdiek izen bana zutela; bertze erdiek, berriz, bina edo hiruna. Horietako bat, *garagarril*, bi hilabete izendatzeko erabiltzen zen... Zein ote dira? Nola dira zuen inguruan hilabeteen izen zaharrak? Bidali bidali! Zuek bidalitakoaren berri ondoko aldizkarietan emanen dugu! Hartara, gure herri hizkeraren hiztegia osatzen has gaitzke!

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

* GOL BERRI BAT SARTU DIOTE ATEZAINARI > BERTZE GOL BAT SARTU DIOTE ATEZAINARI.

Argi dio Euskaltzaindiak. Baztertekoak dira *garaipen berri bat, *gol berri bat, *eraso berri bat, *istripu berri bat, *bilera berri bat... moduko esapideak, bistan baitago ez dagoela ez garaipen zaharririk, ez gol zaharririk, ez istripu zaharririk, ez eraso zaharririk, ezta bilera zaharririk ere, eta argi dago horietan guztietan bertze bat dela erabiltzekoa. Zenbait adibidetan, *berriz (ere)* eta gisakoak ere erabil daitezke. Hona hemen adibide batzuk.

* Azken orduetan 203 positibo berri atzeman dituzte > Azken orduetan 203 positibo gehiago atzeman dituzte.

* Istripu berri bat izan da N-121-A errepidean > Bertze istripu bat izan da N-121-A errepidean.

* Gol berri bat sartu diote atezainari > Gola sartu diote berriz atezainari.

Berri izenondoa *zahar* izenondoaren antonimoa da. Hori kontuan hartuz, ez guke erranen *Istripu zahar bat izan dela N-121-A errepidean edo *Gol zahar bat egin diotela atezainari.

Zenbait kasutan, ordea, biak zuzenak izan daitezke, baina adiera ere hala ulertu behar da.

-Proposamen berria egin digute. Nolakotasuna adierazten du: aitzinekoa bertan behera utzi dute, eta haren ordeko proposamena egin digute.

-Bertze proposamen bat egin digute. Zenbatasuna, kantitatea adierazten du: aitzinekoaz gain, badugu bertze proposamen bat mahai gainean.

-Hiztegi berri bat erosi dugu. Berri horrek nolakotasuna adierazten du. Lehengo hiztegia zaharkiturik gelditu da.

-Bertze hiztegi bat erosi dugu (zenbatasuna): Lehen hainbat hiztegi genituen eta orain bat gehiago erosi dugula adierazi nahi du.

-Hautagaitza berri bat aurkeztu dute kontseilurako (nolakotasuna). Lehengo hautagaitza berri egin dutela adierazi nahi du.

-Bertze hautagaitza bat aurkeztu da kontseilurako (zenbatasuna). Lehendik aurkeztuak ziren hautagaitzez gain, orain bertze bat aurkeztu dela erran nahi du.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Deseskalatze prozesurako jarraibideen bandoa

Alkaiagako poligonoa eta Bidasoaldeko trenbidea eremutik kanpo daudela gogorarazi du Udalak

TTIPI-TTAPA

Gobernuko agintariek koronabirusaren transmisioaren prebentzioari buruz emandako gomendioei jarraituz bandoa argitara eman du Berako Udalak. Oinezko eta txirrindularien mugikortasuna lehenetsiko dela dio oharra, autoak erabiltzea baino. Gogoratu autoa nahitaezko joan-etorrietan erabili behar dela soilik.

Paseoak eta kirola egitean pertsonen arteko distantziak gordeko dira eta jende pila-ketak saihestuko dira. Era berean, umeen parkeek itxita jarraituko dute.

Oinezkoek eskuinaldeko espaloia erabiltzea lehenetsiko dute, posible den kasuetan, jendearekin gurutzatzea saihestuz. Espaloia bakarria dagoen karriketan pertsonen arteko distantziak gorde behar dira.

Krisi-egoerak jarraitzen duen bitartean, hainbat karriketan oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna lehenetsiko dute. Karrika hauetan bertakoen eta zerbitzuen autoak

soilik sartzen ahal izanen dira: Legia karrika osoa, Iparralde karrika eta Julio Caro Baroja pasealekua Ugalzuria karrikaren bidegurutzeraino. Paseoa udalerrian emanen da, etxetik kilometro bateko distantziako eremuan. Kirola ere udalerrian egingen da, distantzia mugarik gabe, baina beti banaka. Baimendutako irteera eta kirol-jarduera hauek egunean behin eta 06:00etatik 23:00etara egin daitezke. 14 urtetik beheetik umeen irteerak gehienez ordu bateko iraupena izan behar du.

Alkaiagako poligonoa eta trenbidea eremutik kanpo

Udalak oroitarazi du Alkaiagako poligonoa eta Bidasoaldeko trenbidea Berako eremutik kanpo daudela, eta Lesakako udalerriko parte direla: «Espazio horietan beratarrok ezin izanen dugu kirola egitera joan». Modu berean, oroitarazi du kros eta trial motoek (guztiek, oro har) autoek duten kontsiderazio bera dutela eta arau berberen mende daudela.



Mikel Irigoien eta Ainhoa Etxegarai, sarrituetako bi. UTZITAKOAK

Mikel Irigoien, Ainhoa Etxegarai eta Alberto Goñi saritu ditu Manttalek

TTIPI-TTAPA

Mendi Maratoi Erdiaren faltan, lehiaketarako deia egin zuen Manttalek. Sare sozialetan bideoak eta argazkiak igotzeko erronkan parte hartutakoan artean zozketa egin zuten. Mikel Irigoienentzat izan zen lehen saria (Martiko produktuen lotea), Ainhoa Etxegarai-

rentzat bigarrena (haize-babeserako txalekoa) eta Alberto Goñirentzat hirugarrena (Manttalen bi kamiseta).

Kirol elkarten arteko erronka ere egin zuen Manttalek, talde bakoitzeko kideek etxean egin dituzten entrenamendu eta ariketen kilometroak kontuan hartuz.

Ibardingo V. Igoera ez da ekainaren 6an egiterik izanen

Ziharka Sport eskuderiak ekainaren 6rako programatua zuen V. Ibardingo Igoera motor proba gibelatzea erabaki du. Proba honi ahal bezain azkarraren data berri bat jarri eta errepide bazterretan 2020 honetan elkar ikustea espero dute.

Bertako ekoizleen azoka egin dute maiatzaren 9an

Bi hilabeteko geldialdiaren ondotik, maiatzaren 9an berreskuratu dute bertako ekoizleen azoka, Beralandeta parean. Segurtasun neurri guztiak zorrotz betez egin zituzten salerosketak, segurtasun-tarteak errespetatuz. Herritarrek bakarrik izan zuten aukera.

Astelehenetik ortziralera: 07:15etik aitzinera
LABE ZAR
 Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera
 948 631 076 • BERA

xuga
 tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Anterola
 Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA KALEFAKZIOA
 Zerbitzu aitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

Auzoa GO!
 Etxez etxeko zerbitzua BERAn eta LESAKAn
 ESKAERAK:
 www.auzoago.com • T. 948 631 509

Alberto RETEGI
 abokatu
 abokatu
 © 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

JAIONE - COXOTEGIA
 Etxean egindako produktuak
 948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Herria elkarrekin ber(a)-egiteko deia egin dute

Udalak eta Larun Haizpe elkarteak balioan jarri nahi izan dute herriko komertzioak egiten ari diren lana

TTIPI-TTAPA

Udalak eta Larun Haizpe Merkatarien, Hostalarien eta Zerbitzu Enpresen Elkarteak «eskerrak eman nahi dizkie beratar guztiei egoera honen aitzinean erakutsi duten ardura eta ulerkortasunagatik, eta «Osasun zerbitzuei, Zahar Etxeko eta Maddi egotetxeko ASPACEKO langileei, herriko garbitzaile taldeari, suhiltzaileei, boluntarioei eta gainerako zerbitzu publikoei» eskerrak eman nahi dizkiete egiten ari diren lan izugarriagatik.

Gainera, balioan jarri nahi dute herriko komertzioak egiten ari diren lan eta esfortzua: «Gure elikadura dendak, harategiak, arraindegiak, okindegiak, fruta dendak, eta oro korrean, oinarritzko zerbitzuak eskaintzen dituzten guztiak, herritarren beharrak asetzeko

gai izan dira, eta beratarrok gure herrian, gertuko komertzioetan, egiten ahal ditugu erosketak», dio oharrak.

Horrek nahi dugun gizarte eta herri ereduaren inguruan hausnartzera eramatu ditu Berako Udala eta Larun Haizpe elkarteak: «Gure herrian komertzio sare sendo bat izatea garrantzitsua da, bizi duguna bezalako egoera batean aurrera egitea ahalbidetzen gaituena, ostalaritza eta zerbitzu enprekin batera, Bera herri bizi bat izatea ahalbidetzen duena. Ze herri mota nahi dugun pentsatzeko garaia da, nola egingo diogun aurre etorkizunari».

Udalak eta Larun Haizpek erroka honetan beraiekin bat egitera animatu ditu herritarrik, «elkarrekin Ber(a)-egiten dugu, Gurekin zaude?».



UTZITAKOIA

Euskal Besten mendeurrena 1980an

1880an Euskal Bestak ospatu zituzten Beran. Ehun urte beranduago, 1980an mendeurrena ospatu zuten, urte osoan egin ziren ekitaldiekin. Bitxikeria moduan, txanpon propioa ere izan zuten herrian. Euskaltzaindiaren urteko batzarra egin zuten Herriko Etxean, bertze hainbat ekitaldiren artean.

Integrazioaren aldeko Hiri eta Eskualdeen Sareari atxiki zaio Bera

TTIPI-TTAPA

Bera Integrazioaren aldeko Hiri eta Eskualdeen Sareari atxiki zaio berriki eta hori eskertuz, eskutitza bidali diote Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentutik udalari. Sarearen helburua da hiri

inklusiboak eta integratzaileak eraikitzen laguntzea, gizarte-kohesioa indartzeko eta etorkinen eta errefuxiatuen gizarteratzea sustatzeko Europar Batasuneko lurraldean. Bilerak ere egiteko zuten baina, egungo egoera dela eta, gibelatu behar izan dute.

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

BORDALARRERA
Gure Haragia
Nuestra Carne
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Arotxa
Aroztegia 1890az geroztik
M. 650 53 20 73 • T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | **HÖRMANN** banatzaile ofiziala
TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza
Eguzkiaz babestu toldo batekin

Guardia Zibilak gazte bat miatu izana salatu du Sortuk

«Metrailetaren mehatxupean miatu eta galdeketa politikoa» egin ziotela jakinarazi du

AITOR AROTZENA

«Errepresio urte ilunak oroitzeke asmoz» apirilaren 28an Guardia Zibila agertu zela dio Lesakako Sorturen oharrak eta «zuzenean herritarren kontra jo» izana salatu du, *Egia ur azalera* muralaren azpian, hain zuzen. Honela kontatu du gertatutakoa: «herriko gazte batek lanetik etxerako bidean kotxea aparkatu berria zuela, guardia zibilak patroletik jaitsi eta galderak egiten hasi zitzaizkion. Hasieran, zoritxarez ohiko bihurtuak direnak, eta denborarekin gero eta erasokorragoak. Metrailetaren mehatxupean, gaztea miatu zuten». Horren ondotik, «galdeketa luzea jasan» zuela azaldu du Sortuk: «galdeketa politikoa, bere ideologiaren in-guruan».

Sorturen irudiko, Covid-19ak sortu duen osasun krisi hone-tan «asteak daramatzagu erantzukizunez jokatzeko, kapitalaren gaintetik bizitza erdigunean jarriz, zaintzari lehentasuna emanez». Baina «Espainiako indar armatuak euren burua zurrizteko saiakerak

egiten ikusi ditugu irudietan: mugak itxiz, karriketarik pasatuz, desinfektatzeko aitzakiarekin inbasio militarrek eginez... laguntzaren aitzakian espainiar nazionalismoari gorazarre eginez». Eta Lesakan gertatutakoa «horren adibide argia» izan zela uste du.

«Aski da»

Egoera horren aitzinean, «aski dela» erran du Sortuk: «urte gehiegiz bizitu behar izan ditugu horrelako egoerak. Euskal herritar izategatik, lesakar izategatik ezin gaituzte karrikan gelditu, galdeketa egin, beldurtzen saiatu...». Hori «ezin dugu onartu», dio oharrak eta «konponbidearen bidean soberan» daudela gaineratu du.

Sorturen ustez, bizitzak erdigunean jarri eta zaintzari eman behar zaio lehentasuna. Eta aldi berean, «bi herri erdu» daudelakoan dago: «Espainiak eskaintzen digu autoritario, zentralista eta militarizatu; edo askapen prozesuak emanen digun herri burujabe, justu eta askea. Guk aukeratu dugu...».

Artilea garbigunean uzteko tasa ordaintzeko laguntza

Alkaiagako garbigunean ardi-entzako artilea uztegatik Hiri-Hondakinen Mankomunitateak kobratzen duen tasaren ordaintzetan lagunduko du udalak. Eskatzaileak Lesakan erroldatua egon beharko du eta ardiak bere izenean egon beharko dute erregistroan.

Hainbat ekitaldi bertan behera utzi ditu Beti Gaztek

Beti Gaztek hainbat ekitaldi bertan behera utzi behar izan ditu, Covid-19 pandemiaren ondorioz: maiatzaren 12ko martxa zikloturista, eta ekaineko V. Argazki Rallya, Beti Gazte Eguna, margo azkarreko lehiaketa eta Lesakako mendi itzulia.



UTZITAKOIA

Ehun urte bete ditu Josefina Linazasorok

Ehun urte bete zituen apirilaren 24an Josefina Linazasoro Igoa beratarrak Andra Mari zahar etxean. Lore-sorta eta oharra bidali zizkion Udalak, landareak eta postala familiak. Zahar Etxea apaindu egin zuten ospakizunerako, musika eta dantza izan zuten eta bazkarian tarta eta txanpaina.



JASONE TELLETXEA

100 euroko bi bono banatu dituzte

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak zozketatutako 100 euroko erosketa-txartela Sara Ayechuri egokitu zaio. 'Lesakan denetik dugulako... bertan erosten dugu!' kanpainaren mezua bikain transmititzen duelako, Kotte Iantzi eta Begoña Ordoki senar-emazteen bideoa ere saritu du elkarteak.

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

DenakBat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etzetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Toki Ona Institutua

HEZKUNTZA BEREZIA

DBH1, DBH2, DBH3 eta DBH4
A,B eta D ereduetan.

Izen ematea: maiatzaren 15arte

Batxilergoko 1. eta 2. mailak
Zientziak eta Ingeniaritza eta
Teknologia, Osasun zientziak,
Humanitateak eta Gizarte Zientziak
modalitateetan D ereduari.

Izen ematea: maiatzaren 15arte

Erdi Mailako Lanbide Heziketa.
Mantenimendu Elektromekanikoa
D ereduari.

*Izen ematea: maiatzaen 25etik
ekainaren 5arte.*

Goi Mailako Lanbide Heziketa.
Mekatronika industriala D ereduari.

*Izen ematea: maiatzaen 25etik
ekainaren 5arte.*

*Hazi, hezi, lagun egin.
Aukera bertan, bertan Bortzirietan.
Hemen dugu ikasteko aukera.
Bortzirietako eragilea.
Bortziritarren aukera.*

Zatoz Toki Onara!



AURREMATRIKULA ONLINE



Gure web orrialdean bertan aurkituko duzue
ere aurrematricula online egiteko galdetegia



Eztegara Pasealekua, 34 – 31780 BERA
T. 848 431 710 / Faxes: 948 625 032
Posta Elektronikoa: iesbera@educacion.navarra.es
web orria: iestokiona.educacion.navarra.es



ETXALAR

Gasna feria bertan behera uztea erabaki du Altxatak

Gaur egungo egoera ikusita ezinezkoa litzateke egun hori aitzinera eramatea aurten

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 7an ospatzekoa zen gasna feriaren edizioa aurten-goan ezin izanen da ospatu. Garai hobeak etorriko dira eta hurrengo urteko gasna feriaren antolaketa gogoz hartuko du Altxatak.

Hala ere elkarteak ez dago geldirik. Azken egun hauetan herritarrak bazkide egitera animatzeko bideoa zabaldu dute. Norbait animatuz gero altxata@gmail.com helbidera idatzi dezake bere izen-abizenak bidaliz eta berarekin harremanetan jarriko dira juntakideak, bazkide egiteko



Aurten ez da gasna feriarik izanen.

tramitea aitzinera eramateko. Denen laguntzarekin, urtean egiten diren ekitaldi ezberdinak antolatzen segitzea eta herria bizirik mantentzea lor-tu nahi du Altxatak.

Usoa kooperatiban janari-denda zerbitzua eskaintzen hasi dira

IRUNE ELIZAGOIEN

Lehen sektorearen egoera kontuan hartuta, eta janari dendak ere etsitzen ari direla, hutsune hori betetzeko janari denda zerbitzua eskaintzen hasi dira Usoa kooperatiban. Oraindik aldaketak egiten eta hobetuko duten arren, dagoe-

neko zerbitzua denentzat erabilgarri dago. Honen helburua herritarren beharrak ahal bezain ongien asetzea da. Gaur egungo egoeraren eraginez ezin izan dute urteko kontuak egiteko bilera eta afaria egin eta aitzinerago egiteko utziak dituzte.



UTZITAKOIA

102 urte bete ditu Asun Elizalde

Maiatzaren 2an 102 urte bete zituen Barbereneko Asun Elizalde Danborienak. Arratseko zortzietan, bertze hainbat herritar bezala, balkoira ateratzen da, osasun langileei txaloak eskaintzera. Segi dezala orain bezain sasoiko aunitz urtez! Julik, bere ahizpak, ehun urte bete zituen martxoaren 16an.

Kirolaren erronka gauzatu du orain Guraso Elkar-teak

Guraso elkarteak antolatuta, erronkak egiten jarraitzen dute etxalartarrek. Kirolaren erronka gauzatu dute, baita haurrak kanpora ateratzen ahal direla aprobetxatuz kanpoko argazkiak bildu ere. Erronka guztietako bideo muntaiak Aimar Iparragirrenen eskutik ikusgai daude Youtuben.



GURASO ELKARTEAK

ETXALAR
HOTEL-VENTA

*lagunortu, familia,
kintu besta...*

OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

USOA
Nekazari kooperatiba

**ORAIN
GASOLINA ERE**

T. 948 635 214 **ETXALAR**

MARI TX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

Legia, 23 - **BERA**

«Erreserba gehien genuen urtea zen eta deus gabe gelditu gara»

JABI ORTEGO ETXALARKO BENTAKO NAGUSIA

Bi hilabete daramatzate itxita jatetxeek zein hotelek eta ondorioak dagoeneko nabarmenak dira. Etxalarko Bentako Jabi Ortegok bere egoeraren berri eman dio **TTIPI-TTAPARI**

N. BAZTERRIKA | ETXALAR

Etxalarko Bentako nagusi den Jabi Ortegori «1.500 bat lagun hoteleko erreserbak, 15 ezkontza inguru, jaunartzeak eta familiarteko hainbat otordu» bertan behera gelditu zaizkio.

Gogoia duenak badu zeregina, eta argi ikusten da hori Etxalarko Bentetan hondarreko bi hilabeteetako egunerokoa. Izan ere, ateak itxita izanagatik «gelditzen ez diren mantentze-lanetarako» baliatzen ari da itxialdia Jabi Ortego: «txukundu eta garbitzen ari gara, bai hotelean, baita inguruko lorategian eta jatetxean ere ahal den mantentze-lanak egiten». Garbia garbiaren gainetik garbitzen dabilzan honetan, trapaak utzi eta koronabirusak eragindako ondorioez solastatzeko tartetxoa hartu du arduradunak.

Argitu duenez, «lanez lepo» zeudela harrapatu zituen birusak: «Aste Santu aitzinetik taldeekin lanean hasiak ginen eta azarora arte 40-50 laguneko taldeekin betea genuen hotela». Erreserba horien artean gehienak «hotela, gosaria eta afaria eskatua zutenak eta ingurua bisitatzera – Larhun, Iruñea, Donostia... – zetozenak ziren». Hotelari dagokionez, erreserbetan «1.000-1.500 lagun ingururen» eskaerak dira galdu dituztenak. Horrez gain, «hoteleko jendeak edota ingurukoek jatetxean egiten dituzten otorduak» ere bertan behera gelditu zaizkie. «Mar-



Mantentze lanak egiteko baliatzen ari da Jabi Ortego itxialdia. **UTZITAKOIA**

txo hasieran» hasi ziren erreserbak ezeztatze deiak: «hasieran hoteleko erreserbak izan ziren bertan behera gelditu zirenak, gero familiako bazkariak... Alarma egoera ailegatu zenerako hotelean ez genuen jenderik. Denak beldur ziren». Hoteleko martxa, egunerokoa eta ekitaldi bereziak. Kalteak erabatekoak izan dira: «ezkontzak, jaunartzeak... hastear zegoen guztia. Urtero bezalatsu, 15 ezkontza inguru genituen, banaz bertze 150

«TXERTORIK IZAN EZEAN JENDEAK EZ DU SEGURTASUNIK IZANEN»

bat lagun ingurukoak». Gehiago ere izan zitezkeen: «urte hasieran eskatzen dituzte urrikoak eta azarokoak eta aurten horiek ere ez dira eskatu».

Bertan behera utzi edo gibelatu Ezkongaien artean, bikote bakoitzak bere erabakiak hartu dituela argitu du Ortegok: «batzuek bertan behera uzteko deitu dute, ez dutelako argi noiz egin... Gehienek, ordea, atzeratzea erabaki dute. Maia-

«GIBELATUTAKOIA AURTEN OSPATZEA NAHI NUKE BAINA ZAIL IKUSTEN DUT»

tzean eta ekainean zutenek, adibidez, irailerako edo urri-rako utzi dute. Uztailekoak oraindik zain daude...».

Jaunartzeei dagokionez, berriz, «fidantza utzia dutenez, jendea mantentzen ari da, aitzinerago egingen delakoan». Egoera berean daude bertzelako talde-erreserba batzuk: «uda ondotik egiteko utzi dituzte planak...».

Kalte «handia»

Urte bikaina zen aurreikusia zutena, erreserbarik gabea da orain espero dutena. Izan ere, «abendura arte beteta genuen, lepo geunden. Aurrez erreserba gehien genituen urtea zen eta deus gabe gelditu gara».

Kalteak ez dira egungoak bakarrik, gerora datorrenaren beldur ere bada Ortego: «Gobernuak laguntza aunitz emanen dituela adierazi du, baina eman baino gehiago kentzen dute. Laguntza horiek interesak dituzte eta azkenean ez dira laguntzak, interesak ordaintzeko bitartekoak baizik. Sarrerarik gabe gauden honetan, lagundu beharrean zerga gehiago ordainarazten digute».

Irekitzea utzita ere, «arrisku handia» ikusten du Javik: «txertorik ez dago eta hori izan ezean jendeak ez du segurtasunik izanen. Beldurra hor egonen da eta kutsatzeko beldurrak beharrezkoak ez diren ateraldiak saihestea eraginien duela uste dut».

Buelta «zaila» izanen dela iruditzen zaio Etxalarko Bentako nagusiari: «Gutxinaka izanen dela iruditzen zait. Toki mugak eta bertzelako zailtasunak izanen dira. Nire kasuan toki aldetik arazorik izanen dudarik ez dut uste, bai hotelean baita jatetxean ere aunitzentzat tokia dugu. Dena bete ezina ez da arazo izanen, ez dut uste jendea aisa aterako denik eta ez da lanik izanen 18 langileentzat». Normaltasunera buelta urruti ikusten du: «aurten ez dut uste deus egiterik izanen dugunik. Nahi nuke, baina zail ikusten dut».

«Ez dakigu noiz arte egonen garen bisitarik gabe»

ELI ITURRIA ALMANDOZ MIKEL KARRERA SAROBE PRESOAREN BIKOTEKIDEA

Eli Iturria eta sei urteko alaba martxoaren 14an joatekoak ziren Lannemezanera bisitan, konfinamendua indarrean sartu zen asteburuan, baina bisitarik gabe gelditu behar izan zuten

G. PIKABEA

Koronabirusak bete-betean eragin die presoiei ere. Bisitarik gabe gelditu dira, Eli Iturria Almandoz arantzarrak dioen bezala, «hiru astetik behin hartzen genuen indar dosirik gabe». Bera eta 6 urteko alaba martxoaren 14an joatekoak ziren Lannemezango espetxean dagoen Mikel Karrera Sarobe bikotekidearengana eta aitararengana bisitan. Asteburu elkarrekin pasatzekoa zuten, eta ilusio horrekin egin zituzten maletak. «Azken momentuan», ordea, ez joatea erabaki zuten. «Mugakixteko kontua aipatu zuten eta ez ginen auzartu». Badirudi joateko arazorik ez zutela izan, baina ezin jakin bueltarako nola ibiliko ziren, martxoaren 16ko gauerdian Espainiako Gobernuak mugak itxi baitzituen.

Espetxe barrenean berdintsu

Kanpoko guztiei itxi dizkiete espetxeko ateak. Funtzionarioak dira espetxean sartu-ateradabiltzanak. Konfinamendua indarrean sartu zenean «hasieran higie-neurririk hartu gabe» ibili omen ziren «eta aste baten buruan edo, maskarak eta eskularruak erabiltzen hasi ziren». Hortik aparte, presoak izan ziren «egunero hainbertze lagunek erabiltzen duten kabina garbitzeko toallitak edo zerbait eskatu zituztenak eta paratu zizkieten».

Eguneroko martxan, ordea, «berdin segitzen dutela» aipa-



Otsailaren 24az geroztik Eli Iturriak ez du Mikel Karrera bikotekidea ikusi.

tu digu: «12 euskal preso dira eta egunero egoten dira elkarrekin. Bakoitza bere txabolan dago baina patio berera ateratzen dira. Osasunez ongi eta giro onean daude, eta elkarren babesa dute». Oraingoz ez da kasu positiborik izan Lannemezanen eta alde horretatik «kontent» dago arantzarra. «Kasu positiboren bat ateratzen bada, egoera aldatuko zaie. Oraindikez diete deus ere erran, baina seguru aski txabolan isolatuko dituzte».

Karrera ongi dagoela jakiteak indarra ematen die ama-alabei. Hala ere, bisitarik gabe gelditu izana ez zaie erraza egiten ari. «Gezurra iduri badu ere, gorputza, burua eta sentimenduak hilabete edo hiru asteta-

ra elkarikusteko programatuak daude. Azken urteak horrela daramatzagu eta egunerokotasunean Mikel ikusi gabe bizitzera ohituta bagaude ere, bisitak ematen digun indar dosi horren falta sumatzen dugu. Bisita tokatzean, horretarako aukerarik ez badugu, gorputzak sumatzen du, horretara jarria balego bezala. Alabari eta bioi pasatzen zaigu».

Bideo-deirik ez

Karrerak martxoaren 6an jaso zuen azken bisita, «eta alabak eta biok otsailaren 24ko asteburuan ikusi genuen azkeneko». Geroztik, telefono bidez mantentzen dute harremana, «lehen baino gehiago», dio Iturriak. «Bisitarik gabe geldi-

tu izanaren truk, estatu espainiarrean presoiei bideo-deiak egiteko aukera eskaini diete, baina estatu frantziarrean berdin segitzen dute. Lehen bezala ordaindutako deiak egiteko aukera dute eta kabinan sartzen duten diru kopuruaren arabera da deien maiztasuna». Hala ere, «aldaketa bat» egin omen dute: «maiatzaren 17an konfinamenduan sartu zirenean telefonoz deitzeko 20 euro sartu zizkieten eta apirilean 40 euro, bisiten truk».

«Bideo-deiak nahiago» lituzkeela aitortu digun arren, telefono dei arruntekin estali nahi dute bisitarik ezaren hutsunea, nahiz eta ez den gauza bera. «Badaki etxean gaudela eta etxean egoteaz gain, bisitaren falta hor dugu eta gehiago deitzen du». Alaba ikusi gabe «bi hilabete» daramatzala oroitarazi du eta «presentzia hori markatzeko eta alabak ere atarekin egon nahi duelako» ongi heldu zaizkie deiak. Orain, «egoera barneratu» badute ere, hasieran «buruko minak» eragin omen zizkien konfinatzeko aginduak: «bisita hitzartua genuen asteburua nahasi samarra izan zen. Azken momentura arte ez genuen joateko ilusioa galdu baina azkenean, Mikel ikusi gabe gelditu behar izan genuen». Ondoko astea «kritikoa» izan zela onartu du. Dena den, «hasierako desilusioa, disgustua eta tristura gainditu eta egoera barneratu dugu».

Elkartasun keinuak

Konfinamendua hasi zenetik presoiei idazteko deia egin izan dute senideek. «Hemengo berri gustura hartzen dute», gaineratu du: «Beti astirik ez dugula erraten dugu, baina orain badugu eta egiten ahal dugu». Iturriak «umeekin gaia lantzeko» proposamena ere luzatu du: «umeekin egiten ahal diren marrazkiak edo bertzelako gauzak baloratzea gustatzen zait. Marrazkien bidez, honen atxa edo haren ama preso dagoela azaltzen ahal diegu hau-

rei». Bidalitakoa «normalean hamar egun eta orain auskalo zenbat gibelatuta» hartzen duten arren, «beraiantzat karta edo marrazki bat jasotzea hagitx adierazgarria da» eta horretarako gonbita luzatu du.

Maiatzaren 20a ere begiz joa du, egun horretan hamar urte beteko baitira Karrera atxilotu zutela. «Egun horren bueltan, lagunartean, mendi irteeraren bat eta bazkari bat egiteko asmoa genuen. Ez ospatzeko eguna delako, baina bai barrote tartean hamar urte daramatza oroitarazteko». Koronabirusak, ordea, hankaz gotti utzi die hitzordua.

«Attatto falta dugu»

Gainerakoan, «eurek gu noiz joanen garen eta gu hau noiz bukatuko den esperoan» pasatzen ari zaizkie egunak. Bere irudiko, «espetxeek ez dute lehentasunik izanen», eta gainera, «gure kasuan, bi estatu pasatu behar ditugunez, zailtasun gehiago izanen ditugula iruditzen zait». Egoera luzatzen ari denez, «ezjakintasun horrekin» bizitzea tokatzen ari zaie. «Bisita noiz izanen dugun dakigunean, data horri begira egoten gara, baina orain ez dakigu deus». Zerbait erratearren, buruan «ekaina» omen du sartua, «baina igual uztaile ere izaten ahal da». Bertzela, «ongi» daudela dio, baina argi utzi du: «Mikelekin egoteko gogoz gaude». Amak errandakoa berretsi du gibeletik alabak: «attatto falta dugu».

Ezohiko egoeran bada ere eskolako martxari eutsiz

Pandemiaren garapenaren arabera, maiatzaren 25etik aitzinera Haur Hezkuntzakoak eskolara itzul daitezke

NEREA ALZURI

Eskolako atek baldin badira ere, ezohiko neurriak hartuta ikasturteko martxarekin segitzen dute. Halaxe adierazi dute zuzendaritza taldeak. Teknologia berrien bidez elkarrengandik hurbil egoten saiatzen dira eta gurasoak ere bihotzez eskertu nahi dituzte, «izugarritzako ahalegina» egiten ari direlako eta «ikusten delako hezkuntza komunitatearen parte garrantzitsua direla».

Mailaz maila

DBHkoen kasuan, egunero online klasea izaten dute. Bideo-dei bidez ematen dituzte klaseak eta classroom bidez partekatzen dituzte lanak.

Hirugarren zikloan, bi asteetik behin, irakasleek bi asteotarako lana koordinatzen dute Drive bidez, eta astero, irakasleek bideo-deia egiten dute ikasleen jarraipena eta kontaktua bermatzeko. Bertze egunetan korreoz egoten dira.

Bigarren zikloan, hamabortzean behin, irakasle guztiak beraien ikasgaiari dagokion lana prestatzen diete eta Dri-

vez partekatzen diete. Astearen behin, ikasleekin, bideo-deien bidez zuzeneko kontaktua mantentzen dute eta egunero, korreo bidez egoten dira.

Lehenengo zikloan, hasieran, ikasleei lanak bidali zizkieten euren erritmora eta gurasoen laguntzarekin egiteko. Baina azken asteotan, bertzelako antolamendua dute. Igandetan, aste osorako lanak bidaltzen dizkiete egunez egun landuko dutena zehaztuz. Honekin batera egunero irakasle batekin bideo-dei bidez klasea izateko aukera dute.

Haur Hezkuntzan, telefonoz, e-mailez eta bideo grabaketan bidez mantentzen dute harremana. Hortik aparte, 5 urtekoei, tutoreak bi astetik behin, fitxak eta jarduerak helarazten dizkie eta espezialistek astean behin bat. 3 eta 4 urteko ikasleei bi egunetik behin, irakasleek bideo bat bidaltzen diete jarduerak proposatuz. Bertzetik, zuzendaritza ikasleentzako dutenez, agian maiatzaren 25eko astean, Haur Hezkuntzakoak eskolan hasiko dira, beti ere, pandemiaren garapenaren arabera.

Ainara Velez beratarra izanen da berriz udal idazkari

NEREA ALZURI

Orain arte udaleko idazkaria izan den Eguzkiñe Aiesa Andresek lanpostua utzi du, Irurtzungo udaleko idazkari postua eskuratu baitu. Hori horrela, Ainara Velez Ara izanen da hemendik aitzinera Arantza eta Igantziko udaletako idazkaria. Ezaguna du bertako funtzionamendua, lehen ere, berriki arte idazkari izandako Eguzkiñeren amatasun bajaran lanean aritu baitzen.

Auzolana herrian

Alarma egoera bukatu artean, auzolan deialdirik ezin bada egin ere, udala herrigunean auzolana egiteko prestaketetan ari da. Herri kaskoan bizi direnei bideratuak izanen dira lanak eta izena udaletxean edo Gotzon Arenas edo Jabi Etxebesteri abisatuz eman daiteke. Bertzeak bertze, pintura lanak egitea aurreikusi dute: farolak margotu, lurreko seinaleak...



Goiko Karrika.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

«Birusa bigarrenez etortzen bada arrisku handiagoa izanen dugu»

RUTH GONZALEZ SANTO TOMAS BORTZIRIETAKO OSASUN ZENTROKO ZUZENDARIA

Nafarroako Gobernuak oinarritzko osasun eremuka ematen dituen datuen arabera, positibo kopurua baxua da Bortziritan. Baina orain kasu gutti izateak immunitatea baxua dela erran nahi du

G. PIKABEA | LESAKA

Nafarroako edo eskualdeko bertze eremuekin konparatuz, Covid-19an positibo eman dutenen kopurua baxua da Bortziritan. Mila biztanletik batek eman du PCR proban positibo eta «8.000 biztanleko eremu batean hori gutti» dela uste du Ruth Gonzalez Santo Tomas Bortziritako Osasun Zentroko zuzendariak. Gehiago ere bai. Zahar etxe gehienetan kopuruak altuan diren arren, «ez Lesakako zahar etxean, ez Berako zahar etxean, ezta Berako Maddi egoitzan ere positiborik ez da izan».

Nola daramazue koronabirusaren gaia Bortziritan?

Bortziritan kasu gutti izan dira eta alde horretatik zorte handia izan dugu. Zientifikoki ezin dugu arrazoa azaldu, baina ditugun positibo kopuruak ikusita, Gipuzkoan positibo gutti agertu izana eta guk Gipuzkoarekin harreman gehiago izatea izan daiteke azalpena. COVID-19aren aitzinean foku garrantzitsua izan da Iruñea, baina gure erreferentziako ospitalea Hondarribiko Bidasoa Ospitalea izanda, pazienteak harat bideratzen ditugu. Hala, Bortziritako herritarrak Iruñeko koronabirus pazienteengandik kutsatzeko arriskutik libratu dira.

Aldaketa handia izan duzue eguneroko martxan?

Konsultategi batzuetan aldaketa batzuk egin behar izan ditugu eta arreta bi zatitan

antolatu dugu. Alde batetik, Covid-19arekin zerikusirik ez dutenak goizeko lehenbiziko orduetan artatzen ditugu eta bertetik, arnasketa arazoak dituztenak hondarreko orduetan. Horrela, konsultategietan kutsatzeko arriskua saihestu nahi dugu. Etxalarren, erraterako, orain arte egun batzuetan lehenbiziko orduetan eta bertze egun batzuetan azken orduetan egiten genituen konsultak, Berako konsultekin tartekatuz. Orain, ordea, kutsatzea saihesteko, Etxalarko konsulta guztiak lehenbiziko orduetan egiten ditugu eta Beran ere pazienteak bi zatitan artatzeko aukera dugu. Pedia-

triako ordutegia ere aldatua dugu. Haurrak lehenbiziko orduetan artatzen dira eta arnasketa arazoak dituztenak, berriz, azken orduetan. Arantza eta Igantziko konsultategiek, ordea, orain arte bezala funtzionatzen segitzen dute.

Ohiko konsultek segitzen dute?

Mediku eta erizainek euren konsultako ordutegiarekin segitzen dute, baina 08:00etatik 09:30era pazienteak telefonoz artatzen ditugu. Goizetan osasun zentrorra deitzen duten pazienteen deiak administrariak hartzen ditu eta gero mediku eta erizainek deia itzultzen diete. Posible baldin bada, arazoa telefono bidez

konpontzen saiatzen gara eta ezin bada, aurrez aurreko hitzordua ematen diegu. Hori bai, konfinamendua hasi zenetik osasun mentaleko eta errehabilitazioko mediku espezialistak ez dira etortzen eta behar hori dutenei Iruñetik telefono bidez eskaintzen diete zerbitzua. Gainerakoan, ordutegia aldatuta baina emagina ere lanean ari da. Haurdunaren kontrola egiten segitzen du nahiz eta konsulta aunitz telefonoz egiten dituen.

Ohiko konsultak jaitzi dira?


Hasieran, jendeak beldur handia zuelako edo, nabarmen egin zuten beheiti. Behar-beharrezkoa ez bazen, jendeak nahiago zuen osasun zentrorra ez etorri. Orain hasi gara horren ondorioa nabaritzen. Orain arte etxean minari eusten egon direnak deika hasi dira. Bertetik, etxez etxeko konsulta gehiago eskaini ditugunez horietan denbora gehiago pasatu dugu, baina koronabirus kasu gutti izanda, ez dugu gainezka egin.

Baliabide aldetik nola ibili zarete?

Hasieran, kasu aunitz izanen balira ez genuela material aski izanen sentitzen genuen. Baina hori horrela izan ez denez, nahiko ongi moldatu gara. Bilegian maskara guttiarekin hasi genuen konfinamendua eta Iruñetik materiala ailegatu bitartean, ebolaren planetik gelditu zitzaiguna berreskuratuz moldatu ginen. Behin materiala ailegatuta ez dugu arazorik izan. Egia da kalitate txarreko bata batzuk jaso genituela baina ez ginen gaizki ibili. Prestakuntzan denbora gehiago pasatu genuen, bereziki zuzendaritzakook denbora aunitz pasatu genuen profesionalen antolakuntzan.

Segurtasuna bermatua duzue?

Baietz uste dut. Koronabirusaren susmoa dugunean eta aurrez aurre tratatu behar ditugunean, babes neurriak hartzen ditugu. Ez dugu materiala barra-barra gastatzeko adina baina guttiarekin segurtasunarekin lan egiteko adina bai.





2011z geroztik Bortzirietako medikua da Ruth Gonzalez, eta sei urte baino gehiago daramatza zuzendari lanetan.

Ustezko sintomak dituztenekin zein duzue prozedura?

Osasun zentzora deitzen dutenean eta kutsatuta egon daitekeela uste badugu, hasieran telefono bidez artatzen ditugu. Sintoma larrik ez badu eta etxean egon badaiteke, isolamendua nola egin behar duen edotaz kontrolatu behar duen azaltzen diogu. Hortik aitzinera egunero telefono bidez segimendua egiten dugu, normalean bere medikuak. Aurrez aurreko kontsulta behar badu, berriz, etxera joaten gara. Kasu bakan batean baino ez da etorri pazientea osasun zentzora. Birusa zabaldu ez dadin nahiago izaten dugu etxeetara joan. Medikua eta erizaina joan ohi gara eta medikua izaten da Norbera Babesteko Ekipamendua soinean pazientearengana miaketa eta balorazioa egitera sartzen dena. Erizaina kanpoan gelditzen da gero medikuari materiala kentzen edota desinfektatzen laguntzeko.

Osasun langileen artean kasu positiborik izan duzue?

Bai. Hasieran jaso genituen 40 test azkarrak osasun profesionalei testak egiteko erabili genituen. Administrazio batek positibo eman zuen, baina gero, PCR proba egin ondotik, negatibo eman zuen. Horrek erran nahi du ordurako gaixotasuna gainditu duen asintomatiko bat izan dela. Erizain batek ere positibo eman zuen, baina hamabartz egun baino gehiago daramatza zahar etxe batean lanean eta han kutsatu delakoan gaude.

Positiboen portzentajea baxua da Bortzirietan....

Bai, hagitz baxua. Guk artatu ditugunak Berako lau pazientek, Lesakako hiru (batek bi

aldiz positibo eman du), Arantzako bat eta osasun langile bat dira. Batzuk ospitaleratutako izan dira, baina ez egoera larrian, eta gainerakoak etxeko zaintzapean egon dira. Hortik aparte, susmoa izan dugun 60 kasu zenbatu ditugu eta hamalauri egiten diegu gaur egun kontrola. Gainerakoek berrogeialdia pasatu dute eta sintomarik gabe daude. Halere, guztiei, sendatuak daudenei eta gaur egun oraindik sintomak dituztenei test azkarrak egiten ari gara. Bortzirietako Mankomunitatearen bitartez, etxez etxe aritzen diren gizarte langileei ere egiten diegu. Edozein moduz, ttikia da 8.000 biztanle dituen eskualde baterako.

«ETXEAN MINARI EUTSI DIOTENAK ORAIN HASI DIRA DEIKA»

«BORTZIRIETAN EZ DA INOR HIL KORONABIRUSAREN ONDORIOZ»

Koronabirusaren ondorioz, hildakorik izan da Bortzirietan?

Ez, oraingoz ez. Gaur egun, hasieran positibo eta gerora negatibo eman duen Bortzirietako bakarra dago ospitaleratuta, baina arrazoi onkologiko bategatik segitzen du. Lehenagotik ospitaleratutako bat baino gehiago izan dira baina larri ez. Alta jaso dutenei guk egin diegu segimendua.

Zahar etxeak koronabirusaren foku nagusietako bat dira. Eta Bortzirietan?

Ez Lesakako zahar etxean, ez Berako zahar etxean, ezta Aspaceren Berako Maddi egoitzan ere, ez da positiborik zenbatu. Horrek erran nahi du Bortzirietan ez dela transmisiorik izan. Hasieratik bisitak bertan behe- utzi zituzten eta neurriak hartu. Kanpoan kasu gutti izan direnez, ez da zahar etxeetara ailegatzeko aukerarik izan.

Test azkar gehiago jasoko dituzue?

Erregistratutako kasuen arabera bidaliko dizkigute. Hala ere, orain sintomekin bertz egun baino guttiago dituztenak Iruñera bideratzen ditugu PCR proba egitera eta Iruñera joan ezin dutenen kasuan, honat etortzen dira. Bortz egun baino gehiago badaramatzate test azkarrak hemen egiten diegu. Bertzetik, Osakidetatik ebakuntzak egiteko berriz deitzen hasi dira eta paziente horiei ebakuntza egin aitzinetik ospitalean PCRa egingen diete.

Herritarrek kezkatuta daude?

Bortzirietan kasu gutti agertu direnez, egiatan badiren edo ez galdetzen digute. Jendeak birusa honat ez dela ailegatu pentsatzen du baina kasuak hemen ere badira eta garrantzitsua da neurriak hartzea. Ez gara immuneak.

Nolakoak izanen dira ondoko egunak eta asteak?

Hain kasu gutti izanda immunitatea baxua da Bortzirietan eta birusaren bigarren bolada etortzen bada, gaixotzeko arrisku handiagoa izanen dugu eta horrek kezkatzen gaitu. Baina orain arte ikasi dugunarekin espero dugu prestatuak izatea.

Ikasleek baliabideak ez direla kontuan hartu salatu dute

Bera, Lekaroz eta Leitzako ikasleak guztien beharrak elkarlanean asetzeko saretu egin dira

TTIPI-TTAPA

Koronabirusak ikasketak etxetik jarraitzera behartu ditu ikasleak. Horren aitzinean, Gora Ikasleon Borroka mugimenduko ikasleek, telelana gauzatzera, «guztiontzako neurri berak hartu direla» salatu dute: «berriz ere, Hezkuntza Sistemak ez du kontuan hartu ikasleriaren egiazko errealitatea». Norberaren beharretara egokitu gabe jarduteak «ikasle aunitz ikasketak aitzinera atera ezinik» utzi dituela nabarmendu dute: «wifiairengatik, ordenagailu faltagatik, bere errealitateagatik...».

Egoera salatu

Egoera horren aitzinean, Gora Ikasleon Borroka «salaketa kanpaina» abiatu zuen sare-sozialetan eta Euskal Herri osoko ikastetxeetako hainbat ikaslerekin batera, Baztan, Leiza eta Bortzirietako ikasleek ere, «egoera jasangaitza» dela adierazi dute.

Ikasleak saretu

Salatu eta saretu. Halaxe egin dute: «gure artean antolatu

eta elkar laguntzeko zaintza-sareak sortu ditugu Euskal Herri osoan».

Toki Ona

Beran Ikasleok Tinkoren sare sozialetan inkesta bat paratu zuten, ikasleei behar zutena eta eskaintzen zutena zer zen adierazteko aukera emanaz. Jasotako erantzuna ardatz, «arazoei aurre egiteko harremanetan jarriko gara». Horrekin «ikasleok antolatzeak dugun gaitasuna» ageriko egitea dute helburu: «ezin gara emanen digutenaren esperoan egon mila aldiz erakutsi baitigute zenbat axola diegun».

Irakasleei ere «erantzun kolektiboa» eskatu diete eta «horretarako Ikasle Zaintza Sareak tresna ezin hobea» dela adierazi dute.

Lekaroz institutua

Lekarozko institutuko ikasleek sarea bitan banatuz dihardute, elkarlanean: «batetik, apunteen argazkiak igo eta elkarbanatzeko Driven karpeta bat sortu genuen. Eta bertzetik, edukiak ulertzeko arazoak



dituztenei laguntza eskaintzeko espazio bat sortuko dugu».

Espazio horrek «elkarrekin aritzeko» bide emanen diela gaineratu dute: «edozein zailtza izanez gero edo laguntzarik behar izanez gero, jarri gurekin harremanetan».

Amazabal

Leitzan ere zaintza sare bat abiatzeko pausoak eman dituzte, beharrak eta kezak jakiteko, «ikasleriak jasaten dituen zapalkuntzak oraindik ere agerikoago egin baititu

koronabirusak eragindako egoera honek».

Erantzunak jasota, «bideoz, bideo-dei bidez eta idatziz klase telematikoak emanaz» egin diote aurre egoerari. Denen beharrak asetzeko irtenbide bila dabiltza: «batek, material falta dauka, izan ere, etxean hiru ikasle dira eta ordenagailu bakarra dute, gainera gaizki funtzionatzen duena. Languztiak bere orduan entregatu ezin dituela aipatu zuen, eta irtenbide bat aurkitzeko lanean ari gara».

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

trigo limpio Lanean jarraitzen dugu

Jaso haragi ekologikoa zure etxean

Egin zure eskaria astelehenetik ortzirale iluntzera bitarte.
Banaketa egunak: astearte eta asteazkenak.

T. 635 715 038

pedidos@carneecologicanavarra.com
www.carneecologicanavarra.com

Konfinamendu garaia arintzeko ekimenak egunero

Gauero musika izaten da eta igande arratsaldetan bingoa jokatzeko Karrika Nagusian eta Ugaldean

MAIDER PETRIRENA

Konfinamendu egoera honek gure herrian hainbat ekintza egiten ari dira: egunero 21:00etan bakoitza bere etxeko leiho edo balkoitik musika jarri eta kantuan, dantzan aritzen da. Horrez gain, Karrika Nagusikoak eta Ugaldea auzokoak bingoa jolasten hasi dira. Igandero 19:00etan kale nagusian eta 6etan berriz Ugaldean. A ze nolako giroa izaten duten!

Ugaldean bi aldiz bingoa jokatu zuten: Lehenengo lerroa Elena Sorozabalek eta bingoa Juan Mari Sorozabalek egin zuten. Bigarrenean, berriz, lerroa Jesus Irazokik eta bingoa Oihana Arriolak.

Karrika nagusian, berriz, Lehenengo lerroa Juanjo Ibarak eta Agurtzane Zubietak eta bingoa Aroa Ibarak. Bigarrenean Ainara Ibarak lerroa eta Agurtzane Zubietak bingoa. Zorionak denek.

Giro ederrean pasatzen dute igande arratsaldea.

Kirola eta baratzeko lanak

Herrian mugimendu gehixeko sumatu da azken egun hauetan haurren irteera dela eta. Horrez gain ere kirola egitera ere ateratzen ahal denez herritarrak gogotsu hartu dute irteera hau beti ere beharrezko baldintzak betez. Baratzetan ere jendea badabil baita baserriko lanetan ere.



JEXUX MARI JORAJURIA ETA MARI KORO PASKUAL

Artzain amerikanoen bestarik ez aurten

Ameriketako egondakoak artzainek beraien besta ospatzen dute urtero maiatzaren 1ean. 1987. urtean hasi ziren eta aurtengoa izan da lehen urtea besta hau ezin izan dutela ospatu konfinamendua dela eta. Hasiera hartan bazkaria Ulibeltzak Elkartearen egiten zuten eta azken aldian Ariztigain kanpinean. Argazkiak 1987koa eta 2019koa dira.



Musika balkoietatik egunero eta bingoa igandetan izaten da. MAIDER PETRIRENA



“TELLETXEA”
Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatzeko Sistema Automatikoak
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

«Haurrei segurtasuna eta lasaitasuna transmititu behar zaie»

GARBIÑE GOIA IRAZOKI BERAKO PSIKOLOGOA ETA PSIKOTERAPEUTA

Apirilaren 26an etxetik ateratzeko baimena eman zuten arte, hilabete eta erdi baino gehiago pasatu dute haurrek etxean. Horrek izan ditzakeen ondorioez aritu da Berako psikologoa

G. PIKABEA | BERA

Aunitz solas egin da etxeko ttikiez konfinamendu garaian, baina hondar neurriak kenduta, gutti izan dira eurek kontent jartzeko motiboak. Konfinamenduaren ondorioak bete-betean sumatu dituzte, egun batetik bertzera, lagunarteko jostetak, ikastetxeko egonaldiak, parkeko bueltak, eskolaz kanpoko bertze jarduerak edota hain beharrezkoa duten ariketa fisikoa alde batera utzi, eta etxean sartuta egon behar izan baitute. Hilabete eta erdi baino gehiago pasatu dute etxean eta ondorioak familia bakoitzaren araberakoak direla nabarmendu du Garbiñe Goiak.

Haurrek hilabete eta erdi pasatu dute etxetik atera gabe. Horrek nola eragin dezake eurengan?

Familia bakoitzari modu hagitz desberdinean eragin dio konfinamendu egoera honek, eta familien barrenean haurren egoera sartzen dugu. Badira guraso batzuk etxetik lan egin behar izan dutenak, etxean haurrak dituztenak, eta egoera hori guztia kontziliatzea momentu batzuetan zaila izan da. Haurraren adinak ere eragina izan du. Haur ttikiek, sei urte bitarteko haurrek, ez dute hain ongi ulertzen ezin dela etxetik atera eta zentzu horretan frustrazioa erregulatzea zailagoa da. Koskorragoak direnek egoera ulertzen dute, emozionalki erregulazio maitala helduagoa dute eta erraza-

goa egiten ari zaie. Nerabeen kasuan egoera delikatu da. Hain zuzen gurasoengandik indibidualizatzeko prozesuan inoiz baino elkartuago egon behar izan dute. Kasuaren arabera, beraz, ondorioak aldatzen dira. Sistema familiarra nahiko osasuntsua dutenetan, ondorioak ez dira larriak izanen, guraso horiek beraien seme-alabei ziurtasuna eskaini dietelako eta nolabait segurtasunak lasaitasuna eskaintzen dielako. Baina sistema familiarra delikatu dute haurretan, tratu txarrak jasaten dituzten haurren inguruan, genero indarkeria dagoen familietan... egoerak okerrera

egin dezake, haurrak ez delako segurtasunik sentitzen eta liskarrak areagotuz, angustia sentimendua ere areagotzen ahal da. Haurrek atzerapauso bat izan dezakete. Normalean banaketarako arazorik ez dutenek orain angustia senti dezakete. Beldurraren ondorioz, urduriago ere sentitzen ahal dira. Horregatik garrantzitsua da lotura afektibo hori ongi blindatzea, eta goxotasunez segurtasun eta lasaitasun sentimendua transmititzea.

Haur guztiak ez dira egoera berean bizi. Horrek ere baldintzatu ditu bakoitzaren beharrak...

Dudarik gabe. Haur ttikiak dituzten familietan egoera

«ETXE ONDOAN BELAR PUSKA BAT IZATEA URREA DA MOMENTUAN»

«ONDORIOAK FAMILIAREN ARABERAKOAK IZANEN DIRA»



Apirilaren 26az geroztik haurrak heldu batekin ordubetez karrikara atera daitezke.

ulertzeko zailtasunak izan ditzakete eta horrek egoera zailtzen ahal du. Egoera ekonomikoa ere nabarmen gelditzen da agerian: haurrek denbora pasatzeko izan ditzaketen baliabideak (Internet, baliabide teknologikoak...) edo baita espazioa fisikoa ere. Haur batentzat ez da gauza bera balkoirik ez duen etxe batean edo baserri edo lorategia duen etxe batean bizitzea. Konfinamendu egoeraren ondorioz alde horiek nabarmen agerian geldituko dira. Lorategia duten edo baserrian bizi diren haurrek ez dute hainbertzeko beharrik sentitu kanpora ateratzeko, ateratzen direlako. Baina hiri batean, balkoirik gabe daudenek haintza hartzeko behar hori ez dute bermatua izan.

Landa eremuan bizitzeak itxialdia hobea izaten lagundu ote du?

Bai. Hiri handiek, zoritxarrez, bertzelako baldintzak dituzte, bertzeak bertze, kutsatzeko arriskua proportzioan handiagoa dute, eta beraz, beldurra handiagoa dela iruditzen zait. Gainera, gure eskualdeko datuak nahiko onak izan dira eta egoera horrek ere lasaitasuna ematen du. Landa eremuak, bizi kalitatearen aldetik ere, onurak ditu. Leihoa ireki eta mendia ikustea... Familia aunitzek mendia hurbil dute, edo belar puska bat ondoan ariketak egin ahal izateko, eta hori momentu honetan urrea da.

Konfinamendu garaian maiz izan dira haurrak hizpide. Haurrak ez direla kontuan hartu uste duzu?

Egoera zaila da eta pentsatzen dut dena kontutan hartzea ere zaila izan dela Gobernuarentzat. Ahalik eta hobekien egin nahi izan dutela pentsatu nahi dut, baina ekonomiak izan du pisu handia eta horren arabera moldatu dituzte konfinamendu neurriak. Haurren beharrak, aldiz, bozik ez dutenez, ez dira hainbertze kontuan hartu. Gurasooi dagokigu beraiei ahotsa ematea, baita instituzioei ere.

Iparraldean edo Europako bertze tokietan hasieratik ateratzeko aukera izan dute...

Bai, eta ikusi denez, ez da hainbertze aldatu birusaren hedapena karrikara pixka bat ateratzeagatik. Gainera, haurren eta helduen osasuna zaintzea garrantzitsua da, hain zuzen ere kutsatzeko zailtasun gehiago izateko eta kutsatuz gero osasuntsu egoteko. Eta alde horretatik, garrantzitsua da ariketa fisikoa egitea, eguzkia hartzea... Hau da, egoera honetan garrantzitsua da osasuntsu mantentzea eta horretarako osasuna modu integrean kontutan hartu behar da. Horrek erran nahi du ariketa fisikoa garrantzitsua dela.

Apirilaren 26az geroztik, haurrak atera daitezke. Hasieran erosketak egitera erran zuten, eta gero paseo bat ematera ere bai...

Erosketak egiteko neurria berri ere helduen beharretatik abiatutakoa da. Haurrak ez du erosketak egiteko beharrik. Haurrak haizea hartu, paseatu, mugitu, eguzkia hartu... hori behar du. Haurrak gorputzetik, emoziotik, aunitz ikasten du eta garrantzitsua da.

Paseoak nolako baldintzatan egin beharko lirakekeela uste duzu?

Afektiboki ziurtasuna ematea, ama edo aitarekiko lotura afektibo hori kanpoan ere mantentzea, garrantzitsua iruditzen zait. Zorionez, landa eremuan kokatzearen abantaila handia dugu. Mendia hurbil dugu, eta segurtasun tartea mantenduz naturan haizea hartzeko ez dugu batere zailtasunik. Naturarekin harremana ahalbidetzen duen ateraldiak izan beharko lukete lehentasuna. Atera baino lehen, haurrari zein baldintzatan aterako garen azaldu behar zaio. Berarekin gaudela erran behar diogu eta poliki-poliki eginen dugula, ongi aterako dela, pazientzia izateko, ongi ari dela.

Eskolako marxa etxean segitzeaz zein iritzi duzu?
Familia batzuk haurren eskolako segimendua egiteko aukera dute. Bertze batzuetan



Haurrei lotura afektiboa eskaintzea eta goxotasunez segurtasuna eta lasaitasuna transmititzea garrantzitsua dela dio Goiak.

gurasoak etxetik ari dira lanean, eta etxeko lanak ere hor daude. Egoera honetan ezinezkoa da etxean eskolan bezala ikastea, deus gertatuko ez balitz bezala. Eskolako erritmoari ezin diogu segitu, denak konfinamendu egoeran gaude eta. Baina nolabaiteko segimendua egitea eta goiza egituratzeko etxeko lanak egitea ez zait gaizki iruditzen. Baina ez dugu aherentzi behar zein egoeratan gauden eta etxeko lanen afera bertze mailan kokatu behar dugu. Autonomia lantzea, koxinatzea... Normalean egin ezin ditugun jardueri erreparatzeko abagunea izan daiteke.

Zer erranen zenieke gurasoei?
Ari garela, poliki-poliki, bakoitzak ahal duguna egiten du-

«**NORMALEAN EGIN EZIN DITUGUN JARDUERAK EGIN DITZAKEGU**»

gula, batzuetan hobe eta bertzeetan ez hain ongi. Errudun sentitu gabe egiten dugunaren ardura hartu behar dugu. Haurrekin gure akatsei ere erreparatzen ahal diegu eta hori ere garrantzitsua da, gure seme-alabek perfektuak ez garela ikusten dute, eta horrek humano egiten gaitu. Bertzetik, lotura afektiboari garrantzia emanen nioke, etxeko lanei baino gehiago. Malgutasuna ere garrantzitsua da. Egitura, ordutegiak eta pantaila aitzinean pasatzen duten denbora neurtzea garrantzitsua da, bainamalgua izan behar dugu, denak konfinatuta gaudelako. Laguntzea da bertze hitz gakoak, nola lagundu haurrei edo nola sostengatu haurrak prozesu

«**KASU EMAN BEHAR DA ERRUDUN SENTIMENDUAREKIN**»

honetan. Emozioei bidea eman behar zaie, eta euren ondoan egonez laguntzen ahal diegu, sentitzen dutenari hitza eman. Zoritxarrez, hurrengan ardura handia jarri da, gaizki ulertuz, birusaren transmititzaile balira bezala. Kasu eman behar da haurrek sentitzen ahal duten errudun sentimendurekin. Orain kanpora ateratzen ahal direla, lasaitasuna transmititu behar zaie, eta ardura ez da beraiengan jarri behar. Haur batek agian ez du bere lagun bat ikusi nahiko lagun hori amatxirekin bizi delako eta amatxi kutsatzeko beldur delako. Kate horretan sartzeak ez du merezi.

Eta irakasleei?

Ez dute paper erraza. Beraien lana egiten jarraitu nahi dute eta... Egoera honetan gauza aunitz aldatu behar izan ditzute. Horrek lan gehiago sortu die, nahiz eta ez dugun ikusten. Kulpa, ardura eta exijentzia apaltzea garrantzitsua da.



Egoerak ahalbidetuko balu, bestak aitzinerago ospatuko lirateke.

Herriko bestarik ez dute izanen ekainean

Komertzioak irekitzen hasi dira, liburutegia zabalik dago eta baratzeetara joateko baimena eman du Gobernuak

MARGA ERDOZAIN

Maiatzean loreak balkoietan eta mugimendu handiagoa karriketan. Poliki-poliki gure herriko zuri-beltzeko argazkia kolorez betetzen ari da.

Osasungintza

Osasun zentroko protokoloek jarraitzen dute. Bertan testak burutzen dira eta hemendik aitzinera inork sintomarik izanen balu lehen baino lehen deitu beharko luke eta bereha-

la testa egingen litzaiok. Gizarte zerbitzuetako programa guztiek ere martxan segitzen dute: familia programa, laguntza programak...

Udal zerbitzuak

Udal bulegoak itxita segitzen du, baina Herriko Etxeko jarduera martxan da. Udal taldeak aurrez aurreko jarduera berreskuratuko du hilabete honetan bilkura eginez. Karrikak eta egoitzak garbitu eta umeen

kaleratzearen ardurak, dirulaguntzak... kudeatzen ari dira. Kirol egoitzak ekainean berriro martxan jartzea aztertzen ari da udala.

Liburutegia zabalik

Liburutegi zerbitzua berriro martxan jarri da ohiko ordutegian, hau da, 16:00etatik 20:00etara. Mailegu zerbitzuari lehenetasuna emanen zaio eta egoerak ezartzen dituen protokoloak jarraituko dira: eskularruen erabilera, aforoaren kontrola... Zerbitzua arintzeko eskaerak telefonoz (948 450909) edo bibliodoneztebe@yahoo.es helbidera idatzita egin daitezke.

Bi hilabete hauetan digitalizazio lanekin jarraitu dute; aipatzen ahal da %12a bertzerik ez dela gelditzen liburutegiko ale guztiak katalogoan ikusgai eta erabilgarri izateko. Horretaz gain, pintaketa eta txukunketa lanak egin dira.

Ipuin txokoaren ekimena era telematikoz burutzen ari da, partaideek ipuin, kanta eta dantzez gozatzeko aukera dute, norberak bere etxetik, hori bai, Haizearen gitarraren doinu-pena.

Komertzioak irekitzen

Maiatzaren 4an herriko denda eta komertzio aunitzek atek ireki zituzten. Doneztebeko Merkataria eta Zerbitzu Elkartek zenbait segurtasun neurri hartu ditu eta honela, beraien dendetan sartzeko derrigorrezkoa izanen da eskuak garbitzea

gelarekin sartzekoan eta ateratzerakoan, maskara erabiltzea saltoki barrenean eta bi metroko segurtasun distantzia errespetatzea. Eskuak garbitzeko gela denda bakoitzean izanen dute, baina musukoa norberak berea eraman beharko du.

Baratzeak

Doneztebarrek ere aukera izanen dute baratzeetan lan egiteko. Hori bai, hainbat baldintza betetz: baratzeak udalerrian bertan edo bizilekuaren mugakidea den udalerrian egon beharko du; banaka joan eta aritu behar da bertan (solasaldiak eta egonaldiak egin gabe); jardueraren iraupena nekezaz zereginak egiteko baxkarrik izanen da. Herriarren osasuna eta segurtasuna bermatu beharko da. Udalak dituen herri baratzeen erabiltzaileek dagozkien agiriak jasotzen ahal dituzte.

Herriko bestak ekainean ez

Ekainaren 28an hastekoak ziren San Pedro bestak bertan behera gelditu dira. Aitzinera begira, eta osasun egoerak ahalbidetuko balu, ospatuko lirateke.

Argazki lehiaketa

Doneztebe bakoitik lema duen ekimena bultzatu du Udalak. Helburua da argazkiak ateratzea, norberak bere balkoitik edo leihotik eta alkatetzadoneztebera.eus helbidera igortzea (epea: maiatzak 15).

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

SCOTT | GIANT | MERIDA BIKES
ORBEA | BH | CANYON

www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erlijio zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169



Zubietan ospatu zen lehendabiziko Malerreka Eguna 2012an. UTZITAKO ARGAZKIA

Malerreka Egunaren hutsa bideo batekin bete nahi dute

Maiatzaren 30ean, Donamarian ospatzekoa zuten Malerreka Eguna bertan beheiti utzi behar izan dute

TTIPI-TTAPA

Malerrekarrak urteroko hitzordurik gabe geldituko dira aurten, birusak eragindako ezohiko egoerak Malerreka Eguna ospatu ahal izatea galarazi duelako.

Maiatzaren 30ean, hondarreko larunbatean, ospatzekoa zuten hitzordua handia Donamarian. Horren faltan, udalei argazkiak eskatu eta bideo txo bat osatzeko asmoa agertu du Malerrekako Mankomunitateak. Argazkiak bilduak ditu dagoeneko eta horiek bideoa osatzeko lanean ari dira, ondotik sare-sozialetan

partekatzeko. Hala, ospakizunak egin duen ibilbidea orritu eta herritarrei heldu den urtean berriz bueltatuko direla ikusaraziko diete.

2012az geroztik urtero

2012an ospatu zen lehendabizikoz Malerreka Eguna Zubietan eta ordutik herriz herri ibili da lekukoa: Zubietatik Eratsunera, Eratsundik Doneztebera, Doneztebetik Elgorriagara, Elgorriagatik Iturenena, Iturendik Urrozera, Urroztik Sunbillara, Sunbillatik Ezkurrara eta Ezkurratik Donamariara.



Herriko Ostatuko eta dendako arduraduna.

Urrozko herriko denda berriz ireki dute eta «jende aunitz» dabil

JAIONE ARIZTEGI

Urteak dira herriko azken denda itxi zutenetik, eta baita ostatu bakarra dugunetik ere. Hala ere, joera hau hautsi eta aspaldiko partez denda dugu herrian, konfinamendua hasi zenezan ireki baitzen.

Dendan herriko ostatua duen jabea aritzen da lanean, eta

bezeroei zerbitzu ona ematen ari da. Koronabirusaren ondorioz mugikortasuna mugatua dagoen honetan, jende aunitz dabil dendan, eta badirudi erosleak kontent daudela.

Ea aurrerantzean ere joera horri eusten diogun, herria bizirik mantenduz...

Zubietako udal langileen hautaketa egin da eta lanean ari dira

FERMIN ETXEKOLONEA

Ateak itxita baina lanean ari da Zubietako Udala. Telefonoz eta emailaz jasotzen dituzte herritarren eskaerak.

Langileak kontratatatzeko egina zuen deialdia ebatzita dago dagoeneko, eta lanean dira udal langileak: errotan Miren-

txu Santesteban eta herriko lanetan Ander Aragon eta Joseba Elizalde.

Bestalde, aurrera begira, hilerrian kolunbario bat paratzeko asmoa duela jakinarazi du. Momentuz asmo hutsa da eta horri buruzko oharra zabaltzekoa zuen.

José A. Arzuaga abeltzaina

Zuzeneko salmenta

10 kg-ko lotea
120 €-tan

Xerrak, entrekotak, gisatzeko haragia, azpizuna, etab. Dena hutsean ontziratuta eta etxerainoko zerbitzuarekin.

Eskaeretakoko,
deitu edo mezu bat bidali
608 670 697



aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179

ARANTZA

www.arantza.net

Elkarteko 380 kide inguru ikastarorik jaso gabe daude

la dena geldirik badago ere, frantses eta yoga klaseak online jasotzen ari dira

PABLO IRASTORTZA

Bi hilabete inguru preso egon ondotik, eta benetan ez jakinik, gure ilusioa den edo antzeko zerbait, badirudi kartzelaren atean zirrikitu bat ikusten dela. Zaindu gaitezen, askatasunaren ametsak sobera erotu gabe, izan dezagun behar adina kemen eta animo, arreta guztiak bor-bor eduki beharko ditugu eta oraindik, nahiz eta jakitunak egunero dataz, hilabeteetaz, urteetaz, etab. bla-bla sumatu, auskalo zenbat denboraz ez diren eguneroko bizimoduak normalduko eta giltza potoloa duen itxidura parez pare irekiko.

Lehenago lepotik burua

Bidaia eta ostalaritza sailetatik datozen berrien arabera, erran daiteke—eta hobe honeri buruz huts egin—hagitz zaila izanzen dela aurten, bai egun baterako, baita egonaldiatarako ere bidaiatzea. Agian, alde batetik, egon daiteke alde batera edo bertzer mugitzeko osasun sailaren edo Gobernuaren baimena, baina, orain arte dakigunez, ezin izanen da garraioetan, jatetxeetan edo jende multzoak izan daitezken lekuetan pilatu.

Hainbat ekintza «zintzilik»

Lehen aipatuak itxura hori adierazten badu ere, ez pentsa Arkupeak elkartearen antolamendu bakarra ateraldiak eta urruneko egonaldiak direnik, badira —makina bat kidek parte hartuz gainera— antolatzen diren bertze hainbat jarduerak ere.

Nafarroa iparraldeko Xareta, Bartzangoiza, Baztan, Bertiza-

rana, Malerreka, Leitzaldea, eta Bortzirriak eskualdeetan, jubilatuek, gorputza eta burua lantzeko ariketak egiten dituzte: uretako gimnasia, dantza, frantsesa, gorputz luzaketak, euskara, memoria tailerra, soinketa, informatika, lorezaintza, pintura, jubilotekak, yoga klaseak...

Horiek guztiak ere, larrialdi egoera dela eta, bertan beheri gelditu dira. Zonaldeko 380 kide inguru ikastarorik gabe gelditu dira. Eta ezin ahantzi, hilabeteroko hirugarren asteartean hango eta hemengo herri eta mendietako irteeratar joaten ziren 60-70 mendizaleak.

Dena den, ez dezagun itxaropena baztertu, euri jasa beti-beti atertzen den bezala, espero dezagun zaparrada hau ere noizbait arinduko dela, eta pitinka bederen, eguneroko gertaerak lehenago bide eta esparruetatik barna ikusiko ditugula.

Arantza eta Bera «salbuespen»

Bortzirietako bi herri hauetako saiakerak ikusita, argi dago aipaturiko gaixotasunak eta beldurrak afera guztiak zapuzterik izan ez duela. Neurrik kanpo erabiltzeagatik edo erabileraren ez jakintasunagatik aunitzetan guk, estimatzen ez ditugun sare sozial edo komunikabide berrien bitartez, lanean jarraitzen dute. Adibidez, Beran ematen diren frantses klaseei dagokionez, irakasleak Whatsapp bidez bidaltzen dizkiete lanak etxera. Bertzalde Arantzako parte-hartzaileek Zoom delakoaren bidez, astean behin yoga egiten dute.



Ea noiz duten horrelako momentuak bizitzeko eta argazkiak ateratzeko aukera.

Toki-garapenerako 17 proiektu martxan jartzeko babesa

Cederna Garalur ekarteak Denok Bat Federazioaren on-line denda eta Leitzan harrera egiteko eremua babestuko ditu

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 6an, Cederna Garalur Elkartearen organo erabakitzaileak 'Cederna Garalur 2014-2020' TGPE landa-garapenerako programaren laugarren deialdira aurkeztutako proiektuetarako dirulaguntzak ematea onartu zuen. Programa 2019an itxi zen.

Onartutako 17 programetatik, zortzi tokiko enpresek edo ekintzaileek aurkeztutakoak dira, eta bederatzi ekimen publikoek (ekoizpenekoak ez diren proiektuak). Guztira, proiektuek 647.181, 16 euro

jasoko dute, diruz lagun daitezkeen inbertsioen % 28,7.

Leitzako plazan eremua

Deialdi honetan, proiektu publikoak honetan zentratu dira: besteak beste, erabilera anitzeko aretoak edo espazioak gaitzea eta hornitzea; honela, Leitzako Udalak herriko plazan eremu bat egokituko du bertakoei eta bisitariei harrera egiteko. Horretarako, lagun zitezkeen 76.846,68 euroko inbertsioetik 50.000 euroko dirulaguntza jasoko du Leitzako Udalak.



On-line denda sortzeko asmoa du Denok Bat Federazioak.

Denok Bat on-line denda eta Donezteben interiorismoa

Ekoizpeneko proiektuen kasuan, Denok Bat Federazioak *Denok Bat Market Place* on-line denda sortzeko asmoa du eta Donezteben interiorismo denda bat sortzeko laguntza ere eskainiko dute.

Azaroaren 25ean, Cederna Garalur Elkartearen 2014-2020 aldirako TGPE Landa Garapenerako Programara proiektuak aurkezteko laugarren deialdia

itxi zen. Deialdi horretara 30 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 3k atzera egin zuten eta beste 2 atzera bota ziren, deialdiaren baldintzak betetzen ez zituztelako. 25 proiektu baremazio- eta emakida-fasera igaro ziren, eta norgehiagoka bidez esleitu ziren. Eskatutako dirulaguntzak baremazioaren arabera eman dira, ekoizpeneko proiektuei lehenatasuna emanda.



PROMOCIONES MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



AUKERA BIKAINA Sunbillan!

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

Garraiolarien lanean gorabehera handiak

Banaketa- eta bidalketa-lanetan aritzen diren garraio enpresek lanean segitu dute krisiaren hasieratik, baina aldaketa handiak sumatu dituzte. Lantegi eta komertzioen bidalketak ia erabat gelditu dira eta on-line produktuen banaketa handitu da, baina hau ez da nahikoa

AITOR AROTZENA

Osasun-alerta egoeran erelanean segitzen duen sektoreetako bat da garraioarena. Banaketa- eta bidalketa-lanak egiten dituzten garraiolari eta banatzaile enpresak lanean ari dira. Rafa Maritxalar lesakarrak aipatu digunez, partikularrendako paketeria eta mezularitza garraioak zerbait handitu badira ere, enpresa eta komertzioendako egiten dutena ia erabat gelditu da orain arte. Hori nabarmen suertatu zaio Juantxo Irigoien ere, bertze nabardura batekin:

«Ibardinerako egiten dugu lanaren zati handi bat eta muga itxia dagoenez, aunitz jautsi zaigu lana». Lanez gainezka dabilzanak on-line komertzioaren banaketa lana egiten dutenak dira. Horietako bat da MRW-ko Iñigo Rodriguez da, baina lan hori ez zaiela errentagarria

ON-LINE BANAKETAK ONGI, BAINA BEHEITI EGIN DU KOMERTZIOEN BIDALKETAK

suertatzen onartu digu, «alderantziz, aitzinetik ezarritako prezio jakin bat ordaintzen digute».

Errepideak lasaiago, kanpoan bazkaltzeko aukerarik ez

Errepideetan lasaitasun handia sumatu dute guztiek. Irigoienen

ERREPIDEETAN LASAITASUN HANDIA, BAINA BAZKARIA ETXEAN EDO KAMIOIAN

erranetan, «kamioia badabila, lehen baino guttixeago behar bada, baina auto gutti. Kanpoan ezin dela gosaldurik? Etxetik bokadilloa eraman, lehen egiten genuen bezala eta etxean bazkaldu». Maritxalarren ustez ere, «errepideak aunitzez lasaiago daude, autoak gutti eta kamioiak ikusten dira, baina aunitzez guttiago. Lehen mugimendu handia izaten zuten poligonoe-tan orain lasaitasun handia dago. Alde onari begiratuta, kutsaduramila aldiz guttiago izanen da. Bertze aldetik, etxetik kanpo bazkaltzea ia ezinezkoa da, etxetik hartzen dugu edo etxera ailegatutakoan ongi bazkaldu». Rodriguezek ere errepideetan lasaitasun handia sumatu du: «askatasun ikaragarria dugu, Irun bezalako hirietan aparkatzeko erraztasun handia dugu». Bazkaltzerako orduan, «lehen beti kanpoan bazkaltzen nuen, jatetxe batean edo bokata, baina orain etxetik ekartzen dut tupperra, ez dago bertzerik».



Juantxo Irigoien garraiolaria.

«Gure lanaren zati handia Ibardinen dugunez, aunitz jautsi zaigu»

JUANTXO IRIGOIEN (LESAKA)

Juantxo Irigoien gehien bat Bortziritan ibiltzen da merkantzia-garraioan eta aunitz sumatu du osasun-krisi egoerak eragindako geldialdia. Ibardinera joan-etorri aunitz egiten ditu eta muga ixteak eragin dio jautsierarik handiena. Okerrena gero etorriko dela uste du, krisi honek mun-

du osoari eragin diolako. Koronabirusaren eraginez, «dezen-te lan guttiago egiten ari gara», dio. «Ibardinekin dugu lan handia eta muga itxia izatearekin, aunitz jautsi zaigu. Hori da makurrena. Fabrikak eta komertzioa ere arrot mottel dabilta, ostalaritza ia erabat itxia eta gauza bat eta bertzea, lan handirik ez dugu egiten. Partikularren artean zerbait

egiten dugu suertatzen denean, baina gure lanik handiena ez da hori».

«Txarrena orain dator eta luze joanen dela iduritzen zait»

Konfinamendua zerbait arintzen hasi bada ere, txarrena etortzeko dela uste du Irigoienek: «Zerbait aldatuko da, baina nire iduriz, aurtengoa egina izanen da. Txarrena ez da orain, txarrena heldu dena izanen da. Iduritzen zait luze joanen dela. Komertzioa irekiko dutela erraten dute erraz, baina ea noiz irekitzen dituzten mugak... Frantzian ere, udan turismoa mugitzen hasten denean, nahiago izanen dute jendea Donibane-Lohizunen, Baionan edo Urruñan gelditzea erostekak egitera eta ez alde hone-tara pasatzea. Hori normala da».

Hau dena bukatzen denean egoera «hagitz mottel» geldituko dela uste du Irigoienek:

«KOMERTZIOA BAI, BAINA EA NOIZ IREKITZEN DITUZTEN MUGAK»

«Badira fabrikak aitzineko krisia hemen sobera sumatu ez zutenak, materiala kanpora, mundu guzira, ateratzeko aukera bazutelako. Baina oraingo hau krisi mundiala da, orain arte ongi ibili diren enpresak jausten ari dira, lana behe-ti doa eta erabat gelditu behar izan dute. Eta hori mundu osoan sumatuko da, hori da okerre-na. Lanaren asuntoa aurten zail ikusten dut, denentzat. Etxe handiak, gainera, hori aprobetxatu eta ordaintzak gibeleratu egiten dituzte edo, zuzenean, ez ordaindu, eta zure diruarekin jostatzen dute. Eustea lortzen baduzu, ongi, eta bertzela, zuretzako kalte!».

«Eguberrietan baino lan gehiagorekin gabiltza, baina ez da errentagarria»

IÑIGO RODRIGUEZ LARRETxea
(LESAKA)

Iñigo Rodriguezen erranetan, beraien sektorean egoera «bere onetik joan da. Lehenbiziko bi asteetan dena arrontean gelditu zen, jendea beldurrez zegoen, ez zen deus mugitzen, ez on-line eta ez bertzela. Behin jendeak bere bidea hartu duenean, on-line salmenta izugarri igo egin da, Eguberrietan baino aunitzez lan gehiago egiten ari gara, eromena da».

Erosketa horien artean denetik dagoela aipatu digu Rodriguezek, «beharrezko gauzak bai, baina baita behar ez direnak ere. Arropa aunitz saltzen ari da; haurrak etxean daudenez, jostailuak ere aunitz ibili dira; etxean kirola egiteko tresnak izugarri eskatu ziren

eta orain bertan bukatuak daude, nahiz eta eskatu ez zaizu ailegatuko; eguneroko gauzak ere eraman ditugu».

Paketeak igogailuan

Segurtasun neurriak zuzen betetzea ez zaio batere zaila suertatzen ari Rodriguezi: «Maskarak, guanteak eta garbitasunerako-gela, bakoitzak gure furgonetan ditugu eta erabiltzen ditugu, noski. Bezeroen artean ere gero eta kontzientzia gehiago dago. Hasieran harritzen nintzen ze lasaitasunarekin irekitzen zuen jendeak atea eta paketea eskutara eman. Orain, sinadurarik ez dugu eskatzen PDAn, izen-abizenak eskatu eta listo! Pakete aunitz igogailuan sartu eta bidaltzen dizkiogu beze-



Iñigo Rodriguez, MRWkoa.

roari, horrela ahalik eta kontaktu guttien izateko».

«Paliza handia hartuko dugu»

Pixkanaka «normaltasun berri-rako» bidean hasiko garela badirudi ere, Iñigo Rodriguezek ez du egoera batere argi ikusten: «Orokorrean paliza handia hartuko dugula iruditzen zait, eta zenbait sektoretan ez

«ON-LINE BANAKETAK EZ DIGU DIRURIK EMATEN, GALDU EGITEN DUGU»

dutela pertsiana berriz irekiko. Gure sektorean ere aunitzek itxi beharko dute. On-line banaketak ez digu dirurik ematen, alderantziz, galdu egiten dugu. Aitzinetik ezarritako prezio itxi bat ordaintzen digute, eta hori onartu beharra dugu nahitaez. Aldiz, bidalketak egiten dituzten bezeroak dira guretzat errentagarriak, eta horiek itxita edo errendimendu erdian daude. Internet bidez erosi eta niri banatzeko etortzen zaidanarekin ez dut irabazten, nik bidaltzen dudanarekin irabazten dut. Beraz, orain, gero eta lan gehiago egin, gero eta makurrago gaude».

«Inguruko fabriken garraioa behar dugu, hori da egiazko muskulua»

RAFA MARITXALAR ELGORRIAGA (LESAKA)

Rafa Maritxalarren aipatu digunez, «egoera arrontean aldatu da» sektorean, «lana ongi egitetik lana aunitzez guttiago egitera pasatu gara, hori garbi dago, %40 bat egiten badugu, kontent. Hilabete bukaeran ikusiko dugu fakturazioan, baina horrelako zerbait izanen da. Beharbada partikularrendako paketeria kontua zerbait igo da, baina horrek ez du ematen enpresa edo komertzioendako garraioan galdu dena parekatzeko. Gainera, hori seinale txarra da herri batentzat, herriak behar du bizia, lantegiak, komertzioak eta ostatuak lanean aritzea eta horrek sortzen du merkanztien garraioa. Egia da Inter-

netek ere funtzionatzen duela, hori ere ona da guretzat, baina nahitaez behar dugu inguruko fabriken garraioa. Horiek dute muskulua!».

«Lehen kolpea eta gero, kirolareko tresnak bukatu dira»

Hasieran, kirolerako produktu jakin batzuen eskaria aunitz igo zen, baina hori ere gelditu da: «lehenbiziko kolpea hori izan zen, bizikleta-arrabolak, lasterka egiteko zintak, bizikleta estatikoak... baina istantean gelditu zen, iruditzen zait denak xahutu zituztela eta horrelako tresnarik ez daudela stockean. Segurtasun neurriak betetzea erraza suertatzen zaie: «Maskarak jarriak eramanen ditugu eta sinadura ere ez dugu eskatzen, izen-abizenak eta nortasun agiriaren



Rafa Maritxalar.

zenbakia galdetu eta kitto. Paketea lurrean utzi eta bezeroak hartu. Eskuak garbitzeko xaboiarekin garbitu eta bertze batera». Bezeroei dagokienez, denetik dagoela aipatu digu Maritxalarrek: Jendearen aldeitik bada denetik, izugarriko beldurra duten hipokondriakoak eta bertzetik, ikusten ez den gauza bat denez, sobera hurbiltzen den jendea ere bada

«LANTEGIEK ETA KOMERTZIOEK SORTZEN DUTE GARRAIOA»

eta zeronek egin behar duzu gibelera. Gero, egia da pake-te horiek mila eskuetatik pasatu direla».

«Denak ukituak geldituko gara»

Hau dena bukatzen denean ez da erraza izanen normaltasunera bueltatzea, Maritxalarren erranetan: «Ostalaritza, turismoa... ukituak geldituko dira. Gure sektorean horien behar handia dugu eta hau soka bat da. Azkenean denak ukituak geldituko gara. Industria handiagoak espero dut indarrarekin hastea, baina hori da nik espero dudana, gero zer gertatuko den... Denborak erranen du!».



Isabel Elizalde (eskuinean), Siubhánekin, bidaia honetan bidelagun duen irlandarrarekin. UTZITAKOIA

«Hasieran bueltatzea pentsatu nuen, orain egonaldia luzatu dut»

ISABEL ELIZALDE ARRETXEA ZUBIETAN BIZI DEN DONEZTEBARRA

Koronabirusak ez du Isabel Elizalderen bidaia oztopatu. Aurreikuspenak aldatu behar izan baditu ere Galwayn (Irlanda) dago. Bertan bizi duten egoeraz solas egin du TTIPI-TTAPAREKIN

N.BAZTERRIKA

Ingelesa ikasteko nahiak bideratu zuen Isabel Elizalde (Doneztebe, 1964) Irlandara. Miltownen pasatu zituen lehen-dabiziko egunak baina, koronabirusa tarteko, martxoaren 17az geroztik Galwayn dago: «hasieran etxera bueltatzea pentsatu nuen baina, bueltatzeko billetea erostear nintzela, lagun batek hemengo neska baten kontaktua pasatu zidan». Hasierako «kezka» baretzeko bide eman dio Siubháneki, etxeko atea ireki eta beso zabalik hartu duen irlandarrak.

Noiz eta zer dela eta joan zinen Irlandara?

Ingelesa ikastera etorri nintzen. Nire autoarekin etorri nahi

nuen eta martxoaren 8an abiatu nintzen Bilbora, han ferry bat hartu nuen eta martxoaren 10ean 15:00etan lehorreratu ginen Rosslairen. Orain Galway-n nago.

Itxialdiak bertan harrapatu zintuen... momenturen batean etxera itzultzeko ideia pasatu zitzaizun burutik?

Bai, etxera bueltatzea pentsatu nuen, alde batetik, etxekoekin egoteko eta kezka handia nuelako; eta bertze aldetik,

«HASIERAN DENBORA GALTZEA IZAN ZITEKEELA PENTSATU NUEN»

hemen geldituta ez nuelako batere argi ikusten nola moldatzen ahal nintzen nire helburuak betetzeko... Zaila ikusten nuen egoera, eta hemen egotea denbora galtzea izaten ahal zela pentsatu nuen. Asteartean ailegatu, hiru hilabete pasatzeko eta larunbatean ia buelta prestatzen.... Orduko, egoera ez zela erraza izan argi zegoen.

Zergatik erabaki zenuen han gelditzea?

«EKAIN BUKAERARA ARTE GELDITUKO NAIZ SEGUR ASKI»

Miltown-en nintzen orduan, Kerry eskualdean, eta ia bueltatzeko billetea erosteko nengoelarik, nire bikoteak deitu zidan bere lagun batek hemen lagun bat zeukala erranez, eta berarekin egoteko. Gure lagunarekin solastatu nintzen eta berak bere lagunaren kontaktua pasatu zidan. Neska hau deitu nuen (Siubhán du izena) eta berehalaxe erran zidan bere etxean egoten ahal nintzela eta laguntzen ahal zidala. Handik bi egunetara Galway-era etorri nintzen, St. Patrick egunean!

Nolakoa zen zure egunerokoa Irlandan pandemia hedatuurretik? Zertan aldatu du koronabirusak?

Egia erran, hiru egun bakarrik izan nituen Kerry eskualdea ezagutzeko. Goizetan ingelesa ikasten nuen eta arratsaldetan ingurua pixka bat ezagutzeko aukera izan nuen. Ortziralean eta larunbatean, hau da, martxoaren 13an eta 14an, elkarren arteko distantziak mantentzeko, eskuak garbitzeko, etxetik ahalik eta guttien ateratzeko... erraten hasi ziren, baita bertze herrialdetik zetozenak hama-bortzaldia atera gabe pasatu behar zutela ere. Igande horretan ia ostatuak eta komertzioak itxi ziren, eta St Patrick eguna bertan behera uztea erabaki zuten. Eta badakizue, hau Irlandan duten besta handiena da.

Zer nolako egoera bizi duzue Irlandan? Zertan nabari da koronabirusaren eragina bereziki?

Gauza guztietan, hemen nahiz eta itxiera handiena martxoaren 27an izan, berehala itxi zituzten eskolak, ostatuak eta dendak, eta etxetik lan egiteko aukera zutenei etxetik egiteko eskatu zieten. Siubhán-ek, adibidez, martxoaren 22tik etxetik lan egiten du.

Martxoaren 27an erabaki zuten konfinamendua ezartzea. Ordu-rako Euskal Herrian bi aste generamatzen itxialdian... Jendea neurriak hartzeko eskatzen hasia zen... Nola bizi zenuen egoera hori?

Berehala hasi nintzen etxean gelditzen eta erosketak egiteko eta arratsaldetan ordubete-ordubete eta erdiko buelta bat emateko bakarrik ateratzen nintzen, elkarren arteko distantziak mantenduz. Martxoaren 22an aukera izan genuen mendira joateko, baina hortik aitzinera erran bezala. Gainera, hortik etorri eta, ez nuen sobera egon nahi kanpoan. Bertze aldetik, medioetan aunitz jarraitu da bertze herrialdetan gertatzen ari zena, eta hemen ere ailegatuko zela ikusten genuen. Gobernuaren aldetik, eman dituzten mezuak hasieratik garbiak izan dira, jendeari neurriak betetzea eskatu zaio eta denon arteko lana zela adierazi dute behin eta berriz. Nire ustez nahiko garaiz hasi ziren neurriak inplementatzen, jakin bazekiten gabezia handia zutela larrialdietako ohatzeekin eta ZIUkoekin batez ere.

Zer neurri hartu ziren eta zertan zorroztu da konfinamendua ordutik?

Konfinamendua hasi zenean errandako neurriak ia martxan ziren, hortik aitzinera ia bakarrik guttienezko zerbitzuko lanak egitea erabaki zen, 70 urte baino gehiagoko jendea, zahar etxeetan zirenak, gaixo zeudenak eta haurdunaldian gaixotasun bat izaten ahal zuten emakumeak ezin ziren kanpora atera. Etxetik bi kilometroko erradioan atera gitezkeen, ahal zela bakarrik eta lagun bat baino gehiago izanez

«GOBERNUAK HASIERATIK EMAN DITUEN MEZUAK ARGIAK IZAN DIRA»

«IRLANDAN HIRU ASTEKO BORTZ FASE AURREIKUSI DITUZTE»

Ttikitasunean eredu

Hartu eta eman. Halaxe ari da Isabel Elizalde Irlandan. Ingelesa ikasi bitartean, Euskal Herriko egoeraren berri eman dio Siubhán, bere bidelagunari. Bertze hainbat konturen artean «Ttapi-Ttapa aldizkariak egiten duen lana» aurkeztu dio. «Gaelikoa hitz egiten den eremuetako garapen ekonomikoko Udaras erakunde» lan egiten duen bidaia-lagunak eta «gaelikoa bultzatzeaz eta sustatzeaz arduratzen denak» hitz eder batzuk oparitu dizkio Ttapi-Ttapan (irakurri jatorrizko testua, gaelikoz, ERRAN.EUS atarian). Hona hemen, euskarara itzulita:

Covid-19k mundu zabala hartu duen honetan, gauza positiboak ere ekarri dituela esan daiteke. Gaixotasun honen ondorioz Isabel nirekin denbora pasatzera etorri zen Galwayko etxean. Batzuetan



Euskal Herriko egoeraren berri eman dio Elizaldek Siubhán irlandarrari.

uste dut kasualitateak ez direla istripuz gertatzen eta hauen arrazoiak daudela, baina ez dugu momentuan ikusten. Kontent nago oraingoz Isabelekin bizitzeko hainbat gai eztabaidatzen ditugulako, batez ere euskal munduan gertatzen ari dena kontatzen didalako. Aunitzetan jelskor sentitzen naiz euskal komunitateak hizkuntzarekiko duen begirunea, mirespena, konpromisoa eta maitasuna ikusten dudanean,

eta Irlandan, nire hizkuntzari, gaelikoari, dagokionez, hori gehiago ikusi nahi nuke. Isabelek Ttapi-Ttapa aldizkaria erakutsi zidan eta aldizkari horrek euskara modu arront erakargarri eta interesgarrian bultzatzen duelako, egiten duen lan handia goraiatu nahi dut.

Gure ttikitasunean, eredu ere bagarela islatzen duten hitzak oparitu dizkigulako, eskerrik asko bihotz-bihotzez Siubhán!

gero etxe berean bizi ginenak... Dendetan sartzeko ere neurriak hartu zituzten, aforoa kontrolatzen dute eta sartzeko eskularruak eskaintzen hasi ziren. **Zer bilakaera izan du orain artean birusak eta zein fasetan zaudete orain?**

Irlandak 6 milioi biztanle inguru ditu eta maiatzaren 2ko datuen arabera 21.176 kasu daude, eta 1.286 heriotza. Dublinen eta hango inguruan izan dute kasuen eta heriotzen konzentrazio handiena. Kontent daude nahiko ongi kontrolatu dutelako, baina maiatzaren bostarako aurreikusitako zuten irekiera maiatzaren 18ra luzatu dute. Maiatzaren 1ean Taoiseach-ak (presidentek) erran zuen aurreikusten duten plana bortz fasetan izan dela, bakoitza hiru astea. Eta arront poliki joanen direla jarduera guztiak irekitzen, bai ekonomikoak, baita kulturalak edo kirol ekitaldiak

ere. Maiatzaren 5ean bortz kilometro inguruko erradioan ateratzeko aukera ireki zuten, eta ordura arte atera ezin zuten irekierazko baimena eman zieten.

Hauteskundeak egin ziren arren gobernuaren eratu gabe oraindik...

Otsailaren 8an izan ziren hauteskundeak. Sinn Féinek izugarrizko arrakasta eta emaitza ona lortu zuen, ordura arteko bi alderdi nagusien arteko dinamika hautsita. Aulki banaketa honako hau izan zen: Sinn Féinek 37, Finna Fáilek 37, eta Fine Gael 35. Negozialetan Finna Fáil eta Fine Gael alde batera utzi dute Sinn Féin. Oraindik gobernurik gabe daude, baina negoziaketetan ari dira, eta, dirudienez, Fianna Fail eta Fine Gael akordio batera ailegatu dira, orain Berdeekin ari dira. Hala ere, talde politiko guztiak krisi honi aurre egiteko jarrera nahiko ona adierazi dute.

Gaur gaurkoz, lantokiak, hotelak, dendak... irekita daude? Jendea ibiltzen da karriketan?

Jardueren aldetik, erran bezala, dena itxita dago eta luzerako joanen da. Ni behin bakarrik egon nintzen pub batean... Jendea bai kanpoan ibiltzen da, baina paseatzen, distantziak mantenduz, eta sobera jende ere ez dago, ni ibiltzen naizen eremuan guttienez. Bere momentuan ere zenbait parke eta aisialdi eremu itxi zituzten.

Eta ikastetxeak?

Ikastetxeak itxiak daude, eta irailera arte ez dituztela irekiko erran dute. Zalantza dago ere egin beharreko azterketekin.

Zenbateko egonaldia aurreikusia zenuen eta noiz bueltatzeko asmo duzu?

Hiruhilabeterako etorri nintzen, baina segur aski lau pasatuko ditut, ekainaren bukaera arte aurreikusitako gelditzea, baina ikusiko da.

«Ikasturtea orain akitu eta irailerako uztea denbora gehiegi da»

IZASKUN BERTIZ TELLETXEA SALDIASKO ESKOLAKO ZUZENDARIA

Bi hilabete pasatu dira eskolako atea itxi zituztenetik. Tarte horretan egoerara moldatu behar izan dute, baita Saldiasen ere. Azken asteotako martxaren berri eman digu bertako zuzendariak

G. PIKABEA

«Ez da erraza». Halaxe mintzatu da Izaskun Bertiz Saldiasko eskolako zuzendaria, eskolako atea itxi eta bi hilabete pasatu direnean. Konfinamenduak eskolaren inguru guztiari eragin diola uste du: «etxetik lan egite hau berria da denontzat, irakasle, ikasle baita gurasoendako ere, beraiek baitira momentu honetan irakasle papera hartu dutenak». Alde horretatik, gurasoen esfortzua azpimarratu nahi izan du: «guraso asko lanean daude eta, aldi berean, seme-alabei eskolako lanak egiten lagundu behar diete, horretarako eguneko tarte bat hartuz. Horrez gain, ez da gure kasua, baina guraso askori zaila egiten zaie seme-alaben etxeko lanetan laguntzea». Hala, «denon arteko elkarlana» nabarmendu du.

Dagoenera moldatuz

13 ikasle dira Saldiasen eta «eskola hauetan bai gurasoekin baita ikasleekin ere harreman estua» izaten dela kontatu du. Hori, ordea, ez da nahi bezalakoa izaten ari konfinamenduan: «aurrez aurreko harremanak ikasleak askoz gehiago motibatzen ditu, eta orain, motibazio hori izatea gehiago kostatzen da, urrunegi sentitzen zaituztelako».

Hala ere, eskolako martxari eusten ari dira, nahiz eta lan egiteko modua egokitu behar izan duten: «hasieran, 15 egunetarako itxi ziren eskolak eta



Bertizek kontatu digunez, Saldiasen ez dute etxetik lan egiteko arazorik izan.

lanak bidaltzeko modu bat aukeratu nuen. Baina luzatzen ari zela ikusirik lan bidalketa aldatu behar izan dut». Ikasleen lana prestatzeaz gain, «irakasle on arteko bilerak ere bideo-deiez egiten ditugu eta zuzendaritzako lanak ere etxetik».

Bi tutore dira Saldiasen: «ni Haur Hezkuntzan eta bestea Lehen Hezkuntzan. Biak etxetik ari garalanean eta bakoitzak bere taldearen eguneroko lana bideratzen du». Azaldu digunez,

«AURREZ AURRE IKASLEAK ASKOZ GEHIAGO MOTIBATZEN DIRA»

«goizero ikasleei egun horretan egin beharreko lanak bidaltzen dizkiegu. Ongi ari diren edo ongi dauden jakiteko, tarteka telefonoz ere deitzen diegu. Modu batera edo bertzer, egunero zuzenean ikasleekin egoteko aukera dugu eta beraien lanaren jarraipena zuzenagoa da». Baina, berari, Haur Hezkuntzan, «oso zaila» egiten omen zaio «ikasleekin kontaktu fisikoa izan gabe egunero lanak bidali behar izatea. Ha-

«EGOERA HONETAN EZINEZKOA DA PROGRAMATUTAKO GUZTIA EMATEA»

sieran opor moduan har dezakete eta lanen bat egin, baina egunero-egunero egin behar izatea ez da batere motibagarria izaten ari». Hortik aparte, «lagunak ondoan ez izatearen falta» sumatzen dutela dio.

Ez dute etxetik lan egiteko arazorik izan, «ikasleak hasieratik egokitu zirelako egoerara, aparteko arazorik izangabe». Azaldu digunez, «lan batzuk egiteko fitxak inprimatu behar direnez, etxean inprimagailurik ez izatea suertatu zaigu. Horrelakoetan, eskolan kopiak atera eta eman dizkiegu, baina besterik ez». Gurasoen aldetik ere ez du arazorik sumatu. «Akademikoki» ez ditu kezkatuak ikusi eta «familiekin zortea» dutela sentitzen du: «ikasle guztiek aita edo ama etxean dute eta nahiko ongi moldatzen dira etxetik lanak egiteko».

Ikasturte bukaera airean

Aste Santuko oporrak akituta, apirilaren 20an berrartu zituzten klaseak. Hori bai, «aurten oso arraroa eta hotza» izan da itzulera: «elkar ikusi gabe berriz modu honetan lanean aritu behar hori...». Ez dakite oraindik eskolara itzuliko diren ala ez, baina pena sentituko luke ikasturtea horrela akitu eta «ikasleak behar bezala agurtu gabe» geldituko balira: «polita eta hunkigarria izaten da azken eguna». Bestalde, bere irudiko, eskolara ez bueltatuta, «hirugarren hiru hilekorako programatutako guztia ezinezkoa izanen da egoera honetan ematea» eta alde horretatik, «edukiak airean geldituko liratekeela» uste du.

Kontuak kontu, eskolako martxarekin horrela segitzea «zaila» bada ere, «aurrera jarraitu» behar delakoan dago, «ahal duguna eta ahalik eta hobekien egiten saiatuz». Hezkuntza alorreko zenbait profesionalek ikasturtea orain akitzeko aukera mahai gainean jarri badute ere, bere ustez, «ikasturtea orain akitzea eta irail arte klaserik ez izatea denbora gehiegi da».



Omenaldi hunkigarria eskaini zioten Lurdes Huiziri. F.LOIARTE

Lurdes Huiziri omenaldia eskaini dio herriak

Suhiltzaile boluntarioa, euskalgintzako langile nekazina eta euskal hedabideetan buru-belarri aritu zena

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren leian, ilunabarrean, Goizuetako suhiltzaile boluntarioek kide zuten Lurdes Huizi Perurenari omenaldi hunkigarria egin zioten. Apirilaren 30ean hil zen, 61 urterekin, minbiziaren eraginez. Borondate handiko herritarra zen. Goizuetako suhiltzaile

boluntarioa, euskalgintzako langile nekazina eta euskal hedabideetan buru-belarri aritu zen: AEKn irakasle eta eskualdeko arduradun, Hernaniko Dobera Euskara Elkartean eta 2004az geroztik ari zen *Berria* egunkarian. Boluntario lana izan zuen bizitzako beste ardatz bat, izan ere,

urteak eman zituen Goizuetako suhiltzaile boluntarioetan. Anbulantzia gidaria zen. Ikastaroa egin zuen, eta ambulantiako laguntzaile boluntarioa zen, larrialdietan gaixoak eramaten zituena.

Goizuetako suhiltzaileen azken agurra jaso zuen Herriko plazan bildu ziren, baita sendeak ere, eta minutu bateko isilaldia, bertso bat kantatu eta sirenak piztu zituzten. Herritarrek ere, etxeko leihoeetatik txaloak joz esker ona agertu zioten Lurdesi. Konfinamendu garai hauetan hildakoak behar bezala despeditzeko baldintzarik ez dagoenez, «merezitako ekitaldia eta lagunengatik agurra aurrerago egiteko utzi» dute.

Bertso bat ere eskaini zioten: *Ze berri txar ta tristea / jaso dugun tamalez. / Nahi ez genuen unea / iritsi da zoritxarrez. / Taldekide bat joatea / ezin da ulertu errez. / Nahiz ta zuk nahiko zenuken / guk hau hartzea umorez. / Euskaltzalea izatez, / suhiltzailetan bolondres, / beti muxutruk laguntzen, / bueltan ezer jaso nahi ez! / Bihotz ona erakutsiz, / goiz, arratsalde ta gauzez Mila esker denagatik, / agur eta ohore Lurdes.*

Mendiko bi lote enkantean atera ditu udalak

Oihan aprobetxamendurako mendiko bi egur lote enkante publikora aterako ditu udalak, plegu itxien bidez. Etxola-Galtzaburu, Zimizke eta Errekalko parajeen dagoen 1.512,19 metro kuadroko eremuan aterako dute lehenbiziko. Aler-tzea eta pinu larizioa daude bertan, entresaka egin behar da eta hasierako prezioa 21.281,12 eurokoa izanen da. Bigarren lotea berriz, haritz amerikarrez osatua, Etxolla azpian eta Patrimonioko parajeen dago. Bertan 1.939,10 metro kuadroko eremuan matorrasa egin behar da. Hasiarako prezioa 45.911,52 eurokoa da.

Eskaintza modu presentzialean aurkeztu nahi dutenek maiatzaren 19an aurkeztu behartu dute, Goizuetako Udaltxean 9:30-11:00 ordutegian. Proposamena Correos-eko bulego batean aurkeztea erabakitzen bada, gutun-azal irekian egingo da, Correoseko langileek eskabidea data eta zigilua jartzeko, ziurtatuurretik. Gero mezu bat bidaliko da udala@goizueta.eus-era.



UTZITAKOIA

Elkarlanean elikagaiak banatzen

Gizarte zerbitzuen bidez urte osoan zehar egiten den elikagai banaketa mantendu dute alarma egoerak iraun bitartean ere. Goizuetako suhiltzaile boluntarioak, gizarte zerbitzuetako langileak eta laguntza sarekoak izan dira banaketaz arduratu direnak.



UTZITAKOIA

Beheko landako lanak bukatu dituzte

Martxoan bukatu zituzten pabimentazio lanak eta azkenean 159.842,89 euroko kostua izan dute (aurreikusitakoa baino 11.246 euro gehiago). Izan ere zati gehiago pabimentatu eta gerora ur-saneamendua erraztuko duten lan batzuk egin dituzte, hala nola, hornidura-hodi berria Santa Maria auzoraino eramatea.

Kultura isiltzean aditzen delako

Guztira 1.169 kultur eragilek bat egin zuten apirilean egindako greba digitalarekin. Horien artean eskualdeko sortzaile, antolatzaile eta bitartekariak bildu ziren

N. BAZTERRIKA

Euskal kultur gileek, sortzaileek, antolatzaileek eta bitartekariak, apirilaren 21ean eta 22an, *ikus gaitzazuen desagertuko gara entzun gaitzazuen isilduko gara* goiburupean greba egin zuten.

Pandemiak eragindako itxialdi egoeraren ondorioz, kultur ekitaldiak bertan beheiti gelditzeak «larrialdia areagotzea» eragin zuela ikusita, «egoerak dirauen bitartean eta etorkizunear» neurriak hartzeko proposamena egin zuten. Aitzitik, udal batzuek salbu, gainontze-koek eskaerari muzin egin zieten ikusita, indarrak batu zituzten.

Guztira 1.169 eragilek bat egin zuten gogoeta eta eztabaida soziala eragiteko, premiazko neurriak eskatzeko eta euskal kultur gintzaren ekosistema osatzen duten guztien topaketa antolatzeko lanean hasteko deialdiarekin.

«GUTXI BATZUK BAKARRIK BIZI DIRA MUSIKA SORTZETIK»

AITOR ZABALETA ALDUNTZIN

«JENDEA ESKAINTZEN ZAIEN ZERBITZUAZ KONTURATU DA»

IDOIA SOBRINO LOPEZ

«BERTSOLARITZAREN EDERRENA HERRIZ HERRI IBILTzea DA»

JOANES ILLARREGI MARZOL

Gogoeta soziala bultzatu

Etxealdian, sarean eta hedabideetan kultur ekimenak «eten-gabe» zabaltzen ari direla baliatuz, horiek babesteko deia egin zuten: «kultur esperientziek munduan leku bat egiten, barne-mundua elikatzen, zentzuaren eraikuntza laguntzen, mundua ulertzen, trukea sustatzen... eta, batez ere, komunitateko kide sentiarazten gaituztelako. Hizkuntzak egiten gaitu pertsona, kulturak herritar».

Hala, konfinamenduan parte-hartutako materialaren truk, herritarrei euskal kultur gintzari ematen dieten «balioaz, garrantziaz, kontsumoaz, prekaritateaz eta lan baldintza kaxkarrez» hausnartzeko eta gogoeta egiteko deia egin zieten.

Neurriak hartzea eskatu

Pentsatzetik ekitera, «larrialdiak eraginen dituen kalteei erantzuteko neurriak» ere eskatu zituzten «Euskal Hirigune Elkargoari, Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundieiei, udalei eta bertzelako erakundeiei». Neurriak hartzeko ez ezik, «epe ertain eta luzerako proposamenak» egitea eskatu zieten.

Kultur elkargunea antolatu

Azkenik, «kultur gintzaren ekosistema osatzen duten eragileei», egoerak ahalbidetzen duenean, «topaketa edo bilera» bat egiteko eta antolatzeko deia luzatu nahi izan zieten: «gabezia eta beharrei erantzuteko zer egin proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko».

Argi dute Covid-19ak kultur gintzaren eraginen dituen kalteei erantzuteko «eredua errotik eraldatzea» dela bidea.



16 bat urte zituenetik musikagintzan murgilduta dabil Zabaleta.

«Aurtengo kontzertuak galdutzat jo ditugu jada»

AITOR ZABALETA ALDUNTZIN MUSIKARIA (LEITZA)

Dei batek ireki zion eszenatokirako bidea Aitor Zabaletari (Leitza, 1975). Aurretik lagunartean musikan ibilia bazen ere, «1995ean» eman zuen etxetik plazarako pausoa: «Xabi Solanok deitu zidan eta Etxakit taldea sortu genuen». Barru-barrutik ezagutu ditu 25 urteotan musikagintzan izan diren aldaketak. «Kontsumo nahiz sorkuntzarako teknologiak izan duen garrantzia handia eta Internetez klik batean dena eskuratzeko erraztasuna»

izan dira nabarmenenak bere ustez.

Gaur gaurkoz, musikariak «orokorrean, egoera ezegonkorra» bizi dutela eta «instituzioek ez dituztela kontuan hartzen» uste du Zabaletak: «sekula ez dugu egun bat pasatu musikaririk gabe, ohartzen ez bagara ere hor dago».

Dena den, «musika sortzetik gutxi bizi dira, askok bigarren lan batekin osatzen dute euren soldata eta beste batzuek ezin dute aurrera egin eta uztera derrigortuak daude».

Gehiago ere bada. Zabaletaren ustez, «musikariaren egoera berean daude aktore, idazle eta kultur gintzaren dabilzanak». Horren aurrean, saretzearen garrantziaz ere mintzatu da: «gizarteak musika babestea nahi nuke eta instituzioek musikariak kontuan hartzea, erreminta legalak eta baldintza onak izan ditzaten».

Musikaren presentzia eta laguntzen arteko arrakala handiagoa da koronabirusak eragindako itxialdi garai honetan. Izan ere, «kontzertu guztiak bertan behera gelditu zaizkigu». Leitzarrak, esaterako, «bi proiektutako 50 bat kontzertu» utzi behar izan ditu eta horrek «datozen hilabeteak eta hurrengo urtea birplanteatzea» eragin dio: «guk ez dugu laguntzarik izanen eta aurtengo kontzertuak galdutzat ematen ditugu jada».

Ez kontzerturik, ez talde entsegarik: «ezin gara elkartu eta dena geldiarazi digu». Etxetik etxera ailegatzeko irabazirik gabe lanean ari dira: «bideoak grabatzen ari gara eta laister gure sare sozialetan ikusgai egonen dira. Jendeak hori estimatzen du...».

Guztiaren ginetik, «zorionekotzat» du bere burua: «beste lan bat ere badut eta lanean ari naiz. Taldekide asko bigarren lan hori gabe gelditu da eta egoera ez da samurra».

«BI PROIEKTUTAKO 50 BAT KONTZERTU UTZI BEHAR IZAN DITUT»



Nafarroako Liburuzainen Elkarteko (ASNABI) kidea da Sobrino.

«Instituzioek beti azken tokian uzten gaituzte»

IDOIA SOBRINO LOPEZ LIBURUZAINA (ELIZONDO)

«Gure kultura zaintzeko eta gainontzekoen berri emateko» nahia gidari, «adin, genero, klase, arraza, jatorri... guztientzako topagune» diren liburutegietan lan egiten du Idoia Sobrino Lopezek (Elizondo, 1984). Urte dezente daramatza horretan, eta «liburutegi mota guztietan» aritu izan da: «eskola liburuzain ez ezik, hiru liburutegi unibertsitariotan, lau publikotan eta liburutegi espezializatu batean egin dut lan».

Gaur egun, Nafarroako


Liburuzainen Elkarteko (ASNABI) lehendakaria da eta, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideekin batera, bertzeak bertze, «dirulaguntzak eskatzeaz, kontuak kudeatzeaz, altak eta bajak kudeatzeaz...» arduratzen da.

Ongi ezagutzen du liburutegien egoera, eta laguntzak «eskas» direla argitu du: «instituzioek beti azken tokian uzten gaituzte. Politikoki ez da zuzena liburutegi bat ez duzula babestu behar erratea baina hor daude eskola liburutegiak liburuzainik gabe, publikoak liburuzain bakarrarekin, ordu-tegi murriztekin... Liburutegi publikoei, adibidez murrizketen garaian aurrekontuaren %93a murriztu zitzaizen». Pixkanaka egoera hobetu bada ere, «krisi aitzineko kopuruetara» ez direla ailegatu gaineratu du: «eta horiek ere baxuak ziren».

Eskasiaren lekuko, liburuzainek egiten duten lan ikusezina ageriko egin digu Sobrinok: «materiala aukeratu, katalogatu, zigiluak jarri, materiala itzuli ez dutenei deitu, txartelak egin, fakturazioa, jardueren egutegia prestatu, herriko elkarteekin bilerak egin...». Eta horretarako «egunean, aunitz jota, ate hetsitan lan egiteko ordu eta erdi izaten dugu. Kasik denbora hori behar du aitzineko eguneko materiala bere tokira bueltatzeko».

Liburutegiek kulturgintza sustatzeko «erabateko ekarpena» egiten dutenez gero, «garrantzitsuak» direla gaineratu du elizondoarrak: «baliabide egokiak izanez gero dokumentuak erosit eta jarduerak antolatuz mila gauza egin daitezke». Ez dago falta sumatzea bezalakorik estimatzeko eta konfinamenduak horretarako bide eman die herritarrei Sobrinoren ustez: «jendea aspalditik eskaintzen zaien zerbitzuaz konturatu da orain eta hori positiboa da, herritarrak eskatzen hasten direnean gauzak aldatzen direlako».

«LIBURUZAINAK ORDU ETA ERDI DU ATE HETSITAN LAN EGITEKO»



Plazetan bertsoan aritzeko gogoz dago Illarregi. E. IRAOLA

«Kulturgintzatik bizi direnak babesteko egin nuen greba»

JOANES ILLARREGI MARZOL BERTSOLARIA (LEITZA)

Bizi erdia baino gehiago darama Joanes Illarregik (Leitza, 1999) doinu eta errimak lotzen. Bertso eskolatik herriko plazara eta hortik eskolarteko sariketara eman zituen lehen-dabiziko pausoak. Orduetik, hamaika plazatan ibili da eta «bertsolaritzaz eta bere alderdi guztiez gozatzen» segitzen du.

Herri batetik bestera ibiltzeak «lekuak eta jendea ezagutzeko, txikitatik miretsi

dituzun bertsolariekin kantatzeko, beste kulturgile batzuekin elkarlanean aritzeko, parrandarako...» aukera eman dio. Aurtengo uda, ordea, ez da espero bezalakoa izan, bertso eskolarik ez izateaz gain, bertan behera gelditzen diren herriko besten barne, bertso-saioak ere galdu direlako: «saioaren bat baneukan lotuta eta bertan behera gelditu da». Herriaren bihotza diren plazak itzaltzea izan da «oke-rena» Illarregirentzat, «bertsolaritzak zerbait ederra badu herriz herri ibiltzea, bertso bazkariak, udako jaialdiak... direlako». Dena den, esperantza ez du galdua eta «ekain eta uztailen ez baina abuztuan saio batzuk egiteko aukera egonen dela pentsatu nahi dut».

Bien bitartean, plazen hutsa pantailek betetzeko lanean aritu dira: «Etiket etxera izeneko ekimena martxan dago, itxialdiaren hasieratik astero bertso saio bat entzuteko aukera ematen duena». Bertsozaleen gozagarri den egitasmo horretan «pare bat aldiz» kantatu du bertsolariak. «Momentuko egoerari erantzun bat emateko» ideia ona dela uste duen arren, «luzera begira errepikakor samar» gerta litekeela iruditzen zaio. Are gehiago, «bertsolariak lanean segitzea suposatzen du ordain ekonomikorik gabe». Ez da egin duten ekarpen bakarra izan: «Bertsozale Elkartea eta Lanku ere platotik zuzeneko bertso saioak eskaintzen hasiak dira...».

Beste behin, herriaren ondarea helarazteko lan handia egin dute bertsolariak eta gainerako kulturgileak eta trukean bizkarra eman diete instituzioek: «kultur esparrurako eta horretaz bizi direnentzako neurririk ez dute hartu». Bere kasuan, greba «elkartasun keinu bat» izan zen, «kulturaltik bizi den jendea dagoelako eta diru-sarrerarik gabe gelditu delako».

«ORDENAGAILU AURREAN ABESTEA EZ DA GUZTIZ EROSOA»



P. FEO

Egoera berrira ohitzen

Hutsik egon diren kaleetan hasi da pixkanaka mugimendua nabaritzen. Oinarrizko produktuak saltzen dituzten saltokiez gain, hasi dira irekitzen bestela komertzioak ere. Hori bai, denetan segurtasun eta garbitasun neurriak zorrotz betetzen ari dira. Egoera berrira pixkanaka ohitu behar...

Erraldoi eta buruhaundien konpartsako kide izateko aukera

TTIPI-TTAPA

Leitzako konpartsan Udalak erositako bi erraldoi berri gehituko dituzte aurten. Hala, lau erraldoi eta zazpi buruhaundik osatuko dute konpartsa handia. Erraldoi berri hauek, aurrekoak baino arinagoak izanen direla azaldu dute, 40

kilo ingurukoak. Horrela, erabilera zabaldu eta jende gehiagori erraldoiak dantzarazteko aukera eman nahi diote. Hemezortzi urtetik gorako gizon eta emakumeei egin diete deialdia. Animatzen denak leitzakokonpartsa@gmail.com idatzi behar du.

Udako haur txokoa eta tailerrak bertan behera gelditu dira

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Euskara Mankomunitateak eta Leitzako Udalak eman zuten martxoaren 5ean erabakiaren berri. Esku artean duten informazioa eta egungo egoera ikusita, jarduera hauek egin ahal izateko beharrezko «berme eta ziurtasunik» ez dagoela uste dute. Gaineratu dute «ez dela modurik izanen eskaintza duin eta egoki bat egiteko eta indarrean dagoen osasun krisi honek zehurtziaz jokatzeko eskatzen digu».

Itxialdiaren memoria bilduko dute

«Etorkizuna guztiz aldatuko duen momentu historikoa» bizitzen ari garela iritzita, udalak hilabete hauetan herritarrek bizitako esperientziaren bilketa lana egin nahi izan du, ikuspuntu historiko, antropologiko eta gizatiar batean oinarritutako bilduma osatuz. Horretarako hitzarmena sinatu zuen martxoaren 6an Labrit Ondarearekin. Hauek izanen dira bilketa lana hori egin, ondare hori babestu eta transmisioa bermatzeko lanaz arduratuko direnak.

Larunbatero baserritarren azoka izanen da plazan

Baserritik etxera dinamikari segida emanen diete horrela eta salmentarako bide berria ere izanen dute

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 21ean Nafarroako Gobernuak salmenta zuzenerako neurriak malgutu izanak salmenta bidea egokitzeko aukera eman die Leitzaldeko baserritarrei. Hala, maiatzaren 9tik aurrera Baserritik etxera dinamikak salmenta bidea aldatu du. Orain arte bezala katalogo bat osatuko dute, hila-betero berrituko dute eta astero egingen dute produktuen eskaintza, baina ostiraletan etxeetara banatu beharrean banaketa larunbat goizetako Leitzeta eta Aresoko ekoizleen

azokan egingen dute. Plazan izanen da 10:30etik 12:30era. Gainera, erreserbatutako produktuak jasotzeaz gain, momentuan bertan salerosketarako aukera izanen dute. Honetaz gain, orain arte bezala, erosle eta baserritarrak ere adostu dezakete beraien artean beste bide bat.

Ostiraletako azoka ere martxan


Ostiraletako azoka ere hasi dira egingen, baina elikagaiak saltzen dituztenek bakarrik dute postua jartzeko aukera.

«Baserritarren sektorea indartzen saiatzea eta hobetzen jarraitzea da gure egitekoa»

MIKEL ZABALETA

LEITZAKO ALKATEA

Alarma egoerarekin agerian gelditu da Mikelen ustez «eredu jasangarriak eta osasuntsuak garatzea ezinbestekoa» dela. Argi dute hori dela udalak landu beharreko bidea: «badakigu hondoratuta dagoen baserritarren sektorea indartzeko bide luzea egin beharko dugula eta batzuetan ez dugula asmatuko, baina aurrerapausoak ematen saiatu behar dugu». Baserritik etxera dinamika da ongi emandako pausoen adibide: «elkarlanaren emaitza izan da eta lortutako arrakasta handia izan da». Dinamikaren funtzionatzeko modua aldatuta, pauso bat haratago emanen dute eta azoka gelditzeko datorrela uste du: «ez dakigu denborarekin erreferentziazkoa izanen den, baina uste dut kontsumitzaileok gero eta gehiago bilatzen dugula bertako produktua, sasoiak eta naturala. Hori horrela bada, baserritarren azoka honek indartzen joan beharko luke eta, agian, eskualdeko beste ekoizleentzat ere aukera bat izan liteke».



Mikel Zabaleta.



Kristina Saralegi, Leitzako Arro baserrikoa. UTZITAKOIA

«Jendea baserritarrak eskainiko duenaren zain dago»

KRISTINA SARALEGI LEITZAKO BASERRITARRA ETA BASERRITIK ETXERAKO PARTAIDEA

Garai berrietara egokitu eta ikuspegia aldatzeko bidea eman dio Baserritik etxera dinamikako parte izateak, «argi dago, zerbait nahi duenak ahalegina egin behar duela»

E. IRAOLA LEITZA

Alarma egoerak plazak itxi, baina bide berriak ireki dizkie Leitza eta Aresoko hainbat baserritarri. Tartean, Arro baserriko Kristina Saralegiri. *Baserritik etxera* dinamikaren parte izan da hasieratik eta ordura arte saldu izan ez dituen hainbat produktu salgai jarri edota eskaintza egokituta, merkatua badela ikusi du. **Ekoi zela bezala zer eragin izan du zuretzat Baserritik etxera dinamikaren parte izateak?**

Sortu den egoera berri honekin ez atzera ez aurrera gelditu ginen eta aurrera egiteko ate bat ireki digu *Baserritik etxera*. Taloak saltzen ibiltzen ginen plazaz plaza eta festarik ez

bada, bide hori guztiz itxia dugu. Gainera, taloa momentuan jaten den zerbait da, etxera eramateko eskatzen zutenak gutxi ziren. Orain erdiak maskarak jantzita dabilta, zer hasi behar dute maskarak kendu eta taloak jaten? Guzti hau lehertu zenean, negozio berri bat martxan jartzekotan ginen. Taloak enbasatzeko lantegi bat osatu dugu eta noiz hasi erabakitzen ari ginen. Behar genuen bultzada eman digu, honi esker Leitza saltzen hasi gara eta gustura gaude jasotako erantzunarekin. **Aurretik saltzen ez zenituztenak ere salgai jarri dituzue.**

Baserritik etxera dinamika sortu zenean, salgai zer jarri

behar nuen pentsatzen ari nintzenez, argi ikusi nuen: 'daukadana jarriko dut salgai, alperrik bada ere!' Enbasatutako taloez gain, garai bateko hazia ereinda lotutako artoa, etxeko errotan egindako arto irina, antzara arrautzak, oilo arrautzak, kalabaza, banabarrak, etxeko txistorra... salgai jarri eta nire harridurarako uste baino erantzun hobea izan genuen. Baserritarrek

BADIRUDI JENDEA ERE BERTAKOARI BALIOA EMATEN HASIA DELA

askotan pentsatzen dugu norbaitek guk dugun zerbait nahi badu badakiela non gauden, etorriko dela edo deituko duela. Pentsamendu horretan bizi izan gara eta orain ikusi dugu dinamika honekin eroslea etorri zain egon gabe, guk eskaini behar ditugula gure produktuak. Jendea baserritarrak eskainiko duenaren zain dagoela.

Beraz, herritarren erantzunarekin gustura zaudete?

Oso gustura. Lortu den guztia elkarlanaren emaitza izan da, eskerrak eman beharra dago udalari, zinegotzietan, kontsumo taldeko kideei, boluntario aritu diren guztiei eta erostera animatu direnei. Orain dinamikaren funtzionatzeko modua aldatuko da. Herritarren eskaerak jaso eta larunbatetan plazan banatuko ditugu. Jendearentzat errazago zen akaso etxean jasotzea, baina horrek boluntario askoren lana eskatzen zuen eta ezin zitekeen betiko horrela segi. Orain ikusi beharko da jendeak nola erantzuten duen.

Garai berrietara egokitzeko ahaleginean ari zarete baserritarrak...

Lehen denda edo ferian saltzen zenuena, bukatu da. Etxez etxeko zerbitzua da iraun duen bakarra. Tabernetara saltzen zuena ere aukerarik gabe gelditu da. Dendetan ongi ari dira saltzen, tabernan jaten ez duenak etxean jaten baitu. Gure lan egiteko modua aldatu da, baina badirudi jendea ere bertakoari balioa ematen ari dela. Egia esan, bazen garaia! Ez du zentzurik zakurraren ipurdiko soja nahiago izateak bertako artoa edo garia baino...

Bertakoa bultzatzeko politikak ere beharrezkoak izanen dira.

Bertakoa bultzatu eta baserritarrei ez bazaie laguntza ematen, hau guztia akabo da. Ez dakit goiko horiek nora begira dauden. Beti hirian sartuta ote dauden edo... baina hirietako lorategiak ez badira zaintzen eta mozten, han ere lapaitzak eta larrak ederki aterako lirarteke.

«Eraikina lapurtuko badigute ere proiektuak bizirik segituko du»

JONE LOZANO MIRANDA-TORREAKO KIDEA

Espainiako Auzitegi Nazionalak apirilaren 16an enbargatu zizkion kontu korronteak Torrea Elkarteari, «hurrengo kolpea ondasun materialak jabetzan hartzea» izanen dela ohartarazi dute

E. IRAOLA LEITZA

Hemezortzi urte bete dira *Herriko Tabernen* auzia hasi zenetik, «ziurgabetasun handiko urteak» izan direla aitortu digu Jone Lozano Miranda Torreako kideak. Proiektuari bizia emateko «herritarrek ahalegin handia» egin dutela azpimarratu du eta orain arte ezagutu dugun bezala Torrea azken lerroak idazten ari dela dirudien arren, nabarmendu du herritarren esku dagoela «proiektuari segida ematea, gaurkotu eta freskatzea».

Nolakoak izan dira azken bost urteak?

2002an hasi zen operazio juridiko, politiko eta polizial hau eta geroztik elkarrearen zuzendaritza, langileak eta espazioa bera mehatxu iraunkor baten pean bizi izan gara, baita proiektu honi bizia emateko ahalegin handia egin duten herritar guztiak. Hemezortzi urte dira Torrearen soinean motxila oso astuna daramala: operazioaren ondorengo kriminalizazio eta jazarpenak eragin negatiboa izan du eta prozesu judizial amaigabe honek langileen eskubide nahiz ongizatean eta espazioan egin beharreko inbertsioak baldintzatu ditu. Egia da Auzitegi Gorenak 2015ean sententzia definitiboa kaleratu zuela, eta bertan proiektuaren lokala konfiskatzea agindu zuela. Hemezortzi urte mehatxupean zailak izan badira ere, azken bostak 'bihar etor daitezke' esaldia ahoan izan dugula pasa

ditugu. Eta oso gogorra da horrela funtzionatzea ikuspegi guztietatik!

Mehatxua egia bihurtzera doa...

Covid-19ak etxean gauzkala etorri da kolpea. Argi dago jokaera koldarra dela, izan ere gure osasunarekiko kezka eta izua azken mugetaraino eramane duen krisi hau baliatzen ari dira konfiskazioa exekutatzeke. Honek Espainiako estatuaren maila morala erakustez gain, haren gabeziak agerian uzten ditu: 101 Herriko Taberna lapurtu behar ditu, bai, baina herri honen erantzunari beldur dela dio. Eta horrek herri honen indarra erakusten du.

Kontuak izozteak zein egoeratan utzi du elkarteak?

Teknikoki kontuak izoztuta zeuden 2003tik. Guk kontu bakarra genuen, eta orain izoztuta zegoen kontu hori diruz hustu dute, beraz elkarrearen ondasun likidoaren gaineko enbargoa exekutatu dute. Baina bertan lau sos baino ez zeuden. Edonola ere kontu korronte horretan lau sos egotearen prezioa ere 18 urtez ordaindu du Torrearen, izan ere funtzionamendua ez dela normala izan esan dezakegu. Ordainketa guztiak guk egin behar izan ditugu eta automatikoki egin zitezkeen guztiak egitera ere norbaitek joan behar izan du banketxera edo komertzioz komertzio.

Torrearen langileen soldatak, gastu finkoak... nola egin aurre?

Taberna baino gehiago

Torrea eskualdean eta bereziki Leitza bete duen papera azpimarratu du elkartearen kideak: «ez dezagun ahaztu kuneteroen Nafarroan gaudela, eta hemen edozein identitate garesti ordaindu izan dugula historikoki. Baina duela 30 urte komunitate batek errealitate gordin horri aurre egiteko Torrea bat amesteari eta sortzeari ekin zion». Hogeita sei urte igaro dira Torrearen ateak ireki zituenetik eta urtez urte «hamaika koloretako borrorak» eraiki dituzte pareta horien artean, «Euskal kulturaren eta balore ezkeriarren gotorleku bilakatu dugu. Eta gure ustez Leitza dagoen ehun sozial indartsu, anitz eta zabal hori ezingo litzateke ulertu Torrea gabe». Azpimarratu dute Leitza deko eragile askok erabili izan dutela Torrea azpiegitura bezala: «euren bileretarako, euren materialak uzteko, euren ekimenetarako behar zituzten gauzak hartzeko baina ez hori bakarrik, Torrea herriari lotuta dagoenez mugimenduen bultzatzaile ere izan da, besteak beste laguntza ekonomikoa ere emanez. Leitza mugimenduan dagoen herria izan dadin lan egin du Torrearen».

Momentu honetan Torrearen matematikariak baino ekuazio konplikatuagoak egiten ari garela uste dut. Espainiako estatuaren erasoari, Covid-19ak sortu duen muturreko prekarizazioa gehitu behar zaio. Estatuak Torrearen ondasun materialen gaineko dekomisioa exekutatzen duen bitartean kezka bat dira gastuak, bai. Leitza deko edo Euskal Herriko gainerako tabernariak izango dituzten kezka berberak izango direla uste dut: nola egin aurrera egoera honetan? Esan daiteke, orohar gure eskualdeko ostalaritzak oso baldintza zailetan irauten duela. Esfortzu eta sakrifizio handiarekin, errekonozimendu eskasarekin, eta lan-sari prekarioekin... Hau da gure eskualdean ostalaritzak bizi izan duen normaltasuna. Baina herritarrek pentsatzen hasi beharko lukete tabernarik gabe herriko bizitza nolako litzatekeen; herriko pesta eta parrandak nolakoak izango liratekeen, lagun artean elkarren berri izan edo planak egiteko non elkartuko liratekeen... Jurnal handienak ere alferri izango dira herritarrek biltzeko espazioak ixten badira. Herria gure kulturaren iraupenaren subjektu bezala, zaintzea dagokigu, eta horren baitan herriko ostalaritza.

Torrearen etorrira, 26 urtez zabalik mantendu dugu gure altxorra, denon artean eraikitzen joan garen gotorlekua. Hau posiblea izan da neurri handi batean langileen esfortzu izugarriari esker, baina baita Torrearen duen sare humano zoragarri horren ondorioz ere, eta noski determinazio politikoagatik. Torrearen herriaren alde lan egiten segitzen du.

Zein izan daiteke hurrengo pausoa?

Ba lehen aipatu bezala apirilaren 16an Torrearen elkarrearen ondasun likidoarekin geratu zen Estatu espainola. Haien hurrengo urratsa elkarrearen



Jone Lozano Miranda Torreako kidea.

ondare materialarekin geratzea izango da, ematea falta zaien azken urratsa da, arrazoiak dauzkagu pentsatzeko amaieraren atarian gaudela dagoeneko.

Zer gertatuko litzateke eraikinarakin? Enkantean aterata izanen luke herriak berriro erosteko aukerarik?

Ba auskalo zer egiten duen Espainiako estatuak lokalarekin. Momentuz ikutzen duen oro usteltzen zaiola besterik

**«AZKEN URTEAK
'BIHAR ETOR
DAITEZKE' ESANEZ
EMAN DITUGU»**

**«OSO ZAILA DA
HORRELA FUNTZIO-
NATZEA IKUSPEGI
GUZTIETATIK»**

ez du erakutsi. Ez dezagun ahaztu Torrea elkarteak bi solairu dituela: behekoa, taberna, denontzatezaguna dena eta zabalik dagoena. Eta goiko solairuan txokoa, egoitza, eta Torrearen biltokia. Goiko solairua itxita daukate 2003az geroztik. Gure galdera da: nola egongo da lokal hori 18 urtez itxita egon ondoren? Ustelduta! Izan ere hortxe dago afera honen beste ertz bat: 2003an operazio mediatikoa jarri zuten martxan. Mehatxatu, jartzu eta zapaldu gaituzte... eta 18 urte hauetan Torrearekiko kontrola eramateko idazkari judicial bat izendatuta egon da, baino inortxo ere ez da etorri ezer galdetzera. 18 urtez ziurgabetasunaren desertuan egon gara, baina zutik eta herriarekin lanean!

Kinielak egiten hasita, posiblea da enkantera ateratzea bai. Ez dakigu ordea ze epetan, izan ere baliteke hilabete gutxi batzuetan izatea, edo urte batzuen buruan. Behin en-

kantera aterata eta herriak berriro erosi nahiko balu, noski aukera izango lukeela baino oso adi egon beharko luke. Edonola ere, badauzkagu beste lehenetasun batzuk gaur gaurkoz eta ez gaude ez gaude aukera hori aztertzen, esan bezala kiniela bat delako. **Ze bide ari zarete lantzen? Legeak badu zirrikiturik?**

Ez dago zirrikiturik ez eta errekurso aukera gehiagorik ere, sententzia definitiboa denez exekutatzeko besterik ez da falta. Peripezia juridiko-politiko bat bada ere, elkarte guztiz legal bati bere ondasunak kentzea, horrelaxe da, gordina. Eta egingo dute! Kontuan izan behar dugu Francok egindako ondare lapurretaz geroztik

**«MUGIMENDUAN
DAGOEN HERRIA
IZAN DADIN LAN
EGIN DU TORREAK»**

emango den konfiskazio handiena dela (eliza egiten ari den inmatrikulazioena ikusteke dagoen arren). Edonola ere guk proiektuari ematen diogu garrantzia. Torrean gauzatzen bada ere, proiektua da lokalaren esentzia. Eta hori da estatuak akabatu nahi izan duena behin eta berri: proiektua. Herritik sortu zen proiektu bat izan delako, eta herriarentzat lan egitea izan duela xede. Euskal Herri euskaldun eta justu baten norabidean lan egin duen espazio aske eta askatzailea. Hamaika kolorez jantzi duguna denon artean: berdea, horia, morea, gorria, urdina, laranja ezberdinez bete...

Zein da zabaldu nahi duzuen mezua?

Badirudi Torrea bere historia- ren, orain arte ezagutu dugun bezala behintzat, azken lerroak idazten ari dela. Utziko duen hutsunea handia izango da, eta ziurrenik ez gara konturatuko ze nolakoa izango den haren tamaina itxiera iritsi eta denbora bat igarotzen den arte. Nabarrituko dugu, maila pertsonalean zein kolektiboan. Baina, gure ustez, altxorra proiektua da, gure esku dago proiektuari sedita ematea, gaurkotu eta freskatzea. Bizitzak eta herriak zentroan jarri behar ditugu orain arte bezala, izan ere Torrean garatu den proiektuak 26 urtez herria izan du ardatz. Eta harro gaude!

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu urte guzti hauetan proiektua sustengatu duten herritar guztiei. Haiek gabe, zentzua galduko zukeen eta gainera ezinezkoa litzateke itsasontzi hau honaino ekartzea. Ez dugu ukatuko ordea, haserre, amorru eta inpotentzia handiarekin bizitzen ari garela une hauek, baina baita neke puntu batekin ere, ez baitira alferrik pasa 18 urte mehatxupean.

Torrearen balioa ez dago paperetan. Torrea gurea baita! Herriarena! Eta erakutsiko dugu!

Baztandarren Biltzarra bertan beheiti utzi dute

«Hausnarketa urtea» izanen da aurtengoa eta boluntario sarea osatzeko baliatuko dute

TTIPI-TTAPA

Covid-19 birusa dela eta, Baztandarren Biltzarra elkarteak aurtengo besta bertan beheiti utzea erabaki du. Adierazi dutenez, «egoerak hala behar-tuta» hartu dute erabakia eta 2020an Baztandarren Biltzarrik ez dela izanen jakinarazi dute: «ez da erraz hartutako erabakia izan, baina, egungo egoera ikusirik ezinezkotzat jo dugu egun honen antolaketa».

«Hausnarketa urtea»

Bestarik ez denez izanen, «hausnarketa urtea» izanen dela jakinarazi dute, «elkartea ez baita une goxoak bizitzen ari». Egoera horri buelta emateko eta egun duten «lan karga handia» saihesteko, lan-sare bat sortzen ari direla argitu dute.

Hala, «bestarik antolatuko ez den arren boluntarioak biltzeko ekimenak martxan segituko du». Horrekin, «baztandar guztien prestutasuna» ikusi nahi dute: «hori ere 2021eko Baztandarren Biltzarren antolaketarako ezinbertzekoa izanen da».



Baztandarren Biltzarrik ez aurtengoa.

Keinuren bat egiteko ideia mahai gainean

Ospakizun handia egitea ezinezkoa den honetan, elkarteak «urte bukaeran seinaleren bat egiteko ideia mahai gainean» paratu du. Oraindik, ordea, ez dute aitzineratu nahi izan: «aitzinerago etorriko dira etorri beharreko albisteak».

Akitzeko, elkarteak «sukaldari, zerbitzari, musikari, teknikari, dantzari, artisauek, herritar, garbitzaile, komertzio, laguntzaile eta bidean atzundu ditugun lagun guztie» eskerrak eman nahi izan dizkie: «Zuek gabe besta honek ez luke duen distirarik izanen. 2020koa ezinezkoa izanen bada ere, 2021ekoa ahaztezina izanen da!».

Berroetarrek ere herriko bestak ezin izanen dituzte ospatu

TTIPI-TTAPA

Ilusioz eta gogotsu aritu dira maiatzaren 29tik ekainaren 1era bitarte ospatzekoak ziztuzten bestak antolatzen lanetan berroetarrek. «Hondarreko momentura arte» esperatu duten arren, azkenean, bertan beheiti utzi behar

izan dute. Aukera dutenean, «herrikoendako bederen» zerbait antolatuko dutela jakinarazi dute. Bestak ez ezik, maiatzaren 10ean egitekoa zuten Mendi Maratoi Erdia ere gibelatu behar izan dute: «irail aldera aldatzea pentsatzen ari gara baina ez dugu zehaztu».



Itxaropentsu dago Alaitz Arretxea. UTZITAKOIA

«Ez dut sinetsi nahi bestarik gabeko urtea izanen denik»

ALAITZ ARRETXEA ETXEBERRIA BERROETA

Guztien artean eta guztientzat. Horrelaxe antolatzen dituzte bestak Berroetan. «Otsailean edo martxoan» biltzen dira lehendabizioz eta «herritar bakoitzaren lanak zehazten» dituzte, «hurrengo batzarrerako» egin dituzten: «bakoitzak bere lana izaten ditu: musika, ostatua, ekitaldiak, otordua...».

Berriki arte horretan aritu dira herritarrek, baina «konfinamendua luzatzen ari

zela ikusita» ez ospatzea erabaki dute. «Hondarreko momentura arte» esperatu dute, «jende kopuru aldetik ez direnez handiak libratuko ginela uste genuen-eta» aitortu digu irri artean. Ailegatzeaz zirela ikusita, ordea, bertan beheiti utzea erabaki eta hitzartutako ekitaldiak ezeztatzen deiak egiten aritu dira: «ezetz erratea pena izan da baina deituko diegu berriz ere».

Oraingoz ez, baina aitzinerago bilatuko dute bestarako gogoia asetzeko modua. «Uzten diguten momentuan» bertan hasiko dira astebururen bat bilatzeko lanetan eta «herrikoendako bederen» zerbait antolatuko dutela argitu du: «egindako lanak planifikatzeko balioko digunez, lan hori egin izanen dugu!» adierazi digu. Berroetar gazteak ez luke bestarik gabeko urtea irudikatu nahi, are gehiago, «ez dut sinetsi nahi bestarik gabeko urtea izanen denik».

Orain artean, «aditu dudanagatik, Berroetan beti ospatu dira bestak» eta horrela ez izateak «pena» eragiten dio: «pentsa, sanmartinak izatetik mendekosteak ospatzera pasa ziren urtean sei hilabeteko tartean bi aldiz ospatu zituzten».

Ez dira bestak bakarrik gogoan dituenak: «maiatzaren 10ean egitekoa zen IV. Mendi Maratoi Erdia, gure bertze plan aunitz bezala, gibelatu behar izan dugu». Izen-emate kontuak Herri krosa erakundeak kudeatzen dizkiela argitu du Arretxeak eta alde horretatik ez dute aparteko lanik izan: «erakundea bera izan da kirolariekin kontaktuan jarri dena, ospatzerik izanen ez dugula erran eta ordaindutakoa bueltatzeko». Datari dagokionez, berriz, «nahiko positibo» direla eta «irail aldera aldatzea» pentsatzen ari direla aitortu digu, «nahiz eta oraindik ez dugu deus zehaztu».

Ortzeguneroko merkatua berriz ere martxan da Elizondon

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 30ean, hondarreko ortzegunean, ekoizle eta saltzaileekin elkarlanean, aste-roko merkatua berriz ere martxan jarri zuen Baztango Udalak, koronabirusak eragindako osasun krisiaren etenaldia eta gero.

Ordutik, ekoizleek, astero, Elizondoko merkatu plazako gorapeetan paratzen dituzte postuak. Momentuz, elikagaiak saltzen dituztenak bakarrik dira plazara ateratzen direnak, ortzegunetan, 09:00etatik 14:00etara. Tarte horretan herritarrek, bertaratu, ikusi eta erosteko aukera izaten dute.

Distantziak mantendu eta eskuak garbitu

Nafarroako Gobernutik bidalitako segurtasun neurriak betetzea eskatu diete herritara-



Goizez, merkatu plazan.

rrei, segurtasuna lehenetsi dadin erosle zein saltzaileen ikuspegitik. Jende oldeak ekin, pertsonen arteko distantzia mantendu, salgaietara sobera ez hurbildu, eskuak postuetan egonen diren gel eta xaboiekin garbitu eta oro har, momentu hauetan norbanakoari eskatzen zaizkion jarrera egokiak betetzea eskatu dute, merkatuak bere tokia berreskuratuz dezan asteroko jardunean.

Pandemiaren inguruan hausnartzeko ekimena abiatu du Arranbelak

TTIPI-TTAPA

Koronabirusak eragindako egoeraz hausnartzeko ekimena abiatu du Arranbelak. Horretarako, hamar galderako elkarrizketatxo bat egin die Baztango hainbat «herritar erreferentzialari». Erantzunen bidez «egoera nola bizi duten

eta zer kezka eta aurreikuspen dituzten» bildu dute. Elkarrizketak euren webgunean daude ikusgai. Momentuz, Albaro Souleren, Elurre Iriarteren, Mikel Mujikaren, Nerea Iturriaren, Gorka Larnagaren, Garazi Saroberen eta Ernesto Praten iritzia bildu dituzte.

Aisialdia natur ekintzetara bideratzeko proposamena egin du Aurkene Perurenak

TTIPI-TTAPA

Ikasturte bukaerako proiektuan Baztanen aisialdia natur jardueretara bideratzeko proposamena landu du Aurkene Perurena elizondoarrak. Bi gai jorratzen dituen lana egin du: alde batetik, naturan egiten diren kirolak ezagutu eta prak-

tikatzea; eta bertalde, natura zaindu, errespetatu eta eza-gutzea.

Horri buruzko informazioa <https://herenaisialdianaturan.blogspot.com/2020/04/> paratu du eskura. Ea noizbait idatziz bilduta duen proiektua gauzatzeko aukera duen!

DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
aprobetxatu aukerak!

<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> FOTOMENA </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %10 DESKONTUA kopia digitaletan </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55 </div>	<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> EZ </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %10 DESKONTUA produktuetan </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91 </div>	<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> BIOK BAT TAILERRAK </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %15 DESKONTUA frenoetan </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98 </div>		
<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> Gureaut TAILERRAK </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %10 DESKONTUA baterietan </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Zaldubia indus. B partz. 2. nabea IRURITA T. 948 58 02 25 </div>	<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> SANSIÑENA OITZOEN </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %5 DESKONTUA olio aldaketetan </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06 </div>	<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> ALMACO BAZTAN IGAITIA </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com </div>		
<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> begoviela ZORU PELBIKOAREN BIZKORTZEA </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %25 DESKONTUA zoru pelbiakoaren azterketan %10 DESKONTUA 10 saioko bonoetan </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Santiago 14, 3B ELIZONDO T. 636 58 30 34 </div>	<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> POSADA-ELBETE </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Karrikaundi, 2/g ELBETE T. 948 58 15 19 </div>	<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOA </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %5 DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonon </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01 </div>	<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> nafarpres liburudenda </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> %10 DESKONTUA liburu eta likas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02 </div>	<div style="background-color: white; color: #2c3e50; padding: 5px; margin-bottom: 5px;"> ARGIBEL PTIKA </div> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 10px; margin-bottom: 5px;"> ESKAINNTZA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan </div> <div style="font-size: 0.8em; color: white; margin-bottom: 5px;"> Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91 </div>



Segurtasun neurri guztiak zorrotz betez eginen dute ekoizleen azoka. JM ONDIKOL

Baztan-Bidasoko ekoizleen azoka larunbatean

Oraingoan janari eta edateko salgaiak izanen dute baimena eta tokia, larunbatean 09:30etik 14:00etara

TTIPI-TTAPA

Maiatz hasieratik aitzinera, Baztan-Bidasoko ekoizle eta saltzaileak beraien postuekin berriz ere Elizondoko plazara aterako dira larunbatetan.

Iaz hasi zuten bide beretik, hilabete bakoitzeko lehenbiziko eta hirugarren larunbatetan, bertako ekoizle eta saltzaileek beraien produktuak plazara ateratzeko parada adostu dute Baztango Udalarekin. Hortaz, maiatzaren 16an, heldu den larunbatean, izanen dute hurrengo hitzordua, Elizondoko plazan, 09:30etik 14.00etara.

Momentuz elikagaiak bakarrik

Adostutakoaren arabera, momentuz, plazara ditzaketen salgaiak elikagaiak izan behar dira, jateko eta edatekoak. Irular mermelada, Etxalarko Okindegia, Etxetxipia Gasnategia, Ernaut 'Euskal Txerri' produktuak eta Pittika gasnategia izan ziren, hain zuzen, lehendabiziko larunbatean plazaratu zirenak.

Ekoizle ttikiek, neurriak zorrotz bete behar diren honetan ere, lanean segitzeko eta bertako biztanleei hurbiltasuna eskaintzeko gogotsu daudela erakutsi dute bertze behin.



Azken aginduen arabera, edozein ordutan egin daiteke kirola, baina ez edonon.

Norbere herrian ordutegi mugarik gabe ibiltzen ahalko dira baztandarrak

TTIPI-TTAPA

Orai bai, orai ez. Orai norbere herrian, orai udalerrira osoan. Orai adinaren arabera ordutegi zehatzen menpe, orai edozein ordutan. Horrela dabilta Baztanen azken egunetan, kirola kanpoan egiteko aukerari buruz. Apirilaren 4an bertzelako aginduak jaso bazituzten ere, badirudi oraingoan, norberaren herrian ordutegirik gabe ibiltzen ahalko direla baztandarrak, adin tarte edozein dela ere, baina norberaren herriatik kanpo ez da kirola egiteko mugitzen ahalko. Halaxe jakinarazi dute

Gobernuko ordezkarietatik, Baztango udal ordezkarietara mintzatu ondotik.

Adibidez, zigatarrak, arraioztarrak... herriko mugetatik atera gabe egun osoan ibiltzen ahalko dira, baina gartzaindarrak ez dira Otsondorot joaten ahalko. Irizpide berriak berme osoarekin eguerditik hartuko du indarra.

Irizpideak Gobernuko ordezkarietara ematen ditu, eta Baztango Udalak ohar bidez adierazi duenez, «aldaketa hauek herritarren artean sortu duten nahasmenduak jakitun gara, horregatik, sortutako eragozpenengatik eta ulerkortasuna eskatzen dugun».

Udal ordezkarietara behin eta berriz azaldu dute udalerrira berezitasuna: 5.000 bizilagun baino gehiagoko udalerrira bai, baina herri eta auzo ttikiek osatua dela.

NORBERE HERRITIK ATERA GABE ORDUTEGIRIK GABE IBIL DAITEKE ORAI

Construcciones URBALLO, S.L.
hargin lanak orokorrean

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukui luak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

NELI YANCI MAITE IRIARTE
ASEGURUAK eta INBERTSIOAK
Hurbiltasuna eta konfiantza
Santiago 72B, ELIZONDO
T. 948 58 05 04 669 32 63 33
generalielizondo@hotmail.com

LIZUN GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



GOI MAILAKO ZIKLOAK

Administrazio eta Finantzak

ERDI MAILAKO ZIKLOAK


**Administrazio Kudeaketa
Erizaintzako Zainketa Lagungarriak
Mekanizazioa**

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

**Metalezko Elementuen Fabrikazioa
Bulegoko Informatika**

LANBIDE HEZIKETA BEREZIA

Ostatu eta Garbiketa Arloko Laguntzailea



zerbitzua
euskaraz

Ikasketak euskaraz



**Metodologia aktiboekin
lan egiten dugu:
proiektu, erronka, zerbitzu solidarioa...**



**Erasmus
egiteko aukera**

Baztan Rugby Taldeak zozketa ederra antolatu du

Irabazleak Kubara bi lagunendako bidaia edo Biok Bat tailerreko tresnak izanen ditu aukeran

TTIPI-TTAPA

Kirol jarduerak bertan behera gelditzeaz gain, urtero antolatu ohi duten gaupasarik ez egiteak «kalte ekonomiko handiak» utzi ditu Baztan errugbi taldean. Izan ere, gaupasa «taldearentzat diru-sarrera garrantzitsuetako bat da». Egoerak eragindako galera ekonomikoetara aitzin egiteko, lanean ari dira orain.



Egoera hobetzeko lanean ari da BRT.

Bazkietze kanpaina eta zozketa

Lehendabiziko pausoa bazkietze kanpaina abiatzea izan zen. Hala, bazkide-laguntzaile eta bazkide-babesle egiteko gonbidapena luzatu zuten. Laguntzaileek 15 euro eta babesleek 30 ordainduz, hirugarren denboretara joateko aukera eta taldeko materiale-tan deskontuak eskaini zituzten eta interesa dutenei tal-

dekideekin harremanetan jartzeko deia egin zieten.

Berriki, bertze pauso bat ere eman dute, zozketa ederra antolatu. Kubara bi lagunendako bidaia edo Biok bat tailerreko tresnak irabazi ahal izateko zozketa-txartelak paratu dituzte salgai www.brt-menditarrak.eus web orrialdean. Zozketa txartel bakoitza bortz euro ordaindu beharko da eta zozketa ekainaren 27an egingen dute.



NAFARROAKO SUHILTZAILEAK

Lekarozko aterpea desinfektatu dute

Kutsatzeko arriskua murrizteko helburuarekin, Oronozko suhiltzaileek Lekarozko behin-behineko egoitza geriatrikoa desinfektatu zuten apirilaren 28an. Izan ere, apirilaren 12an Elizondoko zahar etxean koronabirusean negatibo eman zuten 32 egoiliar Aspaceren egoitzara lekualdatu zituzten.





- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Langabeziak gora egin du nabarmen apirilean eskualdean

%12,24 egin du gora Bidasoan eta %23,6 Leitzaldea-Larraunen, ERTEan dauden langileak kontuan hartu gabe

AITOR AROTZENA

Langabeziari buruzko apirileko datuak eman ditu ezagutzera Nafarroako Gobernuak. Herrialde osoan 6.467 langabetu gehiago zenbatu dituzte apirilean eta guztira, orain 40.442 langabetu daude erregistratuak. Martxoko datuekin konparatuta %8,2 egin du gora kopuruak, eta konparazioa joan den urteko apirileko datuekin eginez gero, igoera %24,1ekoa da (7.841 langabe gehiago aurtan).

Datuakerakusteko, Nafarroa 14 eremutan banatuta du gobernua. Saikapen horren

arabera, gure eskualdeko herriak eremu horietako bitan daude saikatuak: Bidasoan eta Larraun-Leitzaldean.

2019ko apirileko datuekin konparatuz gero, lan-kontratuaren kopurua %59 murriztu da Nafarroan.

Doneztebeko enplegu agentziak 47 langabetu berri erregistratu ditu eta, hartara, langabetuen kopurua %6,4 gehitu da otsaileko datuekin alderatuz gero. Kontuan hartu behar da datu hauetan ez daudela kontatuta ERTE espedienteekin lanik gabe gelditu diren langileak.



UTZITAKOIA

Etxealditik Euskaraldira ekimena

Alarma egoeran bizitzen ari garenean itxialdian etxetik ditugun harremanetako hizkuntza portaerak aztertu eta horiek aldatu edo finkatzeko bidean, *Etxealditik Euskaraldira* ekimena burutu da gure inguruan ere. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen den Euskaraldia prestatzeko baliagarria izan da.

Eskualdeko hilkortasuna %49 hazi da martxoan eta apirilean

TTIPI-TTAPA

Gure herrietan ere heriotzatasak goiti egin du martxoan eta apirilean, eta agerikoa da koronabirusak baduela horretan zerikusia. TTIPI-TTAPA aldizkaria zabaltzen den 27 udalerrietako datuak aztertu ditu ERRAN.EUSeK eta, kopuruaren bilakaera ikusita, nabarmena da epidemiaren arrasto beltza: birusaren hedapenak goia jo duen martxoan eta

apirilean, azken lau urteotako estatistiketan arabera espero zitekeena baino %49 heriotza gehiago zenbatu ditugu. Oraingo ezin da jakin igoera horretatik zenbat dauden koronabirusarekin lotuta, baina erakundeek onartua dute ofizialki zenbatu diren baino hildako gehiago eragin dituela Covid-19ak. Bistakoa da zenbatu gabe daudela koronabirusarekin hildako ugari.

LANGABEZIAREN BILAKAERA

Epealdia: 2020ko otsailak 29 -> apirilak 30

	Eremua	Kopurua	% Bilakaera
1	Bidasoa	78	% 12,20
2	Larraun-Leitzaldea	49	% 23,60
3	Sakana	185	% 20,70
4	Pirinioak	45	% 45,90
5	Pirinioaurrea	79	% 26,50
6	Iruñerria - Erdialdeko bailarak	336	% 26,10
7	Iruñea	3.865	% 21,60
8	Zangozaldea	46	% 11,00
9	Jurramendi	275	% 15,60
10	Lizarraldeko Erribera	7	% 0,40
11	Izarbeibar-Nobenera	102	% 17,30
12	Tafalla-Erriberri	206	% 15,90
13	Erribera Garaia	186	% 14,10
14	Ebroko Erribera	1.008	% 18,00
	GUZTIRA	6.467	

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Herriko ostatuak ez dute erraza izanen atea berriz irekitzea

ARANTXA ETA IRAIA

Maiatzaren 11tik, joan den astelehenera, aitzinera ostatuaren terrazan %50a ireki daitekeela jakinarazi du Gobernuak.

Normaltasunerantz bertze pauso bat baldin bada ere, gure herriko ostatuentzat ez du aunitz suposatzen. Ostatu eta komertzio hauen bezeroen %90a Frantziatik edo Iparraldetik dator eta oraindik mugak itxiak egoteak ez du batere laguntzen.

Hortaz, nahiz eta irekitzeko baimenak eman, Urdazubiko

ostatuen kasuan irekiera hau luzatuko da. Mugaz gaindiko aktibitate horretan oinarritzen da gure herriaren ekonomia batez ere.

Muga irekitzeko eskaera

Egoera hau arindu nahian, Herriko Etxeak eta Dantxarri-neko elkarteak, inguruko bertze hainbat udalekin batera, idatzi bat egin du Nafarroako eta Espainiako Gobernuari zuzendua eta baita Franzia-ko Estatuari ere, mugak hesteko agindua azken honek jarri baitzuen.

Ugarana elkarteak 450 maskara banatu ditu herritarren artean

ARANTXA ETA IRAIA

Konfinamenduaren hasieran Ugarana elkarteak maskarak egiten zituela aipatu genuen. Orain bada, lan horren emaitza izan dugu, herriko emakumeek egindako 450 maskara banatuak izan baitira herritar guztientzat. Maskara

hauek, mediku batek seguruak zirela ikusi ondotik, herriko hiru kokalekutan banatu ziren joan den apirilaren 25ean. Hortaz, batzuk herriko bi farmazietan, eta bertze 60 bat izanen dira hemendik aintzineran.



ARANTXA ETA IRAIA

Herriko txokoez gozaten ari da jendea

Maiatzaren 2az geroztik, lehendabiziko larunbatetik, Urdazubiko jendeak herriak eskaintzen dituen xokoez gozatzeko aukera izan du, hala nola, mila urteko haritza, Azkarreko kaxkoa, Burdinaren bidea... Denei ere ongi etorriko zaigu aire garbi pixka bat arnastea!

1,34 milioiko inbertsioa udal azpiegiturarako

Nafarroa osoan 24 milioi euro bideratuko ditu Tokiko Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritzak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Tokiko Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak 24 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu 2017-2019ko Tokiko Inbertsioen Programan (TIP) sartutako udal azpiegiturak hobetzeko proiekturarako. Gaur egun, 238 proiektu garatzen ari dira 111 herritan, 22,1 milioi eurotik goitiko zenbatekoarekin. Horrez gain, bertze 2,2 milioi euro jarriko dira toki-erakundeek hautatutako determinazio libreak inbertsioetarako.

Eskualtera 1,34 milioi euro

Baztan-Bidasoko eskualdeak 941.423,11 euroko esleipena du TIPen kargura eta Larraun-Leitzaldeak 700.000 euro ingurukoa (403.410,29 euro Arano, Goizueta eta Leitzan). Beraz, denera, Tipi-Ttapak hartzen duen eskualdeko udal erakundeek 1.344.833,4 euro jasoko dituzte

Inbertsio-programaren baitan 128.996,58 euro jasoko ditu **Donezteboko Udalak**, ur-biltegia egiteko; 117.511,30 euro **Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak**, garbiguneetarako; **Hondakinen Tratamendurako Partzuergoak** 105.277,61 euro jasoko ditu **Goizuetan** Mendialdeko konpostaje-planta egiteko eta 56.835,50 **Zugarramurdiko Udalak**, ur-hartze berriak egiteko eta banatzeko.

Tokiko programazioaren baitan, berriz, **Aranoko Udalak** 31.729,35 euro jasoko ditu Beheko Herriko ur-hornidura sarrerako eta 62.898,02 Goiko Herriko ur-hornidura sarrera-

ko; **Arantzako Udalak** 6.748,71 euro jasoko ditu Bordalarreko biderako; 5.369,05 euro Iru-llegialdeko biderako eta 12.878,34 Herriko Etxean eskailera-igogailua instalatzeko; **Baztango Udalak** 42.863,87 euro jasoko ditu Azpilkuetako hornidura, saneamendu eta euriuren sareetarako, 76.754,75 euro Zuaztoiko Azpilkuetako hornidura, saneamendu eta euriuren sareetarako, 16.157,15 euro Urruxkako biderako, 31.272,85 euro Sumutsuko biderako, 31.016,56 euro Azpilkuetako karriketako zolaberritze lanetarako eta 61.479,19 euro Zuaztoiko zolaberritze lanetarako; **Berako Udalak** 96.912,72 euro jasoko ditu Agerra auzoko ur-hornidura eta saneamendu sarerako, 45.486,40 euro argiteria publikoa berritzeko, 43.837,26 euro Eztegarra pilotalekua gaur egungo araudira egokitzeko lanen hirugarren faserako eta 33.039,86 euro Musika Eskolako irisgarritasuna hobetzeko; **Donamariako Udalak** 56.391,03 euro jasoko ditu Gazteluko karrika nagusia zolaberritzeko; **Eratsungo Udalak** 42.381,87 euro jasoko ditu Herriko Etxean moldaketak egiteko; **Goizuetako Udalak** 66.343,31 udaletxerako irisgarritasuna hobetzeko; **Leitzako Udalak** 137.162 euro udaletxearen teilatua zaharberritzeko; **Sunbillako Udalak** 10.161,30 euro eskola publiko berriaren hirigintza-lanetarako eta bertze 658,64 euro eskola berriaren hirigintza-sareetarako eta **Urdazubiko Udalak** 24.670,18 euro Katalinkobordako biderako.



Goiburuko ur-depositarioa ezkerrean eta Arleungoa eskuinean. Honek batez ere hiru etxe hornitzen ditu: Sansinea, Etxogaia, eta Elizagunea. MARIFA ETA KORO

Herrian hainbat lan egiten ari dira eta egiten hasiko dira

Herriko Etxea goititik beheiti konpontzeko lanak udazkenean hasteko asmoa dute eta urtebetez ariko dira

MARIFA ETA KORO

Joan den hauteskundeetan hautatugenetuen udalek lanean hasi zirenetik urtebete beteko dute egun hauetan. Gure herrikoa buru-belarri dabil lanean eta uraren kontura badira hainbat berri.

Alde batetik, ur-sareak zeukan isuri kozkorra atzematea lortu zen (Azketa aldean zegoen), eta behar den bezala konpondu da.

Bertzetik, uraren emaria neurtzeko bi kaudalimetro jarri dira, bata Bizkarrondoan

eta bertzea Teltxegiko borda aldean. Era berean, kanpamentutako errekatik iturri berri bat hartu da, Goiburuko ur-depositorat bideratzeko eta udan sortzen den ur eskasia arintzeko, Arleungo magalean dagoen depositoko saretik, "bypass" bat jarri da, Goiburuko depositorat ere ura bideratzeko.

Herriko Etxea goitik beheiti

Bertzalde, lezeko sarrerako etxolaren teilatua moldatu da urte hasiera honetan. Eta egin-



Herriko Etxea moldatzen hasiko dira udazkebenean. MARIFA ETA KORO

dakoaz gain, laister martxan emateko bertze bi proiektu badaude. Alde batetik, Herriko Etxea den-dena konponduko dute, goititik beheiti. Lanak udazkenean hasteko esperantza da, eta iraupena urtebetekoa izanen dela kalkulatu da.

Bertze alde batetik, hainbertze urtez hetsirik egon den errota, errentan eman nahi dute. Horretarako lan batzuk egin behar dira aitzinetik, bertzeren artean, teilatua konpondu eta sukaldea haunditu, hartzen duen maizterrak lanerako baldintza onakizateko.

Frantziak ez du argitzen noiz irekiko dituzten mugako pasabideak

TTIPI-TTAPA

Dantxarinereko pasabidea kenduta, gainerako pasabideak hetsita segitzen dute, eta oraingoz ez dago jakiterik Frantziako Gobernuak noiz emanen duen horiek zabaltzeko agindua. Hilaren 11n konfinamendua arintzeari ekin diote,

baina ez dagoela eperik mugak zabaltzeko, eta hori Europako Batasuneko kideen artean erabaki beharko dutela adierazi du Barne Ministroak.

Gogoratu behar da Urdazubi, Zugarramurdi, Baztan, Etxalar eta Berako alkateek Pirinio Atlantikoetako prefe-

tari idatzi bat bidali ziotela mugaz gaindiko langileei gure herrietako ohiko muga pasabideak irekitzeko eskatuz.

Mugaz gaindi egunero lanean joan behar dutenak ez dute bertze erremediorik, autoa hartu eta muga zeharkatu behar lan tokira iristeko. Egoera honetan Saratik, Senperetik, Urdazubitik edo Zugarramurditik, Berara, Etxalarrera edo Lesakara edo alderantziz la-

nera joateko konparaziora, hainbat ordezko bide hartu behar dira, eta autoz bidaia luzeak egitera behartuak daude langileak, arriskua eta kostu ekonomikoa areagotuz.

Horregatik, Bera, Etxalar, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko alkateek zera eskatu diote M. Eric Spitz prefetari: «gure ohiko eta betiko muga pasabideak mugaz gaindiko langileei irekitzeko».

Neurriak arintzen hasi dira aste honetan

Aste honetan ikastetxeetako ateak ireki dituzte baina ikasleen itzulera progresiboa izanen da

GANEX-TTIPI-TTAPA

Agintariek martxoaren 22an ezarritako alarma egoera uztailearen 24a arte luzatu daitekeela adierazi badute ere, aste honetan hasiko dira konfinamendutik ateratzeko neurriak arintzen. Haurrak, konparazio batera, ikastetxeetara bueltatzen hasiko dira, baina ez dira denak elkarrekin bueltatuko; adinaren arabera banatuta egiten dute. Sehaskako ikastolen kasuan, Lehen Mailako ikasleekin hasiko dira itzulera progresibo hori egiten, beti ere osasun neurriak errespetatuz. Horren arabera erabakiko dute ondoko asteetan zer egin.

Ekitaldiak gibelatuak edo deuseztatuak

Gainerakoan, ekitaldiak deuseztatuak edo egunez aldatuak

izan dira. Sara Korrika elkarteak martxo hondarrerako antolatu mendi lasterketak bertan beheiti utzi zituzten eta Idazleen Biltzarra, berriz, buruileko lehenbiziko asteburuan izanen da.

Elkarte batzuek beren biltzar nagusiak ere egunez aldatu dituzte. Beti Gaztek elkarteak, erraterako, hazilaren 6an egiten du, ordurakoz koronabirusa gaunditua izanen dela pentsatuz. Sarako bestak, berriz, usaian bezala buruilairen bigarren igandean ospatuko direla espero dute.

Lezeak, trenak eta dendak

Turismo bulegoak, lezeak eta trenak ere hetsiak segitzen dute eta bistakoa da, hori makur handia izanen dela herriko buxetarentzat, bi toki turistikoko horietatik diru alde



Igandean ospatzekoa zen Herri Urrats bestarik gabe gelditu dira aurten ikastolakoak.

ederra ailegatzen baita herri-rat.

Bertzetik, herriko komertzioek lanean segitzen dute: okindegiak, harategia eta janari-dendak irekiak dira, baita farmazia ere, eta ostatuek etxera eramateko jateko prestatzeko aukera eskaintzen dute. Publikoari ateak zabalteko, ordea, gehiago esperatu beharko dute.

Herriko Etxea ere, usaian bezala zabaldua da, astelehen, asteazken eta ortziraletan goizez eta arratsaldez irekitzen dute eta astearte eta ortzegu-netan goizez, ohiko ordutegian.

Hegoalderako bideak itxita

Gainerakoan, Lapurdi eta Nafarroa arteko pasabideek orain


goz itxita segituko dute, Eric Spitz prefetak hala erantzun baitio langileei ohiko pasabideak irekitzea eskatuz Zugarramurdi, Urdazubi, Etxalar, Bera eta Baztango auzapezek igorritako gutunari. Inguruan, Dantxarinako pasabidea da irekia dagoen bakarra.

Datu larririk ez

Bertzetik, koronabirusean positibo eman duten kasu batzuk izan dira Saran, baina etxean gaunditu dute. Zahar etxean ez da nehor hil gaitzaren ondorioz eta badugu esperantza eritasun zikin hori pasatuko dela, erranak denok errespetatzen baditugu. Beraz goazen aitzinera kuraiarekin eta zaindu.

Aste honetatik aitzinera maskarekin

Aste honetatik aitzinera maskarak erabiltzea derrigorrezkoa izanen da eta Euskal Hirigune Elkargoak oihalezko 650.000 maskara banatuko ditu uririk Ipar Euskal Herriko herritarren artean. Orain arte 300.000 maskara banatzekoak zituen eta hemendik aitzinera, 100.000 banatuko ditu astero, herritar bakoitzak bina maskara eskuratu arte. Elkargotik adierazi dutenez, «bi maskara ez dira aski izanen eguneroko jarduerekin aitzinera segitzeko baina gutieneko hornidura» bermatu nahi dute.



Hirigune Elkargoak oihalezko bina maskara banatuko dizkie herritarrei.

Ohar bidez jakinarazi duenez, maskarak garbitu eta berrerabiltzeko izanen dira: 15-20 aldiz garbitu ahal izanen dira, 60 gradutara. Hon-

datu direnean, berriz, plastikozko poltsa berezi batean sartu beharko dira, ongi itxita, eta gero etxeko zaborrarekin batera bota.

Liburuak Sarako Biltzarraren webgunean

Aurtengo Sarako Biltzarra irailera gibelatua izan denez, birtarte horretan, webgunean argialetxeen eta idazleen liburu batzuk proposatzea erabaki du hitzorduaren antolatzailerak den Sarako Biltzarra elkarteak. Denetarik proposamenak luzatzeko asmoa du eta dagoeneko hasia da horretan. Lerro hauek idazterakoan atsotitzen bilduma bat, eleberri bat eta liburu-bilduma bat leitzeko gonbita eginga zuen. Informazio gehiago sarako-biltzarra.eus atarian duzue eskura.

«Eraikuntzako gaiak suntsitzetik salbatzen ditugu»

OLIVIER HIRIGOIEN 'IBARRARTE' PATXA'MA ELKARTEKOA

PIERRE BASTRES SENPERE

Suntsitze lanak hasi baino lehen aritzen dira Patxa'ma elkartekoak, gaiak edo ekaiak garbiki kentzeko, birziklatu ahal izateko. Olivier Hirigoien Ibarrartek, 37 urteko senper-tarrak adierazi digu zer den Patxa'ma.

Nor zara eta zer egin duzu zure lan bizitzan orain arte?

Ingenieritza ikasketak jarraitu ditut, zurrezko eraikuntzan hain zuzen, Bordelen. Sail huntan aritu izan naiz beti, Eskual Herritik kanpo batez ere, eta bortz urtez Kanadan, 2018 arte. Urte hartan sartu naiz. Bulegoetan aritu ondoren urte ainitzez, lan konkretuagoetan aritzeko gogoia piztu zait. Teoriaz aspertua nintzen. Gustuko zerbait nahi nuen egin. Bitartekako langile gisa aritu izan naiz, maiasturu gisan, eta arras konten, ainitz baitut ikasi.

Eta lanbide hartan jarraitu nahi zenuen?

Bertze asmorik baneukan bai, haatik ontzeko astia behar nuen, eta hola egon naiz urte bat eta erdiz. Gainerat, militantismoan mugiltzen nintzen, "Bizi" izeneko elkartearen erraite baterako, ingurumen eta garapen iraunkorren alde aritzen dena, eta lana eta zaletasuna elgarri uztartzekoak zirela ohartzen nintzen.

Zure xedea gauzatzeko militantziak lagundu zaitu beraz?

Bizin, transizio ekologikoaren teoria gauzatzea ikasten da, eta bertalde talde-lanetan aritzen ginenez geroz, jende ainitz ezagutu dut. Horietako bat zen Julien, enekin Patxa'ma sortu duena. Bide berekoak ginen, hura ere egona zen bulegoko lanetan luzaz, ingenio-rea energia sailan, eta berdin huntaz higatua. Eta geroari buruz zerbait baliosa egiteko nahikeria zuen ere bai. Maiz elkarretaratu ginen, aintzintzeko, eta eraikuntzan egiteko ainitz bazela jabetu gara, birziklaketan. Eta gan den urteko buruilean Patxa'ma sortu dugu.

Zuen metodoa adierazi aitzin, zertako Patxa'ma hautatu duzue izenatzat?

Baionako elkarte izigarri eza-guna zen Patxa, aitzinazale sail guzietan. Aunitzek baino lehen ulertua zuten ingurumenaz behar zela axolatu. Bertzalde, aimara eta kitxua hizkuntzaz, Ama Lurra Patxamamma deitzen da. Aipamen bat nahi genien egin.

Zuen eginmoldea zehazten ahal duzu?

Suntsituak izanen diren etxe eta eraikinetan, onak eta baliagarriak diren gaiak ez botatzea da gure helburua, eta gero balore bat ematea, hobe-kuz eta berrit salduz. Hau da gure modeloa. Arkitektoek, artisauek, partikularrek deitzen gaituzte, eta lanak hasi baino



Patxa'ma elkarteko Olivier eta Julien lanean. PIERRE BASTRES

lehen, lekua aztertzen dugu: berziklagarriak diren gaiak kentzen ditugu guhaurrek. Gero sailkatzen, erreferentziak emaiten eta biltegian altxatzen. Hala nola, edozein motako altzari, leiho, ate, zurrezko edo altzairuzko pieza izan daiteke.

Eta ekai horiek nola baloratzen dituzue?

Saltzen ditugu. Xantierretan iragaiten ditugun orenak merke ordainarazten ditugu, honenbertzez saltzea garrantzitsua da guretzat. Ez dugu dendarik izaiten, katalogo batean gure erreferentziak

«BALIAGARRIAK DIREN GAIK EZ BOTATZEA DA GURE HELBURUA»

ikusgai dira, eta norberak hahi duena erosten ahal du.

Zazpi hilabeteren ondotik, zuen helburuak bete dituzue?

Bai, bi gara denbora osoz aritzen garenak, eta behar denean laguntzen gaituzte elkarteko kideek. Eskaera handia bada, gu bezalako enpresa edo elkarte gutti bada. Bertzalde, erakunde batzuen lagungoaz bermatzen gara: enpresa mintegi bat, Industria Ganbera... Geroari buruz, zer nolako egitas-morik daukazue?

Alde batetik gure ekipa azkartu eta osatu nahi genuke, eta bertzaldetik biltegi handiago bat behar genuke. Aitzin-salmentak ere garatzeko nahikeria dugu. Lehentasuna handienetako bat da profesionalak zein partikularrek ezagut gaitzaten, eta gai birziklatuez ikus dezaten zen egiten ahal den.


744 484 361
ttipi-ttapa

MENDIKO
JATETXEA

Sagardotegia
Ibardin-BERA | T. 00 34 948 63 03 02
www.mendikoibardin.com

Karta ere badugu!

ORBELA
SENDERISMA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

«310 kiloko harria altxatzeko serio segitzen dut lanean»

INAXIO PERURENA LEITZAKO HARRIJASOTZAILEA

AITOR AROTZENA LEITZA

Duela lau urte lortu zuen Inaxio Perurena harri-jasotzaile leitzarrak bere azken marka handia, 308 kiloko harria bizkarreratu zuenean Leitzako Amazabal pilotalekuan. Udaberri honetan 310 kiloko altxatzeko prestaketan ari da buru-belarri, baina gaur egungo egoera dela eta, ezin jakin saiakera egiterik izanen duen...

Udaberri honetan 310 kiloko harriarekin saiatzekoa zara, baina ezin jakin posible izanen den...

Oraindik ez dugu bazterreraz utzi, hilabete askotako lana da. Orain, koronabirusaren gai hau atera da, baina hor segitzen dugu. Ezin dugu harria baztertu kolpetik, ez baitakigu berriz ere orain daukagun maila hartzerik izanen dugun. Hamabostero albiste berriak ematen dituzte eta horregatik entrenatzen segitzen dugu. Nik ez dut ez kirol-medikurik, ez prestatzailerik, nire kabuz aritzen naiz entrenamenduetan garajejan, suerte hori badut. Normalean larunbatetan aritzen naiz harri handiarekin eta hor pasatzen dut beldurrik handiena, bakar-bakarrik 300 kilo baino gehiagoko harriarekin laguntzailerik gabe jardutean.

Data zehaztua zenuen marka-saiakerarako?

Ez, ez... normalean nire marka izaten da entrenamenduetan egitea eta hor ikusi pisu hori ongi altxatzeko gai naizen, ez behin eta ez bitan... bi edo hiru aste erregular izan behar dituzu. Orain, pesekin 308 kilo altxatu nitueneko kargekin ari naiz, indarrez ongi nago, orain mantentze-lana egin behar dut, lau edo bost entrenamen-

du egin harri handiekin. Prest nagoela ikusten dudanean, hamabost bat egun lehenago eskatu behar dut antidoping proba saiakera homologatzeko eta aurrera.

Beste kiroletan ate itxiekien lehartzeko aukera aztertzen ari dira. Zuk horrelakorik pentsatua duzu?

Ez. Nire asmoa maiatz bukatu arte entrenamenduekin segitzea da. Ekainean, eguraldia hobetzen denean eta behar bada, birus honen datuak hobetzen direnean igual utziko dute zer edo zer egiten. Esperantza hori daukat. Saiakera ofizial bat etxean egin behar badut, ikuslerik gabe, harri hori altxatzea dirua kostatu behar zait. Ez dut horrelako pentsamendurik. Egitekotan, berriz ere Leitzako frontoian egingen dut, jendaurrean.

2016an lortu zenuen azken marka, 308 kilokoa altxatuta. Lau urte beranduago bi kilo gehiago... Bakarren batek esan dezake ez dela alde handia...

Batek baino gehiagok komentatu dit... Badirudi lau urteotan harri-jasotzea utzi egin dudala, baina urtero saiatzen naiz. Honek daukan txarrena da kilo askorekin entrenatu behar duzula eta karrozeriari kriston paliza ematen zaio. 2017an plazarako prest nengoenean, entrenamenduetan, krakl, gerria behartu nuen eta utzi behar izan nuen; 2018an tendon rotulianoan tendinitisa izan nuen, urte eta gehiagoz gerra handia eman didana: harria gerrira ekarri eta kolpekak emateko puntu horretan, labana sartuko banindute bezala zen. Baina, aldi berean, ezin ditugu erakus-



Inaxio Perurenak duela lau urte jaso zuen 308 kiloko harria Leitzan. ARTXIBOKOIA

taldiak utzi, horretatik bizi garelako. Arrastaka-arrastaka, batzutan oso gaizki, baina erakustaldietan moldatu nintzen eta hori dena moldatu nuenean, fisioarekin eta, egurrean hasi nintzen. Baina Valentziako udako erakustaldi batean, 270 kiloko harriarekin, ezkerreko bizepsa behartu

«HAINBESTE GAUZA ONGI EGIN BEHAR DIRA HAIN DENBORA GUTXIAN»

nuen eta berdin, deskantsurik ezin eman erakustaldietan, eta minarekin arrastaka. Jendeak uste du entrenamenduetan hobetu, hobetu eta hobetu egiten dela, gero eta pisu gehiago, baina ez da horrela izaten normalean. Piko bat egiten duzu, gorputza gora, gero berriz behera, ez egonkorra izaten da... Piko horietako batean zaudenean egin beharra daukazu saiakera eta suertea izan behar duzu.

Harri-jasotzen, noiz arteko soka ikusten diozu zure buruari?

Ez dago jakiterik. Arazorik handiena lesioak dira. Harri

handiekin aritzen zarenean, urtero-urtero izaten duzu halakoren bat, zaintiraturen bat edo nahiko azkar buelta ematen zaiona. Baina lesio serio bat izanen banu, garbi dago momentu horretan utzi behariko nuela. 40 urtera arte maila ona eman daiteke, adin horretatik gora erakustaldietan ere maila oso onean dabilen jendea bada, Ostolaza hor ari da 46-47 urterekin. Baina suertea behar da lesioekin. Ikusita aurtengo uda nola joan behar duen, buruari buelta asko ematen dizkiot. Niretzako txikitatik, harri-jasotzearen gauzarik ederrena harri handiekin aritzea da, prestatu, berotu, arropak txukun jarri eta bizkarrera pakete handi bat eramateko denak perfektu atera behar du eta atzetik daukan lan guzia: hainbeste gauza ongi egin behar dira hain denbora gutxian. Nire helburua horretan segitzea da, baina horretarako gorputzak lagundu egin behar du.

Masaje-emaile izateko ere prestatzen ari omen zara...

Nire kirol ibilbidea bukatzen denerako prestakuntza eta formakuntza behar nuela garbi nuen. 2012an kamilla bat erosi nuen eta urtetan prestatzen joateko asmoa nuen, kirol-masajista bezala hasteko. Beti pentsatzen nuen lesio larri bat izanez gero harria utzi behariko nuela, baina inork ez zuen pentsatzen birus batek horrelako oker bat ekar zezakeenik. Bete-bete harrapatu nau, kirolari batzurekin hasi nintzen masajeak ematen, urtebete egin nuen ikastaro presentzial batean Donostia-ra joanez. Nire bizi guzian kirola egin dut eta masajeak hartu ditut eta abantaila hori banuen, nahi gabe ere hezurak eta giharrak kontrolatzen dituzu, hori laguntza handia da. Jende batzuri masajea eman diet eta gustura gelditu dira, pausoa eman nuen, lokala hartu nuen Leitzan, kontratua sinatu eta handik bi astera konfinamendua.

«Udako erakustaldiekin egin dezaket neguko prestaketa»

«Egoera oso arraroa eta berezia da.» Inaxio Perurenarentzat ere, baina entrenatzeko ez dio eragin. «Goizez aziekin aritzen naiz lanean, base-rira joan, Donostira joan-etorriren bat, umeein egon, harria... Batzuk esaten didate, 'Utz ezazu harria, motel!',

baina behin utzita, beharbada sekula ez naiz oraingo mailara bueltatuko. Azken urteotako formula izan da: udan erakustaldi dexente egiten baditut, neguko prestaketa-rako gastuak asumitzen ahal ditut. Datorren urtean izanen dira kontuak, uda honetan ez

bada erakustaldirik. Asuntua beltza jarria dago». Hain zuzen, gaia serio hartzeko da bere aholkua: «Gero etorriko dira besarkadak emateko edo sagardotegira joateko garaiak. Luzera ez pentsatzea hobea da. Hurrengo egunean pentsatu eta segi eta segi, animo!

eta hau ere?

bai

Etxea Automobilak Istripuak Bizitza Ehorzketa

Aseguruen inguruko premiak dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

CAJA RURAL SEGUROS RGA Professional Cycling Team

DENA SEGURUAGOA DA HURBIL BAZAÚDE RURAL KUTXA

Bizitza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da; IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoak C-595; Etxe, Istripu, Ehorzketa eta Merkataritza aseguruak RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen dira; IFK A-78.524.683 eta DGSFPko gakoak C-616; Automobil aseguruak honako hauekin kontratatzen dira: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoak C-0467); Reale Seguros (IFK A78520293 eta DGSFPko gakoak C-0613); Mapfre España (IFK A-28141935 eta DGSFPko gakoak C-0056). Aseguruak RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculada, S.A. ren bitartez merkaturatzen dira (IFK: A79490264). Madriln du helbidea (C/Basauri, 14) eta DGSFPren bitartekarien enregistrazioan inbribatuta dago DV-0006 gakoarekin. Baita Madrilgo Merkataritza Enregistrazioan ere. 8205. Iburukian, 83. telefonoan, 8. sekzioan, M10186 orrian. Rural Kutxa RGA Mediación OSSV, S.A. ren banaketa sareko kide da. Helbide honetan kontsultatu dezakezu zer aseguru eberekin dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: www.segurocrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf

DENBORA-PASAK


Letra-zopak

L	O	J	U	P	U	A	F	U	B
E	K	A	R	A	K	H	L	K	I
B	E	S	T	A	K	A	I	M	D
N	Z	I	E	G	A	L	B	T	E
H	K	J	B	O	N	D	I	P	S
I	A	K	E	R	L	U	L	R	I
T	G	O	T	R	E	N	A	O	N
X	A	S	E	I	B	D	L	P	F
I	R	E	T	L	N	U	D	O	E
A	R	B	Z	A	T	T	I	S	K
L	I	N	E	R	H	X	U	A	T
D	Z	U	A	H	A	A	F	M	A
I	A	K	S	N	I	U	N	E	T
I	L	O	T	S	A	N	A	N	U
E	Z	A	I	S	T	R	I	P	U


- AGORRILA
- BEHIN
- DESINFEKTATU
- ZIEGA
- LOTSA
- URTEBETETZE
- ELKARTU
- BESTAK
- AHALDUNDU
- ISTRIPU
- ALU
- KEZKAGARRI
- AKER
- ITXIALDI
- TRENA
- PROPOSAMEN
- DUTXA
- IBILALDI

www.euskal.info


Hieroglifikoak



Arropa garbitzeko erabiltzen da.



Asotsik egiten ez duena.



Zein herri da?

Sudokuak

8				1		4	3	
	5		9	8		7		
					3			
	7	6				5		3
9								2
3		1				6	4	
			4					
		8		3	2		1	
	2	7		6				8

8				5				7
	1			2	5	9		
	9		3				1	
		6		4	7			9
		4			9	7		
1				3	4			
	3			8		2		
	6	7	2			4		
9			5					1

4			2	9		5		
	1			5				6
3			6			2		
6				3		7		
			8					
		1						4
	7			4				1
8			1			4		
	2		9	8				3

www.sudoku.name

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

BURLATA. Ikasle pisu batean logela bat errentan emateko apirilean, maiatzean eta ekainean. ☎659 82 66 09.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Lana dela eta Elizondon pisu bat errentan hartu nahi dute. ☎686 82 55 87.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. 70 m²ko lokal komertziala errentan emateko, Albistur karrikan, Onin errekarren bazterrean. ☎948 62 75 33.

ANIMALIAK

SALGAI

LEITZA. Txerrikumeak salgai. ☎690 98 61 18.



Bi asteme salgai: amak 6 urte eta alabak 3 urte. 750 eurotan. Mantsok eta eskura jarriak, haurrekin eta helduekin paseoak emateko. Oso ongi zainduak. ☎645 72 97 87 (Nerea).

BERA. 3 ahari mutur gorri salgai, 1, 3, eta 6 urtekoak. ☎697 44 05 90.

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

LANA

ESKARIAK

Adinekoak zaintzen bortz urteko esperientzia duen emakumezkoa lan bila. Lan egiteko gogoarekin eta prestutasun osoarekin. ☎643 49 94 03.

ESKAINTZAK

BERA. Berako mekanizatu tailer batean lan egiteko administrataria behar dute, goizez. ☎670 42 81 43.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58 🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61 @ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

MOTORRAK

SALGAI



Scooter Yamaha Slider salgai. 50cc. 2009koa. 10.000 km. Gasolina. 600 euro (kaskoa opari). ☎618 96 27 30.

TAILERRAK



IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez.

<https://erran.eus/merkatu-ttikia>

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,02
- 1.koa 4,90
- 2.koa 3,75

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,13
- 1.koa 3,99
- 2.koa 3,85

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 170,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,65/6,25
- 8-10 kilokoak: 4,40/4,90

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 68 €

Zerri gizona 1,343 €

Zerramak 0,630€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (apirilaren 24tik maiatzaren 1era bitarteko prezioak)

2. eskuko bizikletak

GOZATU

KIROLA

EGITEN!

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

BERAKO UDALA

ALKATEAREN EBAZPENA - HIRIGINTZA -

Berako Udaleko Alkateak, apirilaren 7an emandako 72/2020 Ebazpenaren bitartez, 9. poligonoko 422. partzelako Xehetasun Azterlana (Kaxerna Karrika 22 -10. partzela, SK2 sektorea, UE9), onetsi zuen hasiera batez. Espedientea jendaurrean izanzen da hogei lanegunez, dago-kion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik.

Bera, 2020-04-28
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña



744 484 361

ttipi-ttapa

OROIGARRIA

**Patxi
IRURETAGOIENA
HERNANDORENA**

Eratsun-Beintza-Labaien
2020ko apirilaren 29an, 62 urte zituela

Beti irribarrea zenuen lagun min
gauza denen gainetik aitzinera ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun familiarekin.

Eskerrak momentu hauetan gurekin egon zaretenei.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Cristina
IRIGOIEN IPARRAGIRRE**

Urdazubin hil zen apirilaren 18an,
89 zituela

Dena eman zenigulako
adiorik ez
gero arte baizik.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Joxe Miguel
OSKOZ OTXOTORENA**

Almandozen, 1951/04/18 - 2020/04/22

Agur bai Joxe Miguel,
esker mile zure laguntzeko
urrezko borondateagatik.
Egin behar dena egiteko beti prest.

Huts handia da
norbait hiltzen denean,
baina haundiagoa
zu bezalako bat faltatzen denean.

Agur, berriz elkartu arte!



URTEURRENA

**Joakin
MORTALENA SALABURU**

Zugarramurdin, 2019ko apirilaren 25ean
I. urteurrena

Umerez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.



RAMONTXO, JAIONE, ONINTZA ETA OIHAN

HERIOTZAK

- **Jose Miguel Oskoz Otxotorena**, Almandozkoa, apirilaren 22an, 69 urte zituela.
- **Ignacio Irigoien Hualde**, Iturengoa, apirilaren 23an hil zen, 83 urte zituela.
- **Antonio Goienetxe Cordoba**, Elizondokoa, apirilaren 28an, 84 urte zituela.
- **Antonia Cenoz Apeztegia**, Elizondokoa, apirilaren 28an, 99 urte zituela.
- **Patxi Iruretagoiena Hernandez**, Eratsun-Beintza-Labaiengoa, apirilaren 29an, 62 urte zituela.
- **Pilar Ariztia Arraztoa**, Elizondokoa, apirilaren 29an, 73 urte zituela.
- **M^a Soledad Bengotxea Iturriria**, Erratzukoa, apirilaren 29an, 80 urte zituela.
- **Jabier Deskarga Elizalde**, Eratsungoa, apirilaren 29an, 68 urte zituela.
- **Lourdes Huizi Perurena**, Goizuetakoa, apirilaren 30ean, 61 urte zituela.
- **Juan Sein Sansiñena**, Igantzikoa, maiatzaren 1ean, 81 urte zituela.
- **Eusebio Igoa Mitxelena**, Lesakakoa, maiatzaren 1ean, 90 urte zituela.
- **Miguel Larraburu Erasun**, Gaztelu-Hondarribia, maiatzaren 3an.
- **Martin Gogorza Saralegi**, Leitzakoa, maiatzaren 5ean.

OROIGARRIA

**MIGUEL
LARRABURU ERASUN
Migueltxo**

Gaztelun sortua, 2020ko maiatzaren 3an
Hondarribin hil zen, 68 urte zituela

Argi bat itzali da hemen lurrean
berri bat biztu da zeru ederrean.
Gure oroimenean izanen zara betiko.
Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.

Bidaia ona izan gure Migueltxo maitea.

ZURE FAMILIA



IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70

KONTATU KONTUAK



Etxeko balkoitik hegaztiei begira. Koronabirusa tarteko etxetik atera ezinik egon zen denboran, bere zaletasunari eusteko modua bilatu zuen Doneztebeko Oier Erkizia Amorosek. Hamabi urte ditu eta martxo erdialdean konfinamendua indarrean ezarri zutenean hasita, bortz astez guztira 25 hegazti espezie behatu zituen etxeko balkoitik bere kamararekin. Hartutako irudiekin bideoa osatu zuten eta arrakasta ederra izan zuen ERRAN.EUS-en.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri TTIPI-TTAPAN ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidalguzo argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61ra, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik edota zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitza

Etor zaitez TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortziritan,
Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begruneak

IZARRA
HEMEN, ZURIE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

BB
BAZTAN
BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDON** Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

URTEBETETZEAK




Elizondoko **Beñat Arteta Mikelperizenak** urtea bete du apirilaren 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Berako **Ainhoa Larretxea Agirrek** 24 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Auniz urtez etxeko partetik eta ea nola ospatzen dugun aurten. Eutsi goiari!



Goizuetako **Ilargi Indakoetxea Mendizurik** 6 urte bete ditu apirilaren 30ean. Zorionak gure etxeko *Wonder Woman* txikiari aita, ama, amona Pakita eta Hernani eta Usurbilgo familia osoaren partetik.



Maiatzaren 2an 10 urte bete dituzulako, zorionak **Etxahun!** Lesaka, Bera eta Pasai Donibaneke familiaren partetik. Muxu haundi bat amatxiren partetik.



Elorri eta Aiert Arotzena Portu lesakarrekin 9 urte bete dituzte maiatzaren 6an. Auniz urtez bikote eta muxu haundi bana familia osoaren partetik.



Sunbillako **Amane Muñoz Arretxeak** maiatzaren 11n 4 urte bete ditu. Auniz urtez familiaren eta berexiki Oier, Maiane, Argia, Andoni eta Ixoneren partetik.



Leitzako **Garazik** bost urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak Aresoko familiaren eta bereziki Maddiren partetik. Ezpain gorri gorriekin, hartazu muxu erraldoi bat! Behar bezala ospatuko dugu!



Zorionak **Helene!** maiatzaren 13an 11 urte bete dituzulako, auniz urtez amaren, aitaren, amatxiren... eta familia osoaren partetik, bereziki Bidea eta Xanen partetik. Ongi pasa!

SORTZEAK

- **Aiora Marin Berrueta**, Etxalarkoa, apirilaren 29an.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du. Nahiago duenak Whatsappez ere idatz dezake: 744 48 43 61.

PLAZAN BAZAN



LABIRINTOA

Bi erlauntzek berdinak
ematen dute baina aldeak
daude batetik bestera.
Ikusten al dituzu?
Hamabost dira guztira.



1 _____

2 _____

3 _____

4 _____

5 _____

6 _____

7 _____

8 _____

9 _____

10 _____


11 _____

12 _____

13 _____

14 _____

15 _____



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

SUDOKUA

Zeren bila dabilta erleak lorez lore?
POLENA biltzen aritzen dira, ezta?
Osa itzazu lauki zuriak, hitz hori
osatzen dituzten letrak kontuan hartuta
(P, O, L, E, N eta A).
Gogoratu letra bakoitzak behin
agertu behar duela zutabe, lerro eta
area bakoitzeko.

HAU DA
PAGOTXA!



		P		A	
A	O				
L					A
E					N
				L	O
	A		E		

ITZALA

Zein da lorearen itzal zuzena?



Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

757

aleko
irabazleak



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Carmen Errekart Ospital | SUNBILLA

Onddo eta punto - Kamiseta bat

Juan Cruz Maritorea Irureta | BERROETA

La Rhune - 2 sarrera

Luis Zunzarren Lorente | DONEZTEBE

Galaxy park - 2 sarrera

Martin Jose Zabaleta Zestau | LEITZA

Irrisarri land - 2 sarrera

Lurdes Argain Bergara | NARBARTE

Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera

Javier Aranguren Elizalde | IRUÑEA

Mauka - Diska bat

Arantxa Elizondo Bertiz | BERA

Mauka - Diska bat

Cristina Urtsun Jaimereña | IRURITA

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE


www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

Wow Park

wowpark.fr



2 sarrera

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK

www.mendukilo.com



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



- 'Berriak jaio ginen' Jon Maia Soria
- 'Lana festa bihurtuz' Angel Larrañaga Sudupe

Lanku

www.lanku.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.baga-biga.eus



www.lesakakoudalkiroldegia.com